

puntu

Uxue Lazkano bioinformatikariari elkarrizketa

Argazkilarien paradisuaren barrena, Islandian



EURITEAK ERAGINDAKO KALTEAK, AGERIAN

Aurreko asteko eurite etengabeek hainbat kalte eragin dituzte; izan ere, errepideak hondatu egin dira luizien eta pitzaduren ondorioz / 2



Ezkerretik eskuinera, goitik hasita: Arlaban, Udana, Urkulu, Gorla, Ametzu (Aramaio) eta Errotatxo (Oñati). ARGAZKIAK: IMANOL BELOKI, OIHANA ELORZA, XABIER URZELAI, IÑIGO ZUBELDIA, ARAMAIOKO UDALA ETA NEREA LERTXUNDI

GABONAK 2021
+ **SANTAMASAK** / 21

SINADURAK

PERU
ABARRATEGI / 14

IÑAKI
UGARTEBURU / 8

MIKEL
BIANI / 48

eguzkitako

2MÓ

58€

Gabonetan oparitu mó

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multioplicas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

Euriaren kalteek bideetan diraute

Astebeteen zeharo aldatu da eguraldia; halere, aurreko asteko euriteek eragindako kalteak pairatzen ari dira oraindik debagoiendarrak. Hainbat errepidek itxita jarraitzen dute luiziengatik, eta garbiketa eta konponketa lanetan ari dira lokal eta garajeetan.

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Eguen iluntzean hasi zen larritzen egoera; izan ere, batez beste, egun osoan 65,6 litro bota zituen Debagoiengan metro karratuko. Hala, egubakoitzean askotariko arazoak sortu ziren bailarako herri eta errepideetan.

Herriz herriko errepasoa eginenez gero, Aramaion errekek gainezka egin zuen eguenean bertan –baita egubakoitzean ere zerbait momentutan–, eta ura udaletxeko sarrerara eta plaza sartu zen; igogailua ere urez beteta aurkitu zuten udaletxeko langileek. Horrez gain, lur-jausiak ere izan dira eta oraindik bi bidek itxita jarraitzen dute: Matxain kaletik Ametzura doanak (A-4025) eta Gantzagara doanak –Arragako bidegurutzean– (A-2620). Aramaiotik Arrasaterako bidean ere jausi zen lurra errepidera, baina ez zuen aparteko arazorik sortu.

Arrasaterekin jarraituz, Deba eta Aramaio ibaiak asko hazi ziren eguenean. Musakolako tailer batean estoldetatik sartu zen ura, eta baita Arrasate pasealekuko garaje batzuetan ere. Halaber, San Andres auzoan

ortu batzuk kaltetu zituen errekek. Bestalde, Ibai Aldeko bizilagunak astelehenean itzuli ziren etxera, hilaren 5ean luizi batek haien eraikina harrapatu eta aste bat baino gehiago etxetik kanpo egon ostean.

Bergaran ere askotariko kalteak eragin dituzte euri handiek. Bolu auzoan lur-jausia izan zen egubakoitz goizean. Bizilagun gehienak egun berean, iluntzean, itzuli ziren etxera, baina 57. atarikoak zapatu eguerdian bueltatu ziren. 2017ko urtarrileko gertakariak gogoratu zituzten herritarrek, eta, azaldu zuten, "urduri" bizi izan zituzten ordu haiek. Aipatutako etxeen segurtasuna bermatzeko, Udalak azaldu du hormigoizko *new jersey*-ak jarri direla, behin-behineko irtenbide gisa. Horrez gain, Zubieta eta Ibaiondoko zenbait garaje eta lokaletara ere sartu zen ura egubakoitz goizaldean; baita Lasai-toki elkartera ere: metro bat inguruko marka utzi zuen paretan. Eta Bergarako luiziei dagokienez, bederatzitan esku hartu behar izan du Bergarako Udalak bizilagunei sarrera-irteerak bermatzeko. Ho-

rietako batean ibilgailu bat harrapatuta gelditu zen, baina ez zen zauriturik izan. Eta begiradak Gorlako mendatean egon dira jarrita, batez ere; izan ere, itxita egon zen eguazten eguerdira arte. Antzuola eta Bergarako mugan dagoen Amezti baserri parean lur-jausia handia izan zen egubakoitzean, eta bidea erabat oztopatuta geratu zen.

Antzuolarekin jarraituz, Udalak jakinarazi du Gorlako luiziaz gain ez dela "aparteko ezer" gertatu. Nahiz eta beste auzo



Arlabango errepidea. IMANOL BELOKI

batzuetan ere –Uzarragarako bidean, esaterako– lur-jausiak izan diren.

Gorlak ez, baina Udanak eta Arlabanek itxita jarraitzen dute; kasu horietan, bidean sortu diren pitzadurengatik. Domekan itxi zen Udana, eta oraindik oñatiarrek Legazpirako bidea Bergararik, Deskargaratik, egin behar dute. Beste modu batera esanda, irteera eta sarrera bakarra du Oñatik: Elorregikoa –eta kontuan hartzeko datua da GI-2630 errepide horretan 10.000 ibilgailu ibiltzen direla egunero eta hamarretik bat ibilgailu astuna dela–.

Eta Arlabani lotuta, Eskoria-tza eta Landa lotzen dituen GI-627 errepideko zenbait puntutan arrakalak daude; itxita dago bidea. Nolanahi ere, ibilgailuak Leintz Gatzagatik nahiz AP-1 errepidetik igaro daitezke Arabara, eta auzotarrek etxera iristeko zenbait errepide zati erabil ditzakete. Horrez gain, Eskoria-tzan, egubakoitza ezker Bolibar auzorako bidea ere itxita dago lur-jausi bat dela eta.

Aretxabaletan ere, Urkulurako bidean, euritearen ondorioz

lur-jausia izan zen egubakoitzean, eta errepide zati batek behera egin zuen; ondorioz, bidea itxita geratu zen. Egunotan aritu dira garbitze-lanak egiten, eta, bitartean, txandakako pasoa ematen jardun dute, lau auzotako bizilagunak etxetara iritsi ahal izateko. Bestetik, muturreko denboralearen beste eragin bat izan da Urkuluko urtegiak gainezka egitea. Zapatu goizean %100,76ra iritsi zen betetze-maila eta soberan zegoen ura Zubillaga aldera joan zen.

Bukatzeko, Elgetan, asteburuan itxita egon dira Elorriora eta Eibarrera doazen bideak, eta Kanpanzarren ere arazoak izan dira luiziak direla eta. Azken berrien arabera, oraindik ere luperiaren bat kentzeko dagoen arren, zabalik daude bideak.

74 litro egun bakarrean

Eguenetik domekara arte 132 litro bota zituen bailaran metro karratuko. Elorregin jaso ziren zenbateko handienak; eta, hain zuzen ere, bertan erregistratu da azken hilabeteetako daturik altuena: eguenean 74,1 litro egin zituen metro karratuko.



Bergarako Lasai-Toki elkartea, egubakoitz arratsaldean. IMANOL SORIANO

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



bertako
igogailuak | ascensores
www.bertako.eus



ZILORA JAUSITAKO
OBJEKTOAK
BERRESKURATzea

HARRAPATZE
EGONAK

IGOGAILUAK
ZARATAK

365/24/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
848 870 917



Urkulurako bidea luiziaren eraginez itxita. IRATXE BENGOA



Garagaltzako bide bat. JOANES URRATE



Gorlako bidea. IÑIGO ZUBELDIA

Kalte ugari eragin ditu euriteak


ALEX PEREZ
ARETXABALETARRA



"Lur orotako ibilgailuak ez diren autoekin zaila da bidexketan ibiltzea"

"Arlaban mendateko errepideari ez zaio jaramonik egiten. Orain erabat pitzatuta dago bidea, eta argi dago euriteek eragin handia izan dutela, baina, funtsean, aspalditik datorren kontua da; hemen ez da mantentze-lanik egin aspalditik. Bidea itxita dugun honetan, lur orotako ibilgailuarekin ondo moldatu gaitzke, baina bestelako autoekin zaila da bidexketan ibiltzea. Gainera, ematen duenez, luze joko dute errepidea konpontzeko lanek".

ANDONI OLABARRIA
BERGARARRA



"Nik ez dut sekula ikusi horrenbeste ur eta lokatz Ibaiondoko garajeetan"

"Euri asko egiten duenean, errekaen maila dezente igotzen da Ibaiondon, eta ura aparkalekuetara ateratzen da sarri. Baina nik ez dut sekula ikusi horrenbeste ur eta lokatz garajeetan. Urduri igaro genuen eguen gaua; batez ere, kalean aparkatutako autoak kezkatzen gintuen. Egubakoitzean, garajeen genituen gauzak lekuz mugituta eta erorita aurkitu genituen eta kalte materialak ere sortu ditu urak. Orain, dena garbitzea tokatzen da".

JOANES URRATE
OÑATIARRA



"Eguenean, etxerako bidean, lur-jausia topatu genuen errepidean"

"Eguen arratsaldean, umeak kalean jaso eta 19:00 aldean etxera gerturatzen ari ginela –Garagaltza auzoko Errotatxo baserrira–, bidean lur-jausia topatu genuen. Atzera egin eta baserrira joan ginen; bertatik gurera oinez joateko bidetxoak dagoelako. Gaua etxean igaro genuen, eta hurrengo egunerako bidea garbitu zuten brigadakoez. Orain, baina, luizirik ez bada ere, errepide zati bat apurtu eta erori egin da".






KORONABIRUSA

Baieztatutako positibo metatuak Debagoiengan

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	284	317	4.464	%20,22	2.721
Bergara	186	188	2.431	%16,17	2.487
Oñati	151	56	2.041	%17,80	1.805
Aretxabaleta	82	91	1.223	%17,27	2.443
Eskoriatza	58	64	720	%17,55	2.973
Aramaio	18	15	287	%19,39	2.229
Elgeta	10	8	113	%9,99	1.591
Antzuola	8	10	409	%18,77	826
Gatzaga	2	5	23	%9,20	2.991
DEBAGOIENA	799	754	11.711	%18,07	2.396

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Bailarako kasuak apaldu arren, ia hirukoiztu egin dira positiboak Oñatin

Abenduaren 10ean gainditu zuen Debagoienak 11.000 kutsatuen langa, pandemia osoan zehar izandako igoerarik azkarrenarekin: hamar egunean 1.000 positibo baino gehiago atzeman ziren. Guztira, 11.711 debagoiendar kutsatu dira eguaztenera arte

Jone Olabarria ARRASATE

Pandemia hasi zenetik, positibo kopuru handiena erregistratu da bigarren astez jarraian Debagoiengan: guztira, 799 izan dira abenduaren 9tik 15era. Edozelan ere, herriz herriko egoera aztertuta, aste honetan kasu positiboek behera egin dute bailarako herri guztietan, Aramaion, Elgetan eta Oñatin izan ezik.

Bereziki adierazgarria da, hain zuzen, azken astean Oñatik izandako bilakaera, aurreko asteko datuak ia hirukoiztu egin ditu eta: abenduaren 2tik 8rako astean, 56 positibo izan ziren bertan; eta azken astean, ordea, 151.

Orain arteko daturik okerrena izan da bailaran egun bakarrean izandako positiboetan ere. Joan

den astera arte, 127koa zen, baina abenduaren hamarrean 166 baieztatu ziren. Egund hartan –hilaren 10ean– gainditu zuen bailarak 11.000 kutsatuen langa: pandemia osoan izandako igoera azkarrena izan da.

Zifrok kontuan izanda, 2.396koa da Debagoieneko intzidentzia-tasa. Gipuzkoakoa baino 875 puntu handiagoa eta EAEn baino 1.354 puntu handiagoa.

HAURREN TXERTAKETA

BIHAR JASOKO DUTE LEHEN DOSIA 632 UMEK DEBAGOIENEAN

Eguaztenean, hilak 15, ekin zioten EAEn 9 eta 11 urte arteko umeak txertatzeari, baina De-

bagoieneko neska-mutikoak bihar, zapatua, txertatuko dituzte. Lehen egunean Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako osasun etxeetan jarriko diete Pfizerren txertoaren lehen dosia 632 umeri, goizez zein arratsaldez. Debagoieneko ESik 1.800 txerto jasoko ditu, guztira.

DEBAGOIENeko OSPITALEA

HAMABI PERTSONA DAUDE INGRESATUTA

Debagoieneko Ospitalean hamabi pertsona daude ingresatuta koronabirusaren eraginez. Aurreko astean baino hiru gutxiago dira, eta zuzendaritzatik zehaztu dute momentuz ez dela beharrezkoa izan premia

berezirik ez duten kontsultak atzeratzea.

Euskal Autonomia Erkidego-ko datuei erreparatuta, aurreko astean baino sei herritar gutxiago daude ospitaleetan, baina ZIUetako presioak gora egin du, 27 kutsatu gehiagorekin.

'COVID ZIURTAGIRIA'

DERRIGORREZKOA EGUAZTENETIK EREMU ITXI GEHIAGOTAN

Aurretik ostalaritzako arlo jakin batzuetan egin bezala, eguaztenean argitaratu zuten, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, *COVID ziurtagiri digitala* eskatzeko derrigortasuna. Orduetik, derrigorrezkoa da ostalaritzako eremu guztietara, kiroldegietara, kultura-ikusketara, ospitaleetara, zentro soziosanitarioetara eta adinekoren egoitzetara bisitan joateko eta espetxeetara sartzeko.

Neurria indarrean sartu eta lehen egunean zalantza asko zituztela aitortu zuten herritarrek. Bergarako Giartzu gimnasioko Maria Isabel Hurtadok, adibidez, irizpide gehiagoren zain zegoela azaldu zuen: "Gaur erakusten badit ziurtagiria, badakit baduela. Baina, hala ere, etortzen den aldiro eskatu behar du diot? Ez digute irizpide zehatzik eman".

Bestalde, Bizitza Plataformak deituta manifestazioa izango da zapatuan, Donostian, 17:00etan, Donostiako Bulebarrean hasita, *COVID pasearen inposaketari ez lelopean*. Era berean, Aretxabaletan sinadura bilketa egin dute asteon, Jaurlaritzari eskatzeko ziurtagiria "atzeratze"ko.

HIRUGARREN DOSIA

40 URTETIK GORAKOEI HIRUGARREN DOSIA JARTZEA, ONARTUTA

Espainiako Osasun Publikoaren Batzordeak atzo onartu zuen 59-40 urte bitartekoei hirugarren dosia jartzea, zaharrenetik hasita. Eta AstraZeneca etxeko txertoa jaso zuten 60 urtetik beherakoei ere dosi gehigarria ematea onartu dute. Erkidegoen esku geratuko da dosiak nola eta noiz eman. Orain arte, EAEn 558.619 lagunek jaso dute hirugarren dosia.

GABONEI BEGIRA

ARDURARAKO DEIA

Indarrean dauden neurriak betetzea eta "zuhurtzarik handienarekin" jokatzeko eskatu zuten atzo Gotzone Sagardui Osasun Sailburuak: "Taldea handietan bildu gabe, maskara jateko eta edateko bakarrik erantziz eta ondo aireztatuz".

Asfalto berezia, istripuak gutxitzeko saihebidetan

Arrasateko saihebidetan, 34 eta 35. kilometroen artean, istripu asko izan dira azken hilabeteetan –irailetik hona, gutxienez, zortzi–. Gipuzkoako Foru Aldundiak irtenbidea eman gura dio arazoari: azterketa egiten ari da eta neurriak iragarri ditu

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE
Gipuzkoako Foru Aldundia azterketa bat egiten ari da GI-627 errepideko 36. kilometroan, Arrasateko saihebidetan, "jakiteko zergatik gertatzen diren hainbeste istripu". Edozelan ere, "azterketaren emaitzaren zain egon barik", behin-behineko bi neurri hartu ditu.

Hainbat faktore ari dira aztertzen: autoen abiadura, traza-dura, zorua, peralteak, seinalez-tapena eta abar. "Azterketa ez da bukatu, baina, azken hamabost egunetan istripu gehiago izan direla ikusita, neurri batzuk hartzea erabaki dugu, azterketaren emaitzari itxaron barik".



Azaroaren 16an izandako istripua; joan den barikuan, beste bat izan zen. GOIENA

Abiadura, gehienez ere, 60koa
Alde batetik, gehienezko abiadura murriztu egingo dute 34. eta 36. kilometroen artean. Gaur egun, gehienezko abiadura 70 kilometro ordukoa da, eta 60 kilometro ordukoa izango da aurrerantzean. "Arazoa da gutxik errespetatzen dutela abiadura muga hori eta azkarrago ibiltzen direla autoak, baina ea modu horretan polikiago ibiltzen diren".

Bestetik, kilometro horretan zoruari tratamendu berezia emango diote bi kilometro horietan, gurpilek asfaltoari hobeto eusteko –marruskadura handitzeko–. "Horretarako makina berezi batzuk behar dira, eta, asmoa lehenbailehen egitea bazen ere, Gabonak direla-eta orain ezin dugu material hori ekarri. Beraz, urtarilean emango zaio tratamendu berezi hori zoruari".

Ezker Anitza-IU Debagoienak kezka azaldu zuen duela aste batzuk, azkenaldian G627 errepidean istripuak ugartu egin direla eta. Iraila ezker gutxienez zortzi istripu gertatu dira toki horretan –larritasun ezberdinekoak–. Azkena, joan den barikuan.

Hiru eguneko greba eta mobilizazioak Aita Mennin

Atzo hasi zuten ELA sindikatuek Aita Menniko 500 langileen artean deitutako hiru eguneko greba. Lan baldintzak, baldintza ekonomikoak eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea eskatzen du ELAk. Enpresa batzordea azaroaren 29an batu zen azken aldiz enpresako ordezkariekin lan hitzarmena negoziatzeko. Sindikatutik jakinarazi dute aurreko bileretan proposatutakoa baino eskaintza okerragoa eskaini zitzaiela eta enpresaren jarrera ez dela aldatu.

Aita Menniko zuzendaritzak leporatu dio enpresa batzordeari egungo testuinguruan kokatu ez izana eta KPIa baino soldata igoera handiagoak eskatzea. Enpresa batzordeak emandako informazioa faltua dela gaineratu du, esanaz ez dagoela ez prekarietaterik ezta emandako zerbitzuan kalitate faltarik. Horretaz gain, 2022ko lan-hitzarmenean jasotako %4,3ko soldata igoera egingo dietela jakinarazi du.

betiON
GARA



betiON, Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren medaila gorriak segurtasuna eta lasaitasuna eskaintzen digu eguneko 24 orduetan.

Argibide gehiago hemen:
www.euskadi.eus/betion
900 851 600
012 Zuzenean

Euskadi, auzolana



Xabier Lapitz: Kazetaria
Itziar Alzpuru: Aktorea

Lege berria, "interes orokorraren izenean"

Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua onartu berri dute Eusko Legebiltzarrean. Interes orokorrekoak diren proiektuetan, udalaren gaintetik aginduko du Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek eskumen gutxiago izanda

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren legea joan den astean onartu zen Eusko Legebiltzarrean, EAJren eta PSE-EEren, hau da, gobernuko alderdien aldeko botoekin eta oposizioko alderdien kontrako botoekin -EH Bildu, Elkarrekin Podemos, PP-Cs eta Vox-.

Eusko Jaurlaritzak interes publiko gorenko proiektuak gauzatu ahalko ditu, lege honek adierazten duenaren arabera, udaletako planetan bestela jasota badago ere. Arantxa Tapiak, Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak, defendatu zuenez, proiektu mota horiek "oso zehaztuta egongo dira, eta euren araudia edukiko dute".

Horren aurrean, oposizioko talde guztiak kontra bozkatu zuten, lege horretan jasota dagoen tresna bat tarteko: interes publiko gorenko proiektuak. Mechanismo horren arabera, Eusko Jaurlaritzak proiektu bat mar txan jartzeko edo azpiegitura bat eraikitzeke ahalmena izango du, leku horretako udalak bestela ezarria duen arren. Oposizioa oso kritikoa azaldu zen, eta Jaurlaritzak udalen eskumenak "inbadituko" dituela adierazi zuen.



Bergarako Larramendi industrialdea. GOIENA

Inposizioa eta ongizatea

Legeak hautsak harrotu ditu, eta oposizioak argi erakutsi du bere posizioa, aurkakoa. Rebeka Ubera EH Bilduko legebiltzarkideak dioenez, "lege berria lege kaltegarria da. Lakuatik mota askotariko proiektuak inposatu ahalko dira udal hirigintza eta lurralde plangintzako instrumentuen gaintetik". Horren harira, EAJko Elena Lete legebiltzarkideak dio legea oso teknikoa dela, baina helburua garbia: "Bizi-kalitatea eta ongizate orokorra hobetu eta ingurumenaren

babesa bermatu nahi da, betiere, gure industriaren baldintzak bateratzen, babes hori eraginkorra izateko". Era berean, Arrasateko alkateak, Maria Ubarretxenak, honakoa dio: "Kutsaduraren aurkako borrokan eskakizun handiagoak eta ingurumena babesteko estandarrak onartzen dituen legea dugu mahai gainean". Gorka Artolak, Bergarako alkateak, aldiz, kezka ikusten du: "Herriarren parte-hartzearekin egin diren udalen HAPOen gaintetik pasa eta inposatuko egingo zaizkie proiektuak, tokiko administrazioen irizpidearen aurkakoak izan arren".

tuak, tokiko administrazioen irizpidearen aurkakoak izan arren".

Udalerrien eskumenak

Tapia sailburuak eskumen-eremu guztiak errespetatzen dituen legea dela adierazi arren, oposizioko kideek, botere esparruak hautsiko dituen legea dela argudiatu dute. "Udal plangintza Jaurlaritzaren planetara egokitu beharko da, alderantziz izan beharrean. Beraz, eskumenak urratuak geratzen dira", dio Uberak. Letek, ordea, honakoa dio: "Ez gaude figura berri baten aurrean, ezta udalen autonomiaren printzipioa higatzen duen figura baten aurrean ere. Bere ezarpena hainbat epai konstituzionalek bermatzen dute eta autonomia erkidego askotan komuna da". Ubarretxenak erronka berriak daudela dio, eta horien aurrean, honakoa dio: "asmo handiagoko tresnak behar ditugu ekonomia iraunkorra eta baliabide naturalen kudeaketa eraginkorra sustatzeko". Artolak, aldiz, zera gaineratu du: "Ezagutzen ez ditugun irizpideen baitan interes publikoaren aitorpena aitzakia, enpresa-talde

handien interes partikularrak herritarren ongizatearen gaintetik jarriko ditu".

'Goi mailako' izendapena

Interes orokorraren izenean, udalek legearen eragina sufrituko dutelakoan honela dio Uberak: "Debagoiengan, esaterako, Bergarako Valogreene proiektuan gertatu daiteke. Oraintxe bertan, Udalak esan du jarduera hori Bergarako hirigintzarekin ez dela bateragarria. Goi-mailako izendatzen bada, hirigintzaren gaintetik pasako litzateke". Bergarako alkateak ere adibide bera ezarri du: "Ohiko bidetik bideratzea arauz kanpokoa izanda ere, lege honen bidez aurrera egiteko atea irekitzen zaio proiektuari". Letek dio lege bermatzailea dela, eta udalak errespetatzen dituela: "Figura horien eraginpean dauden udalerriek dagozkien ingurumen-txostenak egin ahal izango dituzte, proiektu horiek dagozkien ingurumen-baimena eramango baitute". Ubarretxenak dioenez, "tokiko jarrera jakin batzuen aurrean interes orokorra defendatzeko helburuari erantzuten dio legeak".

"UDAL ESKUMENAK URRATUTA GERATZEN DIRA LEGE BERRI HONEKIN"

REBEKA UBERA, EH BILDUKO LEGEBILTZARKIDEA

"AHO BATEZ ONARTUZEN UDAL ARAUDIA BALIORIK GABE UTZIKO DU"

GORKA ARTOLA, BERGARAKO ALKATEA

"BIZI-KALITATEA ETA ONGIZATE OROKORRA HOBETZEA DA ASMOA"

MARIA UBARRETXENA, ARRASATEKO ALKATEA

"LEGE BERMATZAILEA DA, ETA UDALAK ERRESPETATZEN DITUENA"

ELENA LETE, EAJ-KO LEGEBILTZARKIDEA

*Labon zorientsuak
eta
Urte berri on
danoi!!*

Eskerrik asko 2021 honetan gurera gerturatu zareten guztioi.



Garibai etorbidea 6 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 25 80 86
● begia_optika

Ibon Leibar Belastegiri erantzuna

AINTZANE OIARBIDE

BERGARA

Ez naiz piromanoa, Ibon, eta ez dut ez intoxikaziorik ezta desinformaziorik sortu GOIENAn idatzi dudun *Valogreen* zutabearekin.

Zuk ez duzu diktadura garaia ezagutu, geroztik jaioa zara. Orduan, diktaturaren alde zinen edo, bestela, aurka, erdibidekorik ez zegoen. Beste zenbait erakunde militarretan ere gauza bera gertatu da Euskal Herrian, eta munduan ere baditugu pentsamendu bakarreko adibideak ugari, errealitatea ukatzen edo manipulatzeko dutenak. Honekin ez zaitut zu hauekin parekatu nahi, baina kontuz, hauek bezainbat pentsatzeko baduzu egia osoaren jabe zarela eta zure iritziekin bat ez datozen gauzak entzuten dituzunean "piromanoa" deitzen banauzu, oso oker zabilta. Nire bizitzan, nire familian, horien guztien aurka gogor borrokatu gara. *Valogreen* zutabearen aurretik idatzi nuen *Egiaren balioa* gogora ekarriz, *Hemen eta han, beti berdina dena da egia*.

Nire idatzian esaten dudana da enpresa bat Bergaran kokatzeko lehen baimena alkateak ematen duela; hori hala da han eta hemen. Eta hori halaxe izan da Valogreenen kasuan, zuk nahi edo ez nahi. Hau ez da ez intoxikazioa ezta desinformazioa ere, errealitatea baizik, eta ondoren esaten dituzun guztiak, "kakaztu dezagun giroa bozka batzuen truke" edo "[Jaurlaritza] ingurumeneko eta Bergarako hirigintza araudiei salto eginez, aurrera egiten saiatuko da?", lekuz kanpo dauden hitzak dira; eta bigarren kasuan, gainera, Jaurlaritzak lege hauste bat egin dezakeela baieztatzea larria dela iruditzen zait. Benetan informazio zuzena eta serioa ematea hori dela uste baduzu, diktaturaren oso antzeko jarrerarekin zabilta:

"Edo nik pentsatzen dudana da edo nire aurka zaude". Eta hori bai ez dizudala onartuko, ez zuri, ez Vox bezalako faxistei, eta ez horrela jokatzen duen inori.

Denon interes orokorra?

PAUL AZNAL LARRAÑAGA

BERGARA

Bergarako EAJk eta EH Bilduk errauskailua dela-eta izandako eztabaidak narama testua idaztera. Hilabeteak daramatzagu errauskailuaren aurka borrokan, eta ondorioa argia da: botoek eta beraien interesek baino ez dituzte arduratzen alderdiak. Izan ere, ardura onartu ez eta borroka elektoralerako eta zirku mediatikorako baliatu dute.

Biek ere aspalditik zekiten proiektuaren berri, enpresaren egoitzan izan ziren, lehen eskuko informazioa jaso zuten. Ondoren, Jaurlaritzak, Sprilur-en bitartez, Larramendiko lurra eskaini zizkion; eta Bergarako Udalak *Hirigintza bateragarritasun ziurtagiria* eman zion, proiekturik ez aurkeztu arren.

Hori dena isilpean mantendu dute, eta irailean, alkatea auzokideekin bildu zenean, mezu hau jaso genuen: ez borrokatzeko, ez zegoela ezer egiterik eta ahalik eta gutxien kutsa zezan eta segurua izan zedin neurriak hartuko zituela. Salduta geundenez, borrokatzea erabaki genuen, eurek ez bezala, herritarrak informatzeko.

Auzia mahaigaineratu eta Udalak ziurtagiria atzera bota dezan lortu dugu. Ze egoeratan geundeke ezer egin ez bagenu? Alegazio epea amaituta eta errauskailua eraikitzeko bidean: borrokak merezi izan du; baina ez da amaitu, Jaurlaritzak onartutako *Tapia legearekin*, "interes orokorreko" proiektuak udalen gainetik onartuko ahalko ditu, eta proiektuok geratzea zaildu.

Bi alderdiek informazioa ezkutatu eta proiektuak

aurrera egiteko erabakiak hartu dituzte. Orain, EH Bilduk dio aurka dagoela; hobe luke hitzekin baino gehiago ekintzekin erakutsiko balu, liskar mediatikoetan ibili beharrean. EAJk, berriz, errauskailua babesten duela erakutsi du; beraz, esan dezala argi eta garbi, bazterrak nahasten ibili beharrean.

Beste behin, ikusi dugu interes ekonomiko eta politikoak guztion osasunaren gainetik daudela, eta instituzio publikoek interesok babesten dituztela. Beraz, guk lanean jarraituko dugu, errauskailua geratu eta egia argitara atera arte. Bukatzeko, bailarako herritar eta eragileoi borrokara batzeko gonbita egin nahi dizuet. Errauskailua ez hemen, ez inon!

Gero arte, Andoni

NAIARA CORCUERA LANDALUZE ETA ARANTZA LANDALUZE ARREGI

FAMILIAREN IZENEAN ARRASATE

Andoni, zabaldu itzazu zure hego berriak eta egizu hegan!

Egizu hegan altu, egizu amets lasai, zurekin elkartzeko emozioz itxaron gaitzazu. Bitartean, egunsenti bakoitzarekin, ilunabar bakoitzarekin, iluntze bakoitzarekin, gure alboan sentituko zaitugu. Zure argia gure iparra izango da, zure arima gaztea gure altxorra, zure deskantsua gure kontsolamendua. Bitartean, egizu amets altu! Izarrek zure urratsak argiztatuko dituzten lekuraino, zelai berdeak zure egonleku izateraino eta zeru urdinak zure sosegu. Eta bitartean, egizu hegan altu Andoni, egizu amets lasai, eta itxaron gaitzazu hegaldian lagunduko zaitugun egunera arte!

Debagoieneko Osakidetzari

XABIER ORMAETXEA LASAGA

'TXERREN'

(ARAMAIOKO KURANDERIEN ETXEKO ONDORENGO BAT)

ARAMAIO

Debagoieneko ESiko zuzendari gerentea zaren Luisa Maria Diez Asurmendi anderea:

Arrasaten 2021eko azaroaren 15ean sinatuta; nire kexa zela-eta, zuk kontuan hartzea eta erantzutea eskertzen dizut.

Bertan jartzen didazu barkamena eskatzen didazula nire aurreikuspenak bete ez izanagatik; Debagoieneko ESI arretea euskaraz jaso nahi duten erabiltzaileen nahiak asetzen saiatzen ari dela. Gainera, eskerrak ematen dizkidazu zuentzat erabiltzaileon iritzia ezagutzea garrantzitsua delako zerbitzua hobetzeko. Jartzen didazu datorren urtean artatuko nauen neurologoa aldatzea eskatu dezakedala.

Diez Asurmendi anderea: ez dakit ondo ulertu dugun elkar. Ez dut inolako aldaketa eskatzera joateko asmorik.

Zergatik ez diozu artatu ninduen sendagileari esaten datorren urterako euskara ikasi dezala? Ez dut uste sendagileak 40 urte ere izango dituenik. Gogorarazi behar dizut EAEko –edo CAVe–ko legeak 42 urte dituela, eta, dioenez, euskara eta gaztelania dira bertako hizkuntza ofizialak. Orduan, nola da posible oraindik jaio gabe zegoen batek, denona den zerbitzu publiko batean, ofizialak diren bi hizkuntzak ez menperatzea?

Datorren urtean hor izango naiz –bizi banaiz, behintzat–, eta ahal duzuna egin ezazu hau konpontzeko.

Adeitasunez.

Zer gertatzen da Bergaran?

IÑAKI ARREGI

BERGARA

Bergarara atez ateko garaiak bueltan etorri diezela dirudi. Orduan be ikusi giñuan Udaletik enpeñauta zerela Bildukuak basuria batzeko

atez ateko sistemakin. *Dale que te pego!* Hor ibili zien jente guztixan aurka txintxilario horrek ipini nahixan. Eta horrekin batera errauskailua gora eta behera, gau eta egun. Ba, Zubietan egin zeben errauskailua eta ez dot uste ezer be pasau danik iñobezeekin. Basuren errefuxan problemia akabau da eta listo!

Oin berriz be hor dabizte batzuk orduko giro bera sortu nahixan. Zaratia eta mehatxuak, Larramendiko errauskailua eguneroko konbersaziñua besteik ez dauke. Nik entzun dotenez, Larramendin ipini nahi daben hondakiñak tratatzeko plantia ez da errauskailua, baiña igual da! Beti gizurretan dabilenari ze inporta jako, ba, beste gizur bat asmatzia? Zaldibarko abortegixak badakigu nola amaittu zeban. Han botatzen zittuzten hondakin klase guztixak oin nora eruan bihar dittuzte? Bergaran ipini bihar daben plantia papeleretako hondakiñak tratatzeko da, itxuria, eta beste hondakin klase batzuk tratatzeko be beste planta batzuk egin bihar dittuzte gure ingurumena ez kaltetzeko. Bergaran ipini bihar daben plantia errauskailua izengo balitz ez litzake beharrik izengo, ezta? Zubietako errauskailura eruan eta listo! Kontra darenak beti esan dabe Zubietako errauskailua alimentatzeko hondakin asko bihar diela, sobredimentsionauta dagola. Hori egixa izengo balitz, ez litzake bihar beste errauskailu bat Bergaran. Zaratia etaratzen dabiztenak eta Udalian agintzen dabenak ze proposatzen dabe egittia Zaldibarrera jutun zien hondakin guztixekin?

Gizurrak gizurran gañian, zaratia eta egin bihar dienak egin barik. Alkatiak ez al dauka nahikua lan Simon Arrietako plazia konpontzen edo Boluko lur-jausixak eusten, jentia bihar dittun gauzak konpontzen? Penia ematen dau inguruko herrixetan zein aurrera doiazten ikustiak eta gu Bergaran zaratian eta bronkan ataskauta egotiak.



ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

Kirolaren finantzaketa publikoa

Historikoki, kirolaren finantzaketa eztabaida garrantzitsuen iturri izan da, eta hala izaten jarraitzen du. Halaber, ohikoa da entzutea administrazio publikoek kirola sustatzeko egiten dituzten inbertsioak ez direla behar bestekoak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-banaketa berezia da, Lurralde Historikoen Legea dela eta. Ondorioz, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean islatzen da Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek kirola sustatzeko egin behar dituzten ahaleginak zein eremutan oinarritu behar diren.

Kirola gizarte-fenomeno konplexua da, kirol-jarduera guztiei, arlo guztiei, aplikatu dakiekeen erantzuna planteatzerainoko adina konplexua; besteak beste: parte hartzeari, eskola-kirolari, errendimendu handikoari, profesionalari, emakumeenari... eragiten die. Horietan, gainera, egoerak oso bestelakoak dira: beraz, horietako bakoitzari administrazio-publikoetatik emandako tratamenduak desberdina izan behar du.

IA INORK EZ DU ZALANTZAN JARTZEN ONURA UGARI EKAR DITZAKEEN JARDUERA DELA

Ia inork ez du zalantzan jartzen kirola pertsoneri zein gizarteari onura ugari ekar diezazkiokeen jarduera dela. 2018an, herri-administrazioek kirolean egindako gastu likidatua eta haien aurrekontuetan duten pisu erlatiboa hau da: likidatutako gastu osoa 280.985.328 euro. Izan ere, EAEn, udalak eta toki-erakundeak dira herri-administrazioek kirolean egiten duten gastu gehiena jasaten dutenak: Jaurlaritzak, 2018an, aurrekontuaren %0,1 bideratu zuen kirolera; aldundiek, 2018an, %0,2 eskaini zioten kirolari; udalek, batez beste, aurrekontuaren %4,6 bideratzen dute kirolera; 2018an, EAEko herri-administrazioek, biztanleko eta urteko, 173 euroko ekarpena egin zioten kirolari; 2019an, Espainiako herri-administrazioek, biztanleko eta urteko, 107,6 euro bideratu zuten kirolera.

Dena den, udalei eta toki-erakundeei esker, EAEn kirolari egiten zaion diru-ekarpena Europarena edota estatuarena baino handiagoa bada ere, Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek kirolari eskaintzen dioten aurrekontu portzentajea oso txikia da. Hala, gizarte osasuntsu eta zorionsu baten alde jarduteko, kirolaren aldeko apustu garbia egiteko proposamena egiten diegu Eusko Jaurlaritzari eta aldundiei. Denok eskertuko dugu.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Azkena

IZARO ANDRES

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Honaino ere heldu gara. Hauek izango dira hemen utziko ditudan azken hitzak. Badira fase batzuk bizitzan, non arreta barreiatuta behar dudun inguruko txoko askotan, ura arroiletan zehar doanean bezala, zirrikitu guztietatik jarioan, abiaduraz gozaten, zulo eta pareta ezberdinak ezagutzen, eta inguruko zapore hori guztia bereganatzen. Pisurik gabe, sakabanatuta, aniztasunarekin dantzan.

Eta badira beste fase batzuk, non arreta hori guztia puntu jakin batean

fokalizatua behar dudun. Barreiatu diren ur ilara horiek denak elkartu eta arrolako kanal nagusira heltzen direnean bezala. Elkarrekin, indartsu, pisutsu, homogeen. Hortik zehar ibilitako parte guztiak elkarri kontuak kontatzen ari dira orain, bakoitzak zer ikusi, ikasi eta bizi duen kontatzen, eta korroneak bibrazio jakin bat lortzen du kontu guztiak batzen direnean.

Polita izan da nire barne-hausnarketa hauek zuekin partekatu ahal izatea. Polita da horrelako proiektuen parte izatea; proiektu zailak dira, pazientzia, lan eta pasio handia behar dutenak.

Zerbait hutsetik hasi eta hasi den hori ondo hazten saiatu. Gauzak ondo egiteko gogoa da nire gogo favoritoa. Ona egiteko nahia, ontasunaren bila aritzeko nahia.

Zorterik onena opa dizuet, pantailatik pantailara. Espazioak sortzen jarraituko dugu, akaso egunen batean berriro elkarrekin, akaso ez, pantaila txikietan, poltsikoetan, pantaila handietan, prentsa fisikokoan, liburuetan –pantailatan zein orrietan bizi direnatan–, oholtzetan, ezpainetan, irrati ondetan, keinuetan, pankartetan, arbeletan, egutegietan, biniloetan, argibide oharretan, eta abar eta abarrean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldirikari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Hedabideen funtzioa ez da informatzea bakarrik"

ENEKO BIDEGAIN HUHEZIKO IRAKASLEA ETA IKERLARIA

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE

Izan ala ez izen? Euskal Herriaren irudikapena euskal hedabideetan argitalpena kalean da. Huheziko irakasle eta ikerlari Eneko Bidegainek, Ainhoa Larrañagak eta Zuriñe Maguregik sinatu dute. Ateratako ondorio nagusien berri eman du Bidegainek (Baiona, 1975).

Euskal hedabideek nola lantzen dute euskal lurraldetasuna? Orokorrean, ez da Euskal Herriaren osotasuna agertzen. Albiste gehienek datu edo berri partzialak ematen dituzte. Kasu hoberenean, Hego Euskal Herrikoak ematen dira, eta, gehienetan, EAEkoak bakarrik. Neurtu egin dugu, eta begiratu dugu, baita ere, zer-nolako albisteetan gertatzen diren urraketa horiek. Batez ere, datuak ematen dituzten albisteetan edo informazio instituzionala jasotzen dutenetan gertatzen da. Aldiz, kazetariak erakundeek markatutako agendatik kanpo



Eneko Bidegain, ikerlaneko emaitzak jasotzen dituen argitalpenarekin. L.Z.L.

landutako albisteetan ikuspegi nazionala gehiago zaintzen da. **Kazetariekin ere elkartu zarete. Zer diote?**

Elkarrizketa onartu digutenek kezka eta ardura badute. Azalpenak bilatzerakoan,

gehienetan, Euskal Herriaren egoera administratiboa aipatzen dute, baita ere datu uholdea, berehalakotasuna... Hemen galdera da zerk duen lehentasuna. Datuak erreproduzitzen dira

zehaztasuna ematen dutelakoan, baina titulatzeko bada Hego Euskal Herriaren koronabirus kasuak gora egiten dutela esaten dena da, literalki, Ipar Euskal Herriaren behera egin dutela edo ez direla igo. Eta kontua ez da hori, kontua da kazetariak ez dituela Ipar Euskal Herriko datuak ezagutzen. Kazetari batek esan zidan moduan, Frantziak ez ditu inoiz langabezia datuak emango Frantziako zati bateko datuak kenduta. Euskal Herriaren egiten dugu, eta denbora askotan errepikatzen denez gertatzen dena da Euskal Herriaren zati bat *de facto* baztertua dagoela. **Proposamenak egiten dituzue.** Detektatu badugu lurraldetasunaren arazoa batez ere datuak dituzten albiste instituzionalen gertatzen dela, baloratu beharko dugu datu horien pertinentzia zenbaterainokoa den. Datuak partzialak badira, kazetariak behar bada pentsatu behar du merezi ote duen datua holaxe ematea. Gero, datu burujabetza bat lortu nahi bada, beharbada, antolaketa edo sarete bat izan liteke aterabidea. Konplikatuagoa izan daiteke, baina Euskal Herriaren dauden udalak, elkarteak, euskaraz

ari diren kazetariak, hedabideak... saretu daitezke. **Proposatzen dituzue, besteak beste, euskal albistearen agentzia bat, euskal datu erakunde bat, gidaliburu bat, kazetariendako eskolak, behategi sozioekonomiko indartsu bat... Egingarri ikusten duzue?** Proposamen horiek kazetariekin eta Gaindegia-ko arduradun batekin hitz egindakoetatik irten dira. Pista batzuk dira, lanketa eta eztabaida asko eskatzen dutenak. Lantzeko denbora hartu behar da, eta erabaki batzuk hartu behar dira. **Hedabideetan lurraldetasuna kontuan hartzeak garrantzi handia duela ohartarazten duzue.** Munduko edozein tokitan hedabideen funtzioa ez da herritarren informatzea bakarrik, baizik eta kohesio bat ematea herri, estatu edo nazio horretako biztanleei. Komunikabideak beti erabili izan dira herritarrek nazio kontzientzia bat izan zezaten. Gipuzkoan *Diario Vasco* dago eta Lapurdin *Sud-Ouest* dago. Berez, ez dira tokiko hedabideak, nahiz eta tokiko komunikazioa ematen duten. Euskal hedabideek ez badute euskal nazio kontzientzia hori egiten, gelditzen gara beste horrekin. Horregatik da garrantzitsua.

ITURRI ONETIK

Espainiako Golf Txapelketa, Oñatin 2022an

Datorren urtean, 2022an, Espainiako Golf Txapelketa Oñatin jokatu dute. Urriaren 1ean eta 2an, herriko jai nagusietan, izango da, Oñatitik Arantzazura bidean dagoen Irelore golf zelaian. Espainiako lehen mailako golf jokalaririk onenak etorriko dira txapelketa hori jokatzera. Irelore Golf Eskolaren ekimenez, hilabete batzuk lehenago, ekainaren hasieran, Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango den jardunaldi bat ere jokatu da Oñatiko golf zelaian.

ALBISTE IZAN ZEN

2006-12-15

Euskadiko Orkestrak, Aita Madinari omen

Omenaldi goxo eta jendetsua jaso zuen Aita Madina musikari oñatiarrak Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren –Cristian Mandealek zuzenduta– eta Donostiako Orfeoia emanaldiarekin. Oñatiko parrokoa 750 lagunendako areto bihurtu zuten. *Aita gurea* ospetsuak jaso zituen txalorik handienak. Kontzertuaren kostua 38.000 euro izan zen eta Udalak eta laguntzaile pribatuek ordaindu zuten guztia.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Umeen txertaketa hasi da; horrekin, eztabaida

Umeen txertaketaz asko hitz egin da sarean:

@GalderLasuen: "3 ume ditugu 5-11 urte tartean. Txertoen alde gaude eta zientziari kasu egiten diogu. Baina ematen du umeen txertaketa bultzatzen dela, beste neurri batzuk hartzea baino errazagoa delako (telelanean, osasun arretan, gaueko aisian...)"

@Izorbaraka: "Pandemia kontrolatu nahi bada, ez da 'txertoa ala...', 'txertoa eta...' da. Lehen arreta/aztarnariaren sarea indartu, leku itxietan aire garbitzaileak eta CO2 jarri, komunikazio argia bermatu..."

2022ko udal aurrekontua onartu du udalbatzak, EH Bilduren abstentzioarekin

Udal Gobernuak eta EH Bildu ados jarri dira, eta horregatik abstenitu da koalizio abertzalea; aurrekontu "zuhurra, errealista eta baikorra" dela dio Gobernuak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Martitzenean egin zuen udalbatzak urteko azken osoko bilkura, eta saio hartan onartu zuten 2022ko udal aurrekontua. Udal Gobernuaren hasierako proposamenari emendekin partziala aurkeztu zion EH Bilduk, eta emendekin horrek aurrera egin ostean onartu zuten aurrekontua, Gobernuak eta koalizio abertzaleak lortutako akordioari esker. Izan ere, EH Bilduk egindako hogeit hamar proposamenetik zortzi onartu ditu Udal Gobernuak (Ikus beheko taula), eta horregatik abstenitu zen oposizioko taldea.

Maria Ubarretxena alkatea pozik azaldu da akordio horrekin. "Udal Gobernuak, berez, ez dauka abstentzioaren beharrik aurrekontua aurrera ateratzeko, gehiengo daukalako, baina guk beti bilatzen dugu ahalik eta

akordio zabalena. Uste dugu berri ona dela, herritarrek gura dutelako 21 zinegotziok ados jartzea herriaren alde lanean, eta bide horretan beti aurkituko gaituzte", adierazi du.

EH Bilduko bozeramile Maider Morrasedek, ostera, nabarmendu du abstenitzeak ez duela esan nahi aurrekontuak babestu dituztenik, eta Gobernuak "martxan" jartzea gura dutela. Halaber, onartutako zortzi puntuak, gauza txikiak izan arren, horretarako balioko dutela uste du. "Izan ere, bestela, nahiko aurrekontu tristea da, sormen politiko gutxikoa, eta nolabaiteko irribarre bat jarri nahi izan diogu udaletxeari".

Bi aldeek egutegi bat osatzea ere adostu dute, zortzi puntu horiek noiz eta nola gauzatzeko. "Hilabeteko epea zabaldu dugu negoziatzeko

zehazki zeintzuk izango diren proiektu horiek egikaritzeko epeak, ahal bada, 2022an hasteko; berme hori behar genuen".

Elkarrekin Arrasatek, azkenik, aurka bozkatu zuen, osoko zuzenketa aurkeztuz eta Gobernuaren politika egiteko ereduak bat ez datozela argudiatuz. "Gizarte zerbitzuak, Berdintasuna eta Enplegua sailei bideratutako partidak bateratzen baditugu, ez dira heltzen aurrekontuaren %15era. Baina Hirigintza eta Obra sailerako aurrekontuak gehitzen baditugu, aurrekontu osoaren %47 da", dio Eva Abuin zinegotziak.

Zuhurra, errealista eta baikorra Alkateak nabarmendu du aurrekontu "zuhurra, errealista eta baikorra" dela, eta etorkizunari begirakoa. "Azken hamabi urteetako aurrekontu altuena izango da. Arrasatek badu norabide bat, eta norabide horretan jarraituko du. Jarraituko dugu bidegorri sarea osatzen, aldaketa klimatikoari aurre egiten eta auzoetan mugikortasun bertikala bultzatzen. Pertsonendako Arrasate bat gura dugu eta gizarte zerbitzuetara

2022ko udal aurrekontua

37.099.591,17 euroko aurrekontua izango du Arrasateko Udalak 2022an, 2021ean baino %2,67 handiagoa. Bost milioi euro bideratuko ditu Udal Gobernuak inbertsioetara.

Diru partida garrantzitsuenak hauek dira:

- **1.200.000 euro** Etxez etxeko laguntza zerbitzurako zein pobrezia kontrako larrialdi planetarako.
- **900.000 euro** Santa Teresako urbanizazioa eta igogailu sistema.
- **630.000 euro** Garraio publikoaren apustuarekin aurrera egiten jarraitzeko –besteak beste, herribusaren hirugarren linea–.
- **470.000 euro** TAO sistema aurrera eramateko.
- **435.230 euro** Ludoteka eta gazte txokoetara.
- **417.828 euro** Egoera zaurgarrian dauden herritarrei lan aukerak eskaintzeko.
- **400.000 euro** Zaldusperen urbanizazioarekin jarraitzeko.
- **322.950 euro** Babesgabe egoerei aurre egiteko.
- **300.000 euro** *Ekobulebar*-erako –2022ko udan bukatuko dute–.
- **300.000 euro** Araba etorbidearen eta Foruen plazaren arteko bidegorria egiteko.
- **200.000 euro** Juan Artzamendi Musika Etxea ekipatzeko.
- **195.703 euro** Goiena Komunikazio Taldearentzat dirulaguntza.
- **100.000 euro**, Kirol azpiegituren mapa egiteko.
- **100.000 euro** Argiteriako inbertsioak egiteko.
- **88.374 euro** Euskara arloko dirulaguntzetarako.
- **87.500 euro** Langabeak kontratatuzko.
- **80.000 euro** Amaia antzokiko galdara aldatzeko eta ekipamendua berritzeko.
- **50.000 euro** Etxezarreta basoaren erosketa gauzatu eta gero, basoa errekuperatzeko.
- **50.000 euro** Kulturateko ekipamendua berritzeko.

bideratutako diru kopurua handiagotu egin dugu. Hau da, iaz %14ko hazkundea izan zuen sail horrek eta aurten are gehiago izango dugu, %1,5 gehiago".

Bost milioi inbertsioetarako

Aurrekontuaren %66, 25 milioi euro, udal langileen soldatetara eta ondasun eta zerbitzuetara bideratuko da. Hala, bost milioi euro bideratuko ditu Udal Gobernuak inbertsioetara. Partidarik handiena, 1.200.000 eurokoa, etxez etxeko laguntza zerbitzu-

ra zein pobrezia kontrako larrialdi planetara bideratuko da. Beste partida garrantzitsu bat, 900.000 eurokoa, Santa Teresa urbanizatzeko izango da; besteak beste, Musakola, Santa Teresa, Galizia, Agerre eta Doneztebe Portuko kaleak lotuko dituzten igogailuak egiteko.

Era berean, 2022ko udan bukatzea aurreikusten duten *Ekobulebar*-era 300.000 euro bideratuko ditu Gobernuak eta diru kantitate berbera erabiliko du Araba etorbidearen eta Foruen plazaren

EH Bilduren hogeit hamar proposamenak

- Autobus geltoki berriaren kokapenaren azterketa.
- Bidegorri sarea bukatzeko plangintza sortzea.
- Neguko aterpetxea egitea.
- Jantoki sozial bat martxan jartzea.
- Interbentzio psikologiko zerbitzua, baliabiderik ez dutenentzat.
- Babeseko etxebizitza parkea handitzea.
- Langileriaren soldata KPIra egokitzea.
- Osiñako biribilgunearen ondok oinezkoentzat bide seguru bat.
- Santa Barbara parkea duindu, eguneko erabilera sustatzeko.
- Osiña eta Intxausti natur eremu moduan mantentzea.
- Arrasate eta Aramaio arteko bidegorria sustatzea.
- Arrasate eta Elorrio arteko errege-bidea berreskuratzea.
- **Udalabide proiektua: Udalara oinezkoentzako bide propioa.**
- **Amaia sarreraren gestio gastuak herritarrei ez kobratu.**
- **Zuhaitzen landaketarako partida sortzea.**
- **Etxezarretako lorategiaren sarrerak duindu.**
- **Iturbide egoitzaren aurtean arnasgune bat sortu.**
- **Musakolan aterpe bat jartzeko proiektua martxan jarri.**
- **Kale garbiketaren arrazionalizazioarentzako azterketa egin.**
- **Herri lurren eremua erosteko katalogoa sortzeko partida.**

OHARRA: HITZ LODIZ DAUDEN PUNTUAK DIRA UDAL GOBERNUAK ONARTU DITUENAK.





Martitzeneko osoko bilkuran, udalbatzako ordezkariak eta Eragin Arrasate plataformako kideak. E.A.

arteko bidegorria egiteko ere. Horrez gain, Zalduspe inguruaren urbanizazioarekin jarraitzeko asmoa dauka Gobernuak eta 400.000 euro bideratuko ditu horretarako. Halaber, ludoteka eta gaztetxokoei bideratutako partida 435.000 eurokoa izango da.

Kulturola ia bukatuta dago honezkero eta Juan Artzamen-di Musika Etxeari ere ez zaio asko falta. Hala ere, azken horretako ekipamenduetara 200.000 euro bideratuko ditu Gobernuak eta beste 30.000 euro, kultura eragileendako dirulaguntzetara.

Parkingetako tarifak, finkatuta Biteri eta Laubideko aparkalekuen 2022ko tarifak ere onartuta geratu ziren martitzeneko bilkuran, EH Bilduren abstentzioarekin eta Elkarrekin Arrasateren aurkako botoarekin, baina, tarifek baino gehiago,

zinegotzien txartelek eman zuten zeresana, beste behin. Abui-nek txartelen "erabilera txarra" egin izana leporatu zion Gobernuari, eta, horri erantzunez, Ezkurrak adierazi zuen txartelei uko egingo dietela EAJko zinegotzi guztiek. "Egoera al-daketa bat egon da, TAO ezarri delako, eta uko egingo diogu txartelari". Sozialistek, ordea, erabiltzen jarraituko dute. "Guk ez diogu uko egingo. Txartelak udaletxera etortzeko erabiltzen ditugu, lanera etortzeko. Gainera, zerbitzu horrek udal-txearendako ez du kosturik", azaldu zuen Johanna Sanchez zinegotziak.

Onartutako tarifei dagokienez, honako hauek dira: arrunta: 0,039 euro/minutuko; hileko alokairua, egunekoa eta berriztagarria -08:30-20:30, astelehenetik zapatara arte, zapatua

barne-: 72,60 euro; hileko alokairua, gauekoa eta berriztagarria -08:30-20:30, astelehenetik zapatara arte, zapatua barne-: 55,26 euro; asteko ordainketa -24 ordu- 45,63 euro; hileko abonua, berriztagarria -24 ordukoa-: 112,44 euro.

Hainbat mozio ere bai

Beste hainbat gai ere izan zituzten berbagai saioan. Esaterako, Eusko Jaurlaritzaren *Jaso nahiko genukeena mozioa* onartuta geratu zen. Horrez gain, Bergarako Larramendiko plantari buruzko mozioa aurkeztu zuten Bergarako Basalga, San Juan, Ubera eta San Blas auzoetako auzo-alkateek. Horren harira, Piter Encinas herritarrek hartu zuen hitza: "Bergaran erraustegi bat jartzea Debagoieneko arazo bat izango da. Hondakinen arazoak konpontzeko errausketa ez da soluzioa, erretzeak hondakinen itxura aldatzen duelako, besterik ez. Jarduera horrek 100.000 litro ur kutsatuko ditu, eta, mozioak esaten duen bezala, 155.000 tona erreko dituzte. Enpresaren dokumentu batek dio uretara isurketak egingo dituztela eta gas kutsagarriak aireratuko direla. Arazo larri bat daukagu eta kezagarria da".

Mozio horren bitartez, Eusko Jaurlaritzari ingurumen-baimen integrala ez emateko eskaera egin gura dute auzotarrek. EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek babestu egin zuten mozioa, baina Udal Gobernuak bi alderdiek kontra bozkatu zuten, eta ez zen onartu. "Gu ez gara nor Eusko Jaurlaritzari proiektua gera dezala eskatzeko".

EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek Euskadiko Ingurumen Administrazioaren legeari buruzko mozioa aurkeztu zuten, baina hori ere ez zuten onartu.

Polmetasa zaharrea babes ofizialeko etxeak egingo dituzte

Udalak salgai jarri du 991,59 metro karratuko lursaila, lehiaketa publiko bidez eta eraikigarritasunarekin

E.A. ARRASATE

Lehiaketa publikoan Udalak ezarri duen gutxieneko balioa 1.725.000 eurokoa da. Bi lur zati daude Polmetasa zaharrea -San Andres Berri izenez ere ezaguna den eremuan-. Batetik, 991,59 metro karratuko azalera duena eta babes ofizialeko etxebizitzetara bideratuta dagoena. Bestetik, 631,11 metro karratuko azalera duena, espazio librea erabiltzeko.

Udal Gobernuaren helburua da babes ofizialeko etxebizitzak eremu berean eraikiko diren etxebizitzak libre eta tasatuekin

batara garatzea. "Horrela, urbanizazio guztia erritmo berean egitea lortzen da, auzotarren mesedetan".

2023an hasiko dituzte

Aurreikuspena da obrak 2023. urteko lehen seihilekoan hasia. "Obra-lizentzia eskatzeko epea, eskabide horretan lizentzian sartzeko behar den dokumentazio guztia sartuta, 16 hilabetekoa izango da, eskritura publikoa formalizatzen denetik kontatzen hasita". Obra amaitzeko gehieneko epea, bestalde, 36 hilabetekoa izango da.



Polmetasa zaharra zegoen eremua, San Andres Berri izenez ere ezaguna dena. E.A.



ARRASATEKO UDALA

Galdetegia, herritarren eskura

Orain arte burututako lanetaren "kontraste lana" egiteko asmoz, kirol azpiegituri buruzko galdetegia betetzeko aukera edukiko dute herritarrek astelehenetik aurrera, Musakolako kiroldegian eta BAZen -galdetegia bete ostean, jarri dituzten postontzian sartuta- edota udal webgunean. Bestalde, 688 64 80 40 zenbakian ere eskatu daiteke hitzordua.



Eragin Arrasateren protesta

Osoko bilkura bertatik bertara jarraitu zuten Eragin Arrasate plataformako kideek, tarteka TAO sistemaren aurkako pankartak erakutsiz, eta bukaeran, Placi Garciak hartu zuen berba. "Oso garestia da eta tarifa askok ez dute zentzurik", nabarmendu zuen.



Indiako Ankur proiektuaren laguntza jaso duten hainbat herritar. HARREMAN

Proiektuetarako laguntza beharrean da Harreman

Urtero garaiotan egiten duen moduan, bazkide berriak erakartzeko kanpaina abiatu du gobernuz kanpoko erakundeak aurten ere; horrez gain, Gabonetako saski bat zozketatuko dute Harreman dendan, bidezko merkataritzako produktuz osatutakoa

Eneko Azurmendi ARRASATE

Beste urte batez, bazkide berriak erakartzeko asmotan, Harremaneko kideek triptiko bat banatu dute postontzietan azken asteetan, "pertsona bakoitzak nola lagun dezakeen jakinarazteko edo nahi badu bazkide bezala parte hartu ahal izateko".

Bi proiektu ditu esku artean Harreman gobernuz kanpoko erakundeak: batetik, Mozambiken, Mundukideren eskutik, nekazariek lanean dihardute, nekazaritza ekoizpena hobetu eta handitu dezaten, eta, horrela, haien bizi-kalitatea hobetu. Proiektuaren koordinatzaileak nabarmendu du "miseriatik po-breziara igarotzeko" egiten du-

tela lan. Indiako Ankur harre-
ra-etxean, berriz, familia oso pobreetako 200 haur baino gehiago jaso eta babesten dituzte, "etorkizun duina izan dezaten elikadura eta heziketa eskainiz". Zuzendariak adierazi du inork ezin diela guztiei lagundu: "Baina denok lagun diezaiokegu norbaiti".

Hain zuzen, bi proiektu horietan COVID-19aren pandemia "larriagotzen" ari dela ohartarazi dute Harremaneko kideek. "Eta guk zuengandik jasotzen dugun bultzadak gure helburuarekin jarraitzera animatzen gaitu, pertsona behartsuenei laguntzeko jarduerak landuz eta antolatuz", gaineratu dute.

Laguntza honako kontu korronte hauetan eman daiteke: Laboral Kutxa: ES23 3035 0001 50 0010042825; Kutxabank: ES95 2095 5055 51 1061985981; Caixa-bank: ES67 2100 1972 03 0200112601; Caja Rural: ES83 3008 0253 49 2793534526.

Laguntza zuzena

Lagundu nahi duten pertsona guztiei azpimarratu nahi izan diete bildutako dirua zuzenean proiektuetara bideratzen duela Harremanek, ez dagoelako birtartekorik ezta egitura-gasturik ere. "Proiektuekin konprometitutako pertsonak boluntarioak gara, pertsona guztientzat mundu justuagoa, iraunkorragoa eta

Kontzertu bat, atzeratuta

Harremanekin elkarlanean, gaur, egubakoitza, kontzertua egiteko zen Goikobalu, baina atzeratu egin behar izan dute, osasun egoerak baldintzatuta. Domekan, berriz, Txorbela otxoteak San Frantzisko elizan emango duen kontzertua aurrera doa (12:30).

Goikobaluren hainbat taldek egin beharreko kontzertua bertan behera geratu arren, Goikobalu eta Txorbela abestaldean prestutasunari balioa eman nahi izan diote Harremaneko kideek.

berdintasunezkoagoa lortzeko beste asmorik gabe. Amaitzeko, aukera hau baliatuko dugu pertsona, elkarte eta erakunde solidario guztiei gure eskerrik beroenak helarazteko, emandako laguntzagatik, eta, aldi berean, Eguberri zorionsuak opa dizkizuegu, datorren urtea guztiontzat ona izan dadin".

Gabonetan, saskiaren zozketa

Bestalde, Harreman dendak bidezko merkataritzako produktuekin osatutako saski bat zozketatuko du -65 euroko balioa duena-. Egindako erosketa bakoitzeko txartelak banatzen ari dira eta abenduaren 31n egingo dute zozketa. "Zorte on eta mila esker mundu justuago baten aldeko apustua egiteagatik!", adierazi dute Harremaneko kideek, eta kontzertuetara joateko dei egin dute.

OHARRAK

Ludoteken egitaraua

Gabonetako egitarau berezia antolatu dute ludoteka eta gazte txokoek; *Goiena.eus*-en daude ikusgai ekintza guztiak. Urtarrilean, Familian Jolasean abiatuko dute.

Jostailu Truke Azoka

Txatxilipurdik bihar, zapatua, egingo du Jostailu Truke Merkatua, Biteri plazan, 11:30etik 13:30era.

Finalak gaur eta etzi

Santamas pilota txapelketako finala gaur izango da, Uarkapen, 19:00etan. Padel eta tenis txapelketetakoak, berriz, domekan jokatuko dituzte, 11:00etan, Musakolako kiroldegian.

Gaztetxeko ekintzak

Gaur, egubakoitza, Agako DJ Set, 22:00etan. Bihar, 18:00etan, jaialdi ez-mistoa egingo dute Morbor taldearekin batera: 18:00etan, karro-poteoa; 21:00etan, Zaunka taldea; eta 23:00etan, Albina Stardust eta Divina Comedia. Domekan, 19:00etan, *Erresistentzia arazo fisikoa da* antzezlan, Belen Nevadoren eskutik.

'Prakabeltz' txerria

Martitzenean aurkeztuko dute, 19:00etan. Eguaztenean txerri zozketa egingo dute, 20:00etan. Biak Herriko Plazan izango dira.

Erakusketa, gaurtik

Lezetxiki Nardentalen lurraldea erakusketa irekiko dute Kulturateko klaustroan (17:30-20:30, astean zehar).



AS Reformak

• ERREFORMAK OROKORREAN
• BIOERAKUNTZA

Tel.: 607 95 79 11

www.asreformak.net
ARRASATE

Hoberena opa dizuegu.
Urte berri on!

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Urte berri on!!

Iturriotz 21 - Tel.: 943 79 03 84 - eyaelec@telefonica.net
ARRASATE

Migrazioa, ipuin eta musikarekin kontatua

Bigarren urtez jarraian, Ttak-eko kideek borobilduko dute gaur, 18:00etan, Pertsona Migratuen Nazioarteko Astea, Kulturaten 5 urtetik gorakoendako sorkuntza propioko ipuina kontatuaz: "lazko arrakasta ikusita, gurasoek berriz egiteko eskatu ziguten"

Hasier Larrea ARRASATE

Lauzpabost urte daramatza Ekin Emakumeak Elkarteak hileroko ipuin kontaketa antolatzen, Arrasaten hitz egiten diren hizkuntza ugari presentzia emateko helburuarekin. Ludoteketan egiten dituzte saioak: pertsona migratu batek bere jatorrizko hizkuntzan kontatzen ditu ipuinak, eta gero, euskaratu egiten dituzte antolatzaileek.

Udal Bibliotekaren eta Udaleko Aniztasun Sailaren laguntza izan ohi dute horretarako, eta Ekineko Jasone Giraldo aipatu du denborarekin gero eta interes handiagoa piztu duela egitasmoak: "Hasieran, haurrak bakarrik geratzen ziren entzuztera, baina gero, gurasoak ere hasi ziren etortzen; deigarria iruditzen zaie zenbat hizkuntza ditugun gurean".

Ikuspuntu aldaketa

Programa horren baitako ekimen berezia Gabon aurreko astean egiten dute, Pertsona Migratuen Nazioarteko Astearekin bat eginez: "Antzeztu izan ditugu ipuinak txotxongiloekin, eta iaz, AEDko Ttak gazte taldeari eskatu genion ipuin musikatu bat kontatzeko". Saiakera hura ondo irten zenez, berriz onartu dute enkargua gazteek. Taldean sor-



Azaroan Santa Marinako Udal Liburutegian egindako saioa. EKIN EMAKUMEAK

tu dute ipuina, hona datozen pertsonen azalean jartzeko: "Horretarako, New Yorkera bizitzera doan haur euskaldun baten inguruan eraiki dugu istorioa, euskal etxeei ere aipamena eginez", adierazi du Libe Argoitiak, Ttakeko kideak.

40 minutu inguruko saioan, musikaren bidez girotuko dute kontaketa, eta atal hori istorioaren parte bilakatu: "Haurra hegazkinean sartzen denean, aurikularrak jarriko ditu, eta entzuten duen kantua zuzenean entzungo dugu guk ere".

Gazteen sormena bultzatzen

Ttak taldearen proiektuetako bat izan da orain arte Ausortu, baina aurten buelta bat eman diote planteamenduari, "herriko sortzaile gazteei protagonismo gehiago emateko". Duela aste batzuk gaztetxean egin zuten lehen topaketa hamalau sortzailek, eta atera zuten ondorioetako bat izan zen ez daukatela sorkuntza prozesuak behar bezala garatzeko espaziorik. Hori eta beste hutsune batzuk betetzeko elkarlanak izango du jarraipenik aurrerantz.

Erdigunea trikiti eta doinu akustikoz beteko da gaurtik

Guztira, lau kontzertu egongo dira, Herriko Plazan gehienak, barikuan, zapatuan eta astelehenean

H.L. ARRASATE

Musika emanaldiz beteriko egunak izango dira gaurkoa eta jarraian datozenak, Santamas Komisiñuak eta Ibai-artek hainbat proposamen ekarriko dituzte-eta, Udalarekin elkarlana sustatuta.

Gaur, barikua, Los Brazos taldeko William Rodriguezek Arbolapetan emango du kontzertu akustikoa, 19:00etan hasita; herritarrek gogoan izango dute Arrasate Blues jaialdian aritutako artista.

Zapatuan, berriz, Herriko Plaza izango da Arrasate Trikitixa Eskolako ikasleen agertokia, 19:00etan hasita. Jarraian taularatuko dira, 20:30en bueltan, Leire Etzezarreta eta Peio Heriz arrasatearrak; bertsiok eta kantua propioak joko dituzte, gitarrak eta ahotsak erabiliz musika tresnatzat.



William Rodrigueze. ARRASATE BLUES

Astelehenean, gehiago

Toki berean eta formatu berekin baina beste kantutegi bat lagun arituko dira Zahara Galan eta Borja Gomez astelehenean, hilak 20, 19:15ean hasita. Ondoren, Gabonetako 50 otarreak banatuko ditu Ibai-artek.

Udal Bibliotekaren eskutik, guztiendako Gabonetako lehiaketa

Urtarrilaren 9ra arte izango du edonork parte hartzeko aukera. Lehiaketa Kulturaten bertan edota arrasate.eus/biblioteka webgunean dauden formularioko zazpi galdera erantzutean datza, guztiak Arrasateri buruzkoak. Hutsik egiten ez dutenen artean 60 euroko hiru bonu zozketatuko dituzte, Elkar Arrasate dendan erabiltzeko.

Herriko artisten posterrak aurkeztuko dituzte gaur Maalan

Sei sortzailek Arrasaterekin zerikusia duten lan artistikoak egin dituzte poster formatuan, Objektuak dendak sustatuta. Lokal horretan, Maala Errebalako 8. zenbakian, emango dute horien berri gaur arratsaldean zehar, otorduaz eta edatekoaz lagunduta. Proiektuari jarraipena eman nahi diote, identitatea jarritz erdigunean.

Oparitu elkartasuna!

harremandenda

Arrasateko Hiper Eroskin gaude

Zergatik aukeratu Bidezko Merkataritza?

Produktu bakoitzaren atzean pertsonak daudelako

<p>Soldata justua Lan eskubideak Haur eskolabotzarik ez Bizi baldintza duinak</p>	<p>Kimikorik gabeko kafea, azukrea, kakaoa... Kosmetiko naturalak, artisautza eta Gabonetako saskiak</p>
---	--

Mundu hobeko baten alde, oparitu elkartasuna!

Oparitu elkartasuna!



Aramaioko gazte lokala barrutik. JOKIN RODERO

Hartu dituzte berriro ere gazte lokaleko giltzak

Eusko Jaurlaritzaren azken dekretuak gazte lokalak zabaltzeko baimena ematen du; hala, urriaren 23an bilera irekia egin zuen Udalak herriko gazteekin, eta dagoeneko zabalik dago lokala. 15 urtetik gorako 26 gaztek hartu dute giltza udaletxean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Abendu hasiera ezkerro berriro ere zabalik dago gazte lokala. Pandemia hasieran itxi zuten, eta, ordutik hona, dekretuz, itxita egon da. Jaurlaritzaren azken dekretuak gazte lokalak zabaltzeko aukera eman du. Hala, Udala gazteekin elkartu da, euren iritzia jaso eta lokalaren inguruko hausnarketa egiteko. "Lokala erabili izan duten gazteei iritzia eskatu zaie, eta baita erabiltzaile izango direnei ere", azaldu du Gazteria zinegotzi Oihana Amezkua.

Erabaki dute hilabete eta erdian behin egitea bilerak: hurrengo urtarillaren 10ean izango dute.

Egoteko espazioa

Gazte lokala kultura etxearen eraikinaren azpialdean dago. "Egoteko espazio bat da, musika entzuteko, telebista ikusteko, ordenagailua eta sofak", dio Amezkua. Hezitzaileak ez duen lokala da; hau da, gazteek dute lokaleko giltza eta erabilera librea

da –araudia errespetatu–. Askatasun horren baitan, elkarbitzitzaz hitz egiteko leku bat izan beharko litzatekeela uste du.

Auzolanean txukundu dute lokala eta lokalaren erabilera araudia adostu dute Udalak eta gazteen ordezkari taldeak –kuadrilla bakoitzeko bi lagun–.

Gazteen arteko sinergiak

Gazteen arteko topalekua izatea da asmoa. "Orain arte, eragiteko aparteko borondaterik ez da egon. Orain, bidea egiteko dago. Asmoa da lokala osatzen dutenak talde bat izatea, herrian eragingo duen taldea. Egun puntualetan herriari zerbait eskainiko dion taldea izatea", azaldu du zinegotziak.

AUZOLANEAN TXUKUNDU DUTE LOKALA, ERABILERA ARAUDIA ADOSTUTA UDALAREKIN

2001etik 2006ra bitarteko gazteek erabil dezakete lokala; hau da, 15 urtetik gorakoek. Dagoeneko 26 gaztek hartu dute lokaleko giltza udaletzeko bulegoan.

Amezkuak dio gazteen artean sortu izan direla "desiragarriak ez diren sinergia" batzuk; belaunaldien arteko harreman botere desoreka, esaterako.

20 urteko ibilbidea

Badira 20 bat urte gazte lokala zabaldu zela herrian: "Errotu egin da herrian, eta baita funtzionatzeko modua ere". Amezkua gaineratu du gazteak desiratzeko egoten direla 15 urte betetzeko. "Hala ere, garai hori izaten da institutua hasten dutena: batzuek herriarekiko lotura galtzen dute eta horiendako ez da erakargarria izaten lokalaren eskaintza".

Herrian oso ondo baloratuta dagoen zerbitzua dela nabarmendu du Amezkua. Gazteak elkartu eta kuadrilla zabalak sortzeko balio izan duela.



NIRE USTEZ

PERU ABARRATEGI

Ez gaitezen ohitu

Irakasle gisa ikastetxez ikastetxe bidaiatzen COVIDaren urtea bezala bataiatua izan zen urte hartan hasi nintzen, konfinatu gintuzten ikasturtean, zehazki. Dagoeneko ohartu naiz gehiegi kostatzen zaidala nire ikasleak identifikatzea, eta, musukoa kentzen dutenean, LABiak agerraldia egiten zuenean baino sorpresa handiagoak hartu ohi ditut.

Ohitu naiz ikastetxeetako protokoloetara, ez naiz oroitzen noiz ikusi nuen azken aldiz norbaiten aurpegia osorik gela baten barruan. Lehen, pasaporte mugak zeharkatzeko eskatzen ziguten; orain, dirudienez, gure askatasunari jarri nahi dizkiote mugak.

Printzipioz, ez nuke nahi neure burua konformista huts bat bezala definitzea, baina konturatu naiz denbora gutxian jartzen dizkiguten lege edo muga batzuetara, behintzat, dagoeneko ohitu naizela. Beharrezko ikusten ditudan neurriak hartuta eta ahal den heinean norbere buruarekin koherente izanda, ez gaitezen egoera anormal honetan bizitzera ohitu. 2022ari eskatzera ez naiz ausartzen, baina ziur garai hobek etorriko direla.

Gabonetako bertso saioa abenduaren 23an izango da

Sarrerak egunean bertan salduko dituzte, 5 eurotan. Lujanbio, Amilburu, Soto eta Uria ibiliko dira bertsoan

A.E.G. ARAMAIO

Aramaixoko Bertso Eskolak, Udalaren laguntzarekin, Gabonetako bertso saioa antolatu du. Egunean izango da, abenduaren 23an, 19:00etan, kultura etxeko areto nagusian.

Oholtza gainean maila handiko lau bertsoari kantatuko dute. Paula Amilburu aramaiorak ondoan izango ditu Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Jone Uria. Sarrerak egunean bertan salduko dituzte, 5 euroren truke. Gai-jartzaile lanetan bertso eskolako kideak ibiliko dira.

Paula Amilburu "gustura eta gogotsu" dago herritarren aurrean bertsoan aritzeko. Plaza gutxi egin dituela dio, baina Arabako txapelketari begira entrenatzen dabilela nabarmendu du. Aurten, esaterako, maiztzean jokatu zen I. Señora sariketan parte hartu zuen Amilburuk, eta baita finala jokatu ere.

Oholtza gainean izango dituen bertsoari dio "oso ondo" dabilzala eta "plazera" izango dela Lujanbioaren, Uriaren eta Sotoren ondoan kantatzea.

'Eta kittorik ez!' antzezlanaren egingo dute kultura etxean

Euskararen Egunaren barruan antolatutako ekitaldien artean egongo da bihar, zapatua, egingo duten antzezlanaren. Ane Gebara eta Josune Velez de Mendizabal aktoreek *Eta kittorik ez!* antzezlanaren egingo dute. Emaldiak 50 minutu iraungo du eta 12 urtetik gorakoek zuzenduta egongo da. Bi ahizparen arteko bizipenak kontatzen ditu.

Aramaioko Udalak bi peoi kontratatuko ditu hiru hilabeterako

Udalak bi peoi kontratatuko ditu lanaldi erdian, hiru hilabeterako. Espazio eta eraikin publikoen eta espazio berdeen mantentze eta egokitzapena egiteko zereginak izango dute. Interesatuak Lanbiden eman beharko dute izena abenduaren 21a baino lehen, 162021011567 espediente zenbakiarekin –Peoi orokorra kategorian–.

DEBAGOIENENKO



OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

Gabonak girotzera dator bihar Neguko Azoka

Pandemia sasoiara egokituta dator aurten ere herriko artisauen, ekoizleen, merkatarien eta elkarleen azoka; 24 postu jarriko dituzte Durana eta Mitarte kaleetan, eta goizez zein arratsaldean izango dira bisitarien eta erosleen zain

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Pandemia sasoiara egokitzen jakin du Neguko Azokak, eta aurten ere ez du hutsik egingo. Aretxabaletako artisauen, ekoizleen, merkatarien eta hainbat elkarleen postuak jarriko dituzte bihar, zapatua, Durana eta Mitarte kaleetan, eta egun osoan hartuko dituzte bisitariak: 11:00-15:00 eta 17:00-20:00.

Pilaketak saihestu

Zazpigarrenez dator Neguko Azoka, eta iazko formatua izango du, prebentzio neurriak bete ahal izateko. Hala, banakako karpak jarriko dituzte postuen arteko distantzia mantentzeko eta bisitarien pilaketarik izan ez dadin. Osasun egoeraren bilakaera ikusita, Udalak herriarrei eskatu die ez lasaitzeko eta neurriak betetzeko. "Gabonak ospatu gura ditugu, baina ahal den segurtasun handienarekin; horregatik, jende pilaketak saihesteko eta maskarak erabiltzeko eskaera egin gura dugu", adierazi du Kultura zinegotzi Ainhoa Caberok.

Bi kaleetan banatuta askotariko eskaintzekin datozen 24 postu jarriko dituzte. Bertan izango dira honako artisauek eta ekoizle hauek: Iban Urreta, Izaro Sanchez, Lara Gonzalez, Maria Zubillaga, Mari Cruz Osorio, Nerea Maskariano, Lara Garcia, Anne Olano, Ariane Unamuno, Itsaso Aldai, Mari Gonzalez, Gorka Lete, Lur Pagoaga, Amaia Otañui eta Jose Lonbide. Ekoizleek negu sasoiako fruituak eta barazkiak izango dituzte, gazta, ezta, hestebeteak eta beste hainbat produktu. Artisauek, besteak beste, larruarekin eta zilarrarekin egindako osagarriak, pintura lanak eta arropak eskainiko dizkiete herriarrei.

Aretxarte merkatarien elkarreko merkatariak ere izango dute lekua han; hona postuak jarriko dituztenak: Belar Meta,



Udal ordezkariak eta Aretxarteko merkatariak azoka aurkezten. MIRARI ALTUBE

Gabonetako egitarauko kontuak

Gabonetako egitarauan iragarritako hainbat kontu bertan behera utzi dituzte: Aretxabaletako Abesbatzaren kontzertua eta Leizarra musika eskolako kideen emanaldiak, hain zuzen ere. Azken horien asmoa da aurrerago, otsail edo martxo aldera, egitea.

Porrotz eta Marimotots pailazoen ere atzeratu egin dute martitzenerako iragarritako *Amaren intxaurrak* antzezlanak. Urtarrilaren 21a da data berria, eta sarrerak aldatu beharrik ez da egongo.

San Silvestre lasterketa, abenduaren 31n –Durana kalean hasita, 16:45ean umeak eta 17:00etan helduak–. Dorsalak dagoeneko eskuragai daude Belar Meta dendan.

Almila Shop, Kiloka, Titare, Hanka Beltz eta Haurrak. "Gure denden aurrealdean izango ditugu produktuak jarrita; hortaz, guztiondako da eroso, erosleendako zein saltzaileendako", dio Idoia Elexpuru merkatariak. Eta iazkoak izandako arrakasta aurrerari izanda, "gogotsu" dau- de zapaturako.

Herriko elkarleen materiala

Herriko hiru elkarleen ere izango dute euren txokoa Neguko Azokan: UDAk eta Hiruatx eta Zaporeak GKEk. Aretxabaletako kirol elkarleak materiala eta loteria izango ditu herriarrendako. Aurten, gainera, 75. urteurrena ospatzen dabilta, eta horretarako propio ateratako hainbat produktu dituzte: kantimplorak, poltsak eta arropa.

Hiruatx GKEk, oster, bidezko merkataritzako produktuak izango ditu: kafea eta txokolatea, besteak beste; eta aurten, Gabonetako jakie ere egin gura dute tokia. Turroiei, esaterako.

Zaporeak GKEk, berriz, elkarlearen materiala izango du salgai, baita Aita Marirena ere: jertseak, kamisetak, motxilak eta beste hainbat kontu.



Ekimenari babesa eman dioten hainbat ordezkari politiko Iturrizar plazan. J.A. ALBERDI

Euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko, bateratasuna

Pertsona guztien giza eskubideen defentsaren eskaerari babesa erakutsi diote herriko 70 ordezkari politikok

M.A. ARETXABALETAKO

Ezberdintasun ideologikoak alde batera utzita, Aretxabaletako Udaleko gaur egungo zein iraganeko 70 ordezkari politikok pertsona guztien giza eskubideen defentsa aldarrikatu zuten joan den egubakoitzean, hilak 10, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean.

Biktima guztiek merezi dutela egia, justizia eta erreparazioa adieraztearekin bat, ETako presoek ezarritako salbuespenezko espetxe politika salatu zuten Iturrizar plazan, giza eskubideen aldeko monolitoaren alboan.

Trantsizio garaitik hona 109 zinegotzi eta alkate egon dira Aretxabaletan. Horietako 100 daude bizirik, eta 70ek babestu dute ekimena: alderdi guztietako ordezkariak, PPkoek salbu. %70eko babesa lortzea "positiboa" dela nabarmendu zuten parte hartzaileek.

Legea betetzeko eskaera

Garikoitz Garcia euskal preso aretxabaletarra izan zuten go-goan. Hamaika urte daramatza espetxean, eta 2020ko azaroan Zaballara lekualdatu zuten. Horrek senideen eta lagunen zigor gehigarria amaitzea ekarri zuela aipatu zuten. Hala ere, ETako presoek legeak ahalbidetzen duen bidea egiteko "hamaika oztopo" dauzkatela salatu zuten. Horregatik, legedi arruntari jarraituz, gradu progresioaren bidean aurrera egitea aldarrikatu zuten: "Zehazki, neurri eta baimen berrietan aurrera egitea, baimen bereziak, lan egitekoak, bigarren edo hirugarren gradua lortu ahal izatea eta baldintzapeko askatasuna eskuratzeko".

Halako ekimen bateratuei jarraipena ematearen alde agertu ziren ordezkari politikoak, "elkarbizitzaren, konponbidearen eta bakearen alde".

Gomendioz betetako 'Neguko gida' gertu dute liburutegiek

Hainbat liburutegiek elkarlanean *Neguko gida* argitaratu dute aurten ere. Seina liburu gomendatu dituzte hor, lau adin taldean banatuta. Helduentzat, oster, hamabost liburu, bost disko eta bost film gomendatzen dira. Eskoletan banatuko dituzte, eta liburutegietan ere bai. Bertsio digitala udalaren webgunean ere jarri dute.



Ekarpenak egin ditu EH Bilduk aurrekonturako

"Oinarrizko baldintzen" artean jarri ditu Gobernu batzordean parte hartzea bermatzea eta eraikinen garbitasunaren gaineko azterketa egiteko konpromisoa; kultura arloaren funtzionamendua aldatzea gura dute, eta beste proposamen batzuk ere egin dituzte

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Udal Gobernuak 2022rako proposatutako aurrekontuaren gaineko baloraziorik ez du egin gura izan EH Bilduk, "bi alderdien arteko negoziaketan bidea oraindik ez delako agortu", baina bai zehaztu dituzte adostasunerako proposamen batzuk, hiru ataletan banatuta.

Gobernu batzordeko parte

Lehen atalari dagokionez, "partidarik ez duten baina oinarrizkoak diren bi aspektu" onartzea "ezinbestekotzat" jo dute, eta horien artean dago Gobernu batzordean parte hartzea bermatzea. "EH Bilduko



EH Bilduko ordezkariak. TXOMIN MADINA

ordezkari batek Gobernu batzordeko bileretan, eta gonbidatu gisa, parte hartu ahal izatea proposatu dugu", azaldu du Ion Albizu bozeramaileak, eta argitu du hori "estrategikoa" dela eta herriko batzarraren onespina duela. Bigarren aspektua da eraikinen garbitasuna Udalak bere gain hartzeko azterketa egiteko konpromisoa: "Udalarendako %15 merkeagoa izango litzateke eta langileen soldatak proportzio berean igoko lirakeke".

Bigarren atalean, kultura arloaren bueltan egindako osoko zuzenketa dago: "Herriko eragileen esku uztea da proposamena".

Proposamen zehatzak

Hirugarren atalean, proposamen zehatzak jaso dituzte eta horien artean lau nabarmendu dituzte: auzoetan hobekuntzak egiteko auzo alkateen esku uztea partida bat -30.000 euro-; energia sortzeko udal eraikin guztietan eguzki plakak jartzea; Aretxabaleako teiltuen ahalmen fotovoltaiakoen ikerketa egitea; eta herriko komunitate energetikoa martxan jartzeko aholkularitza zerbitzua kontratatzea -15.000 euro-. "Auzo alkateen esku diru bat utziko litzateke, plangintza bat egiteko, lehentasunak ezarri, eta gero Udalak lanak egiteko".

Herriko hainbat eragilerekin egon ostean beste proposamen batzuk ere jaso dituzte. Hona hemen: Basabeazpi aurrealdean estalkia jartzeko proiektua; kuarterelaren eraikinean argindarraren beharrezko konponketak egitea; kuarterelaren egituraren inguruko txostena; eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko bekak sortzea; eta pilotalekua egokitzeko lanen proiektua.

2022ko Udal aurrekontua onartzeko osoko bilkura datorren eguaztenean egingo dute.

Karme Igartua sorkuntza lehiaketaren sari banaketa bihar

Karme Igartua idazle aretxabalearraren omenezko XI. sorkuntza lehiaketa narrazioak eskatu dituzte aurrean Bergarako Idazle Eskolak eta Aretxabaleako Udalak. Epaimahaiak dagoeneko hartu du erabakia, eta sari banaketa ekitaldia bihar, zapatua, egingo dute, Arkupen (12:30). Irabazleak 2.500 euroko saria eskuratuko du.

Gabonetako Karate Jaialdiak 83 jokalaria batuko ditu domekan

Gipuzkoako hainbat herritako karatek elkartuko dira domekan (10:00), Ibarra kiroldegian, nor baino nor gehiago jarduteko -Debagoienekoak, Azkoitikoak, Errenteriakoak eta Irungoak, besteak beste-. Benjaminak, kimuak eta infantilak izango dira tatami gainean, 83, guztira, kata eta kumite modalitateetan lehiatzeko.

BiHOTZez ikasi

KURTZEBARRI ESKOLA haur eta lehen hezkuntza (2-12 urte)

URTARRILAK 15 GOIZEZ, BISITA GIDATUAK TALDE TXIKIETAN

HITZORDUA ESKATZEKO DEITU: 943 89 91 46
zuzendaritza@kurtzebarri.eus
*Banakako bisitak urtarrilaren 17tik 28ra.

MATRIKULAZIO EPEA
Urtarrilaren 17tik 28ra

ZATOK GU EZAGUTZERA!

Udaletxeko lanak, Gabonetarako amaituta

Pandemiak baldintzatutako agintaldian egindakoak eta aurrera begirakoak izan zituen hizpide Joserra Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak. Udal zerbitzuak bateratzeko udaletxean egindako lanak laster amaituko dituztela esan zuen, besteak beste

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martitzenean izan zen Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea Goienako platoan, *Harira* saioan, eta urte berezi honetan gertatutakoak, egindakoak eta esku artean dituzten proiektuak eta bestelakoak izan zituen hizpide. Besteak beste, *Eskoriatza bizirik* erosketa bonuak, Irisgarritasun Plana, uraren kudeaketa, *Iturriزار* iturriaren berreskurapena, euritearen ondorioak eta gaurkotasunezko beste hainbat kontu.

Pandemiak baldintzatutako agintaldi honetan, irailean egindako kultura hitzorduak ekarri zituen gogora, saioa hasteko, Zubizarretak: Errekan Gora jaialdia, *Ostiral musikatuak*, San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak... Horien arrakasta nabarmenezaz batera, Gabonetarako egitarau polita prestatuta dutela adierazi zuen: "Prestatuta ditugun ekintza guztiak zalantzan jarri behar ditugu, zenbakiengatik. Kutsatu mordoa dugu herrian, eta zaindu egin behar dugu. Eskoriatza Kirol Elkartek, esaterako, atak itxita jokatuko dutela jakinarazi dute...".

Herriko komertzioei bultzada

Herriko merkatariei eta ostalariei laguntzeko *Eskoriatza bizirik* bonuak ere izan zituen berba-gai alkateak, eta sektore horietakoei laguntzeko martxan jarritako proiektua arrakastatsua izan dela nabarmendu zuen: "Hiru txandatarako 100.000 euroko partida bideratu genituen, azken txandan 40.000 euro, eta erantzun ona izan du".

Fokua irisgarritasunean

Agintaldia amaitu arte begiz jota dituzten inbertsioen gainean galdetuta, berriz, honako hauek nabarmendu zituen Eskoriatzako alkateak: "Irisgarritasun lanei garrantzia ematen diegu.



Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea Goienako platoan. IMANOL BELOKI

"GABONETARAKO PRESTATUTA DITUGUN EKINTZA GUZTIAK ZALANTZAN JARRI BEHAR DITUGU"

Alde batetik, argiteria publikoa azpimarratuko nuke; joan den agintaldian hasi genuen proiektua da, eta aurten amaituko dugula aurreikusten dugu. Ez soilik herri nukleoan, baita elizateetan ere. Elizate batean, gainera, proba pilotu bat egin dugu eguzki-sistemekin argiak piztu daitezkeen, eta hori hedatzeko asmotan ari gara. EAJ taldeak esaten duen hitza bete egiten du; beraz, herritarrei eskatuko nieke jarraitzeko gurekin komunikazio linea zuzen hori izaten. Eskertzekoa da herritarrek gudan jarri duten konfiantza. Horrez gain, zerbitzuetan eragin nahi dugu; kiroldegian, aisialdirako urarekin lotuta ere kanpoan zerbait egitea... Horiek dira aurrera begira etorriko diren gai garrantzitsuenak".

Herriko historia eta ondarea berreskuratzeaz ere aritu zen

Zubizarreta; esaterako, Iturri-za aipatu zuen, eta beste eremu batzuen premia adierazi. Horrekin batera, EH Bilduk aurten egindako erreka garbiketaren, landare inbaditzaileen eta Bidebarrieta konponetzearen inguruan egindako proposamenak ere izan zituen berba-gai. "Harriduraz eta pozez" jaso genituen. EAJren programan jarri genituenak egitea eskatu digute...".

Udaletxeko lanak, amaitzeaz

Denbora batez osoko bilkurak eta batzordeak era telematikoan egin ostean, eta udaletxeko lanak tarteko, kultura etxean egin dituzte azken batzarrak. Hala ere, gaur egongo egoera ikusita, berriz era telematikoratu bueltatzea aztertzen ari direla adierazi zuen Zubizarretak. Horrekin lotuta, zerbitzu guztiak bateratzeko udaletxeko lanak amaitzeaz daudela gaineratu zuen: "Udaletxeko lanak Gabonetarako amaituta izango ditugula uste dut. Ia 150.000 euroko inbertsioa izan da, eta, eraikineko obra gain, herritarren eskura jarri nahi ditugun zerbitzu telematikoetan ere inbertitu dugu".

Hirugarren saria, Iñigo Beitia eskoriatzarrarentzat

Kulturgintzak hizkuntza-biziberritzeari egiten dion ekarpena aztertzen duen lanarekin jaso du saria

I.B. ESKORIATZA

Soziolinguistika Klusterrak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituzte Txillardegi Hausnartu Soziolinguista sariak, eta hirugarren saria Iñigo Beitia eskoriatzarrak irabazi du, *Kulturaren eragina hizkuntzaren biziberritzean*. Behin-behineko ondorio batzuk izenpean egindako lanari esker.

Gizarte Antropologian graduatua, euskararen gaineko ikerketetan parte hartu izan du Beitia eta bere gradu zein master amaierako lanak hizkun-

tza antropologiari lotuta egin ditu. Egun, berriz, EHUko doktoregaia da. Bere lanak hizkuntzaren eta kulturaren arteko uztarketaz dihardu, hizkuntzaren biziberritzeari begira garrantzitsuak izan daitezkeen gakoak eskaini ditzakeelakoan. Hala, azken urteetan egin diren ikerketetan oinarrituta, gaiaren garapen teorikoa egiten da, lehenik, amaieran eredu bat proposatzeko. Epaimahaiaren arabera, "gaiaren ibilbide historikoa ongi laburtu eta sintetizatzen du", besteak beste.

GORA ETA BEHERA



KRISTINA CARDENAL

'Idoia zuhaitza' dotore jarri dute aurten ere

Idoia Sudupe eskoriatzarrak apaintzen zuen zuhaitza Gabonetan, material birziklatuekin, eta orain, Dorletak eta Elenak, haren lagunek, apaindu berri dute, Sudupe gogoan.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



'Zero kilometro artisau azoka': bertakoari balioa

Eskoriatzako bederatzia artisauen lanak izango dira ikusgai asteburuan Ibarraundi museoan. Horrekin batera, Maite Carrillo artistaren pintura erakusketa inauguratuko da bihar, 13:00etan, eta abenduaren 31ra arte egongo da ikusgai

Imanol Beloki ESKORIATZA

Bertako artisauen produktuen aldeko apustua eginda, zapatu eta domeka honetarako *Zero kilometro artisau azoka* antolatu du Eskoriatzako Udalak. Ibarraundi museoan izango dira herriko artisauak, eta produktu bereziak eta eskuz egindakoak jarriko dituzte salgai eta erakusgai; hala nola zurezko erlojuak, bastoiak, poltsak eta koleteroak, larruzko gauzak, xaboiak, xanpuak, ukenduak, kuartzozko olioak, kortseak, zeramika, bisuteria eta askoz gehiago. Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, honako ordutegi honetan izango da azoka irekita: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Herriko bederatzia artisau

Ana Jara, Juan Jurado, Lourdes Martinez, Kristina Cardenal, Oscar Garcia, Jose Angel Petralanda, Patricia Ruiz, Maitane Axpe eta Buztinate buztingintza eta zeramika taldeko artisauak eman dute izena bertan egoteko, eta, beraien produktuak herritarrek ikustez batera, erosi eta nola egiten dituzten galdetzeko aukera izango dute. Jose Angel Petralanda *Petrus* gogoz dago azokarako. Konfinamenduan hasi zen



Jose Angel Petralanda, zurezko erlojuak egiten. IMANOL BELOKI

zurezko erlojuak egiten, eta zaletasunarekin jarraitzen du. Bere lanek harrera ona jaso dutela dio, eta gaineratu du ekintza aberasgarria izango dela asteburuko: "Zurezko hogeitaz erloju inguru eramango ditut Ibarraundi museoan. Zerbait saldu ahal badugu, bikain; hala ere, nire asmoa egiten dudana jendeari erakustea da, eta espero dut gustukoa izatea".

Buztinatekoen lanari balioa

Buztinate buztingintza eta zeramikako kideak ere *Zero kilo-*

metro artisau azoka-n izango dira. Aurten kide berriak egin dituzte, eta beraien lanak jendeari jartzeko aprobetxatu dute hitzordua. Elkarteko zenbait kide izango dira ordezkari gisa bertan, eta Buztinateko saioetara jende berria erakartzeko asmoz ere izango dira Ibarraundin.

Pintura erakusketa

Artisau azokaz gain, zapatuan, 13:00etan, Maite Carrilloren pintura erakusketa inauguratuko dute Ibarraundin.

Ez dira egingo Zaldibar antzokiko aste bukaerako hitzorduak

Leire Etxezarretaren eta Pello Herizen emanaldia eta 'Olentzeroren gutunak' obra, bertan behera

I.B. ESKORIATZA

2021eko azaroaren 16ko aginduak, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriak buruzkoak, COVID-19 kutsatzeetan hamalau eguneko tasa metatua

100.000 biztanleko 150etik gorakoa den udalerrietako agintariei eskumena ematen die prebentzio-neurriak betetzen direla bermatu ezin duten jarduerak guztiak bertan behera uzteko, edo aldi baterako atzeratzeko.

Hain zuzen ere, Eskoriatzako intzidentzia-tasak gora egiten jarraitzen du, eta momentu honetan 100.000 biztanleko 3.000tik gorakoa da. Hori horrela, asteburu honetan egitekoak ziren ekitaldien xehetasunak aztertu ondoren, Zaldibar antzokian programatutako bi emanaldiak bertan behera uztea erabaki du Udalak. Hau da: gaur egitekoak zen Leire Etxezarretaren eta Beñat Herizen kontzertu akustikoa eta domekan egitekoak zen *Olentzeroren gutunak* antzerkia.



Gatzagako Udalak ateratako 2022ko egutegia, bi aldeetatik. GATZAGAKO UDALA

Bitan banatutako egutegiak, etxez etxe banatzeko gertu

Leintz Gatzagako Udalak 2022ko egutegiak atera ditu, beste urte batez, bi argazki azpimarragarriekin

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Ohitura onak ez dira alde batera utzi behar, eta herritarren gustukoak badira, are gutxiago. Hori horrela, Leintz Gatzagako Udalak urte askoan mantendu du ohitura bat, Gabon egunean, Olentzeroren etorrerarekin batera, herriko haurren laguntzarekin etxez etxe 2022ko egutegiak banatzea.

Aurten ere aleak inprimatu dituzte, betiko estiloari jarraituz; hau da, alde batean urtarriletik ekainera bitarteko hilabeteak agertzen dira eta beste aldean, uztailetik abendura artekoak. Udal ordezkariak adierazi dutenez, ez dakite nola egingo duten banaketa aurten, baina emaitzarekin pozik agertu dira.

Elurra eta sua

2022ko egitaraua bi zatitan banatuta egiten dutenez, argazki

bi jarri dituzte Gatzagako Kultura Sailekoek; biak Leintz Gatzagako udal ordezkariak ateratakoak dira. Urtarriletik ekainera bitarteko aldean Gatzaga zurituta agertzen da, zuri-zuri, Gatzaga-gain aldetik ateratako erretratuan. Uztailetik abendura bitarteko zatian, berriz, San Juan sua San Migel plazan piztu zuteneko une bat agertzen da, suaren bueltan zenbait herritar ageri direna.

Bestelako informazioarekin

Egutegian, gainera, askorentzat ezinbestekoak diren ilargiaren faseak agertzen dira, eta baita Leintz Gatzagako udal zerbitzuekin harremanetan jartzeko kontaktua ere: udaletxeko bulegoen eta epaitegiaren telefono zenbakiak, Gatz Museokoa, gizarte laguntzailearena eta osasun zentroarena.

OHARRAK

'Gatz egile egun batez'

Bihar, zapatua, familian egiteko doako tailerra izango da, 12:00etan, Gatz Museoa.

Udal bulegoak, itxita

Udal bulegoak eta erregistro nagusia itxita egongo dira hilaren 24an eta 31n eta urtarrilaren 7an. Ondorioz, edozein epe, betebeharrak edo eskubideren muga eguna egun horietako baten tokatzen bada, hurrengo lanegunera luzatuko da.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Bideberri mankomunitateko etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratatzekeko informazio osoa jarri dute udal webgunean.

50. urteurrenerako gertu daude mendizaleak

Mendi irteerak, erakusketa, umeendako natura-parkea, bizikleta irteerak, film emanaldiak... 50. urteurrena ospatuko du 2022an Arrola Mendizale Taldeak, eta hileroko-hileroko, urtarrilean hasita, ekintza bat egingo dute. Logo berria aurkeztu dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

2022ko azaroaren 11n beteko ditu ofizialki Arrola Mendizale Taldeak 50 urte -1972an sortu zen elkarte- Hala, datorren urtera begira egitarau zabala eta osatua aurkeztu dute. "Publiko ororendako egitaraua prestatu dugu. Helburua da ahalik eta herritar gehienek parte hartzea. Urte berezi hau ospatzeko, omenaldiak, liburu aurkezpena, erakusketak, hitzaldiak... antolatu ditugu", dio Arrolako presidente Sara Arieteleanizek. Bide batez, Oier Peñagarikanok egindako logo berria aurkeztu dute.



Arrolako batzordekideak logo berriaren aurrean. MAIDER ARREGI

Hileroko ekintzak

Zenbait data eta ekintza zehaztu gabe dituzten arren, zer egingo duten aurreratu dute jada. Urtarrilean, Arrolara igoera eta mendi film proiektzioa; otsailean, Belaguara irteera eta zuhaitz landaketa; martxoan, 50 urte jasoko dituen liburuaren eta ikus-entzunezkoaren aurkezpena eta erakusketa; apirilean, sorospen eta orientazio eta eskalada ikastaroak; maiatzean, sentsibilizazio kanpaina iturri zein bideak txukuntzeko eta La Lezera irteera; ekainean, herriko mendi ibilbideen aurkezpena, txistularien emanaldia Arrola

473 BAZKIDE ETA 79 FEDERATU DITU ARROLAK; 23AN, FEDERATZEKO AUKERA, 18:00ETAN

ereserkiaren estreinaldiarekin eta Jose Inazio Jauregi *Barberito* zenari omenaldia; uztailan, umeentzat parkea eta mendi bizikleta irteera; irailean, mendi argazki lehiaketa eta erakusketa eta Europako Mendieta

irteera; urrian, Arrola astea eta Arrola eguna; azaroan, perretxiko astea; eta abenduan, mendi film saioa eta Aitzuri-Aketegira irteera.

79 mendi-federatu

473 bazkiderekin eta 79 federaturekin amaituko du urtea Arrolak. "Mendizaletasuna osotasunean ulertuta, natura eta kultura ondarearekiko konpromisoari eutsita, herriari zerbitzua eman nahi diogu -federatzeko aukera hilaren 23an, 18:00etatik 19:00era, Olaranen-".



EKAIN LARREA

Larreatarrak Amurrioren nagusi

Ekain eta Ibai Larrea Euskal Herriko txapeldun eta txapeldunorde izan dira, hurrenez hurren, domekan Amurrioren jokaturako lasterketan. Ekain Larreak txapela jantzi du, 16 minutu eta 45 segundoko denbora eginda; atzetik, segundo gutxira, anaia Ibai sartu da: 16 minutu eta 52 segundo. Biak ala biak "oso pozik" azaldu dira lortutako emaitzarekin.

Etorkinei harrera egingo diete bihar, inklusioa sustatzeko

Euskadi Lagunkoiaren baitan, inklusioa lantzen dihardu herritar talde batek. Hala, lanke-taren lehen fasean, immigrazioari heldu diote. Lantaldeak gaurkotu egin du harrera-plana eta abenduaren 28ko ohiko osoko bilkuran aurkeztuko du, onar dadin. Bestetik, bihar, 12:00etan, udal ordezkariak ongietorri ofiziala egingo diete azken bi urteetan etorri direnei. Aurrekua eta luntxa izango dira ondoren. Ekitaldiarekin batera, munduko mapa bat jarriko dute ikusgai, Antzuolara etorri direnen jatorrizko herrialdeak irudikatzen.

Urtarrilaren 13an, *Miñan* liburuaren aurkeztuko du Amets Arzallusek Torresoroan.

San Esteban krosa abenduaren 26an egingo dute

Abenduaren 26an, domeka, San Esteban krosa egingo dute, seigarrenez. Izen-ematea liburutegian eta udaletxean egin daiteke -hilaren 20a baino lehen egiten dutenak Ternuako zozketan sartuko dira-. Herriko txikitxoek 11:30ean abiatuko dira -300 metro-; 11:45ean, berriz, benjaminen, kimuen eta infantilen txanda izango da -500 metro-. Kadeteak eta helduak 12:00etan abiatuko dira -5 kilometro-.

Antzuolako Udalak jakinarazi du lasterketa behar bezala gauzatzeko boluntarioen beharra dagoela bidegurutzeetan egoteko, eta horretarako ere izena eman dezaketela herritarrek.

46 urteren ostean, Aketegi

1975eko abenduan Aitzurin jarritako inskripzioa berritu egingo du Arrola taldeak. Hala, Aketegi izena jarriko dute bertan. "Aspalditik dator eztabaida tontorraren benetako izena ote den Aitzuri. 2017ko ikerketa baten ondorioz, aurreko hamarkadetakoa ustea aldatu egin da. Era berean, Aizkorriko Aitzabal tontorrari jatorrizkoa den Aitzuri izena jarri zaio".



Arrolako mendizaleak 1975ean Aizkorri buzoia jarri zuteneko unean. ARROLA

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA


TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



GABONAK 2021

+ SANTAMASAK



Artisau azoka santamasetan

Bertso eta pilota jaialdiak Arrasaten

Hileko hirugarren zapatuko azoka Seber Altuben

ZAINZEKO ETA GOZATZEKO

Bereziak izango dira aurten ere
Gabonak; dena den, argiak eta
erosketa-bonuak ez dira faltako

IMANOL SORIANO



LASTER ZURE ESKURA OPEL ASTRA BERRIA !!!!!



OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA



San Andres Auzoa 10-D • Tel: 943 77 30 10

Din dan don... badatoz Gabonak

Argiteria, erakusleho dotoreak, kale-giroa, ilusioa... Gabonak ate joka ditugun seinale dira. Aurtengoak ere koronabirusak baldintzatuko ditu, baina bailarako udalek eta dendarien elkarteek Gabonetako kanpaina sustatzen dihardute herrietan

Maidar Arregi DEBAGOIENA

Debagoieneko herrietan dagoeneko Gabon giroa sumatzen hasia da. Izan ere, Gabonak ate-joka ditugun honetan, kaleak alaitzeko eta biziarazteko gogo nahiz ilusioa egon badago. Baita bertako komertzioak sustatzeko ere. Hala, herri gehientsuenek piztu dituzte Gabonetako argiak, eta urtarrilaren 7ra arte piztuta edukiko dituzte. Argiteriarekin batera, musika ere protagonista izango da Gabonetako egun horietan.

Erakusleho dotoreak

Giro horren indargarri dira egunotan komertzioek apaindu dituzten erakuslehoak. Erakusketek gain, lehiaketak ere antolatu dituzte herrietako udalek eta merkataritza elkarteek elkarlanean: Oñatin, 19 erakuslehoak parte hartu dute –gaur 18:00etan sari banaketa–; Arrasaten, 26k –hilaren 19a da botoa emateko azken eguna–; Bergaran, 10 erakuslehoak –bozkatzeko epea amaituta dago–; Aretxabaletan, lehiaketa irekia da eta

aretxabaleta.eus-en eman dezakete botoa herritarrek.

Eskoriatzan, berriz, Udalak material birziklatuekin egindako Gabonetako apaingarrien lehiaketa antolatu du. Apaingarriek jarrita egon beharko dute abenduaren 19ko 14:00etarako, eta Gabonetan egongo dira ikusgai, urtarrilaren 7ra arte. Epaimahaiak abenduaren 19 eta 21 bitartean baloratuko ditu herrigunean zehar ezarritako lan guztiak. Sariak abenduaren 22an jakinaraziko dituzte.

Tokiko erosketei balioa ematea

Tokiko erosketak sekula baino beharrezkoagoak diren honetan, bonuen laguntza eta bultzada oso garrantzitsua izan dela diote bailarako komertzioek. Aurtengo kanpaina iaz baino kopuru txikiagoa bideratu bada ere, komertzioei bultzada eman die bonuen kanpainak.

Arrasateko Zarraoa perfume eta osagarrien dendako hirugarren belaunaldikoa da Miren Gallastegi; 76 urte daramatza herritarren konfiantzazko saltoki izaten. Online erosketek min handia egin dietela aitortu du, eta erosketak bonuek arnasa hartzeko balio izan dutela dio. Gabonetako kanpaina betean, koronabirusaren egoerari lotuta dagoela salmentan ere badio: "Kanpainaren hasiera nahiko ona izan da; esango nuke herritarrek aurreratatu egin dituztela

**"EROSKETA BONUAK
BULTZADA APARTA
IZAN DIRA
KOMERTZIOENDAKO
AURTEN ERE"**

Gabonetako oparien erosketak. Egia da une honetan lasaiago gaudela, baina datorren astean, azken orduko erosketak medio, salmenta handitzea ere espero dugu. Agian, erosketak aurreratzearen erabakia COVID-19ak baldintzatu die herritarrei. Internet bidez erosketak asko egiten dira oraindik, eta herrian erosketen kontzientzia ez da horren handia; Gasteizerako joera dago. Baina bonuek asko lagundu dute; *goxoki* bat da herritarrendako eta edozein dendatara sartzera animatzen ditu".

Bergarako Jo'ka jantzi dendako Ainhoa Garitanok ere kanpaina "polita" izaten ari dela adierazi du: "Egia da COVID-19aren egoerak asko baldintzatu duela jendearen aldarrean. Egoera hobea zenean, urri-azaro hasieran, erosketak gehiago egiten ziren. Egia da orduan kaleratu zirela ere erosketak bonuak eta bultzada aparta izan dela. Orain, pixka bat gehiago frenatu da salmenta. Euri-jasek ere erosteko gogo mugatu egin dutela dirudi, eta abenduko zubian jendea kanpora joan dela ere sumatu dugu.

ALDEDI

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99
Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu



Oñatiko Kale Barrian erakusleihoak atonduta eta Gabonetako argiak piztuta. ITZIAR LARRAÑAGA

Aste honetan, aldiz, eguraldi-gatik-edo hasi da mugimendu pixka bat. Kanpainako azken txanpan sartuta gaude eta, ea herritarrak animatzen diren azken bultzadatxoa ematen". Bestalde, herrian erosteko kon-

tzientzia oraindik ere ez dela guztiz erroto dio Garaitanok, eta belaunaldi gazteek "online eta *fast fashion*-aren alde" egiten dutela dio "kantitatea hobetsita eta kalitatea baztertuta", hain zuzen ere.

Olentzero eta Mari Domingi
Aurten ere, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera koronabirusak baldintzatuta dator, baina, moldaketak moldaketa, oraingoz, eutsi egingo zaio. Bergaran, abenduaren 24ko iluntzean

azalduko dira kalean, baina ez goizean; Arrasaten, 18:15ean Musakolatik abiatuko dira; Oñatin, 12:30ean kalejira egingo dute; Aretxabaletan, berriz, 18:30ean kiroldegitik irtengo dira; Eskoriatzan 17:00etan Apotzagatik

jaitsiko dira; Antzuolan, berriz, 18:00etan San Josetik udaletxe-ko balkoira joango dira aurten, plazan geldialdia egin gabe. Aramaion 18:00etan Sastiñan, eta Elgetan, hilaren 23an, 18:30ean Salbadorretik jaitsiko dira.

Inbertsioa argiterian eta bonuetan

	Argiak	Bonuak
ARRASATE	38.000 €	30.000 €
BERGARA	20.825 €	30.000 €
OÑATI	17.424 €	30.000 €
ARETXABALETA	8.000 €	5.000 €
ESKORIATZA	5.298 €	40.000 €
ANTZUOLA	0	0
ARAMAIO	0	0
ELGETA	0	0
LEINTZ GATZAGA	0	0
GUZTIRA	89.547 €	135.000 €

OHARRA: BONUETAKO INBERTSIOA AZKEN KANPAINAKOA DA

ITURRIA: HERRIETAKO UDALAK

Abenduaren **17** a, Ostirala **18** a, larunbata

**GUZTIAREN
BEZa**
oparituko dizugu



EROSKI

ARRASATE



Musakola z/g ARRASATE,



Tel.: 943 71 10 30

Aurrezpen handiagoa bazkide izateagatik

*Euskadiko, Nafarroako, Errioxako eta Kantabriako EROSKI Hipermerkatuetan 90 €tik gorako erosketengatik

Kulian zure EROSKI club kartea pasatzen baduzu, egindako erosketaren BEZari dagokien zerbatekoa sartuko dizugu lotutako EROSKI club kontuan. Gaineraz sartuko zazu zerbatekoa: 250 €. Sultapenerik kanpo daude testu-liburuak, esperientza-sartak, telefono-kargak, E-pay (aurreordainketa) kartak, erabilerak digitalak, erretagatze eta instalatze zerbitzuak eta zigu bideko fidatzaile-sultapenerik produktuk. Kontuak gainerako baldintzak zure denda.



Artisau azoka egingo dute Seber Altube plazan

Abenduaren 22an, 23an eta 24an jarriko dute azoka, eta artisau guztiak debagoiendarrak izango dira. Bitxigintza, zeramika, ilustrazioak eta joskintza izango dira, besteak beste, protagonistak. COVIDa dela-eta, neurri zorrotzak hartuko dituzte

Ainhoa Arana ARRASATE

Urteroko hitzordu bilakatu da jada Gabonetako artisau azoka. Debagoieneko 10-12 artisau inguru bilduko dira abenduaren 22an, 23an eta 24an Seber Altube plazan. Mota guztietako lanak egongo dira eskuragai: ilustrazioak hainbat euskarritan, askotariko ehun-gaiak, bitxigintza estilo ugari, zeramika eta larrugintza.

Eskuarte artisau taldeak antolatutako azoka izango da, eta, elkarre horretako kide Edurne Erauskinek adierazi duenez, oso garrantzitsua da artisauen zat horrelako azokak antolatzea: "Horrelako azoketan egoten



lazko Gabonetako artisau azoka. ENEKO AZURMENDI

garen artisauak, normalean, ez dugu denda propiorik izaten, eta, ondorioz, beharrezkoak ditugu azokak egiten duguna herritarrei erakusteko". Gabonak garai bereziak izan ohi direla adierazi dute Eskuarte elkartekoek, eta herritarrak animatu nahi dituzte bertako produktuak erostera: "Eskuz eta mimo handiz egindako produktuak dira, eta apartekoak maite ditugunei detaileren bat oparitzeko Gabonetan. Aurten osasun egoera dela-eta neurri zorrotzak hartuko dituztela adierazi du Erauskinek: "Musukoarekin egongo gara artisau guztiok eta bakoitzak bere mahaia izango du, besteengandik distantziak mantenduz. Gela izango dugu postu bakoitzean nahi duenarentzat eskuragai, eta, hain zuzen ere, bezeroei ere musukoarekin etortzeko eskatzen diegu".

Zapatuan, baserritarren azoka

Bihar, hilak 18, Udalak antolatutako baserritarren azoka izango da eta artisau azokan egongo diren hainbat ere bertan izango dira, euren lanak erakutsi eta saltzeko asmoarekin.

Grabatu tailerra, bihar, Kulturaten

Artearen munduko teknika mota bat ikasteko aukera izango dute bertaratutakoek. Hain zuzen ere, Helena Azkarragaurizarrek gidatuko du tailerra eta 10 urtetik gorakoei bideratuta egongo da.

Azkarragaurizarrek adierazi duenez, aurrejakintzarik ez da behar tailerra egiteko. "Marrakiz bat kozinatzea bezala definituko nuke: irudi bat landuko dugu eta grabatu teknikaren bitartez eraldaketak izango direla ikusiko dugu". Tailerra debalde izango da, bihar, zapatua, 10:00etatik 12:00etara bitartean. Izen-ematea Whatsapp bidez egin behar da, 717 71 49 33 telefono zenbakian.



Zero kilometro:
batzen gaituen
distantzia.
2022 on!

Larraitz Garai Zapata
artista aretxabaletarrak
Goienarendako egindako irudia.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Bertso jaialdia domekan AED elkartearen eskutik

Ainhoa Arana ARRASATE

AED elkarteak urtero antolatzen duen hitzordua izaten da bertso jaialdia. Igandean, hilak 19, izango da, Amaia antzokian, eta herritarrei arratsalde entretenigarria pasarazten saiatuko dira bertsolariak. Lau bertsolarik parte hartuko dute jaialdian: Saioa Alkaiza, Ane Labaka, Anjel Mari Peñagarikano eta Igor Elortza. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Amaia Agirre -bertsolaria hau ere- izango da. 19:30ean hasiko da eta sarrerak aurrez hartu ahal izango dira, online plataforman edo Amaia antzokiko leihatilan.

AEDko ordezkariak adierazi dutenez, oso garrantzitsua da Arrasaten bertsolariaren inguruko hitzorduak antolatzea. "Arrasaten badago bertsozalea den jendea, eta, bertsolariari



Bertso jaialdia, iaz. GOIENA

dagokionez, bi hitzordu garrantzitsu soilik izaten ditugu herrian: San Joanetakoa eta Santamasetakoa. Hauek mantentzea oso garrantzitsua dela uste dugu", adierazi dute euskara elkarteko kideek.

Hasierako hitzordua, atzeratuta

Bertso eskolen sortzaileen omnia egitekoak ziren hasieran, baina, azken orduko gorabeherak medio, atzeratu egin behar izan dutela adierazi du Itxaro Artola AEDko kideak.

Pilota izango da Santamas eguneko hitzordu nagusia

Pilotazalez beteko da Uarkape pilotalekua Santamas egunean eta berezia izango da aurten atariko partidua

A.A. ARRASATE

Urteroko hitzordu bilakatu dira Santamas egunean Uarkape frontoian jokatzeko diren pilota partiduak. Atariko partiduan, Bengoetxea VI.a eta Larunbe, Arteagaren eta Aretxabaletaren aurka ikusteko aukera izango dute bertaratutakoek. Eskuz binakako txapelketako partidako protagonistak, berriz, Urrutikoetxea eta Aranguen, eta Elezkano eta Zabaleta izango dira.

Normalean eskuz binakako txapelketako partidak izaten badu ere protagonismoa, aurten atariko partiduak izango du xarma berezia; izan ere, Bengoetxea VI.aren azken pilotakadak ikusteko aukera izango dute Uarkape pilotalekura bertaratzen diren pilotazaleek. Aspeko pilotariari 2022an bukatuko zaio kontratua, eta bere

ibilbideko azken partidetakoa bat Arrasateko frontoian jokatuko du.

Asteazkenean arratsaldeko bostetan emango diote hasiera lehenengo partidari. Sarrerak aurrez erosi nahi izanez gero, Buenuena eta Monte tabernetan egongo dira eskuragai, 20 eurotan. Partida egunean ere sarrerak eskuratu ahal izango dira, Uarkapeko leihatilan, eta 25 euro ordaindu beharko dira.

Txapelketako finalak, atzeratuta

Gaur ziren jokatzekoak Santamasetako pilota txapelketako finalak, baina egungo osasun egoera dela eta, atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. David Martin klubeko lehendakariak azaldu duenez, urte zaila izan da eta entrenamendu asko ere ezin izan dituzte burutu.

Gabon hauetan oparitu esperientziak

<p>BDR aurpegi tratamendua 120 € Edertasun adimenduna</p> <p>Mima zaitez 90 € Gorputz osoko masaje lasagarria eta aurpegiko higieua</p> <p>Gorputz peelinga: C bitamina 60 € Esfoliazioa eta gorputzeko masajea</p>	<p>Lirain Ongizate masajea 90 € Gorputzeko masaje erlaxagarri berezia</p> <p>Oxilliance aurpegikoa 65 € Eman azalari distira eta bizitasuna</p> <p>Jong Bao masaje erlaxagarria 55 € 5 sentimenez gozatuz</p>
--	--

LIRAIN

ARRASATE | ESTETIKA

www.lirainarrasate.com

Bixente Ferrer, 1 - ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

Ez da osasun zentroa. RPS 104/20

Azokak emango dio aho-zaporea

Santamasetako feria handia bertan behera lagata, hileroko hirugarren zapatuko azoka egingo dute bihar goizean Seber Altube plazan, 09:00etatik 13:00etara



Bedoñako glutenik gabeko gozoak ere egongo dira salgai. GOIENA

Hasier Larrea ARRASATE

Esperantza bazegoen ere, iazko formula bera errepikatzen behartu du COVID-19ak. Hortaz, Santamas egunean ez da kaleak alderik alde zeharkatzen dituen tokiko produktuen azokarik egongo. Horren ordez, Seber Altuben egin ohi den hileroko hitzordua izango da bihar, hileko hirugarren zapatua den legez. Udaleko Tokiko Garapen Saila arduratzen da hura antolatzeaz, eta, Nerea Lazpiur teknikariak azaldu duenez, ekoizle txikiek aukera polita izango

dute mimoz egiten dituzten produktuak saltzeko. Kontrara, ez du ukatu "pena handia" dela santamasak ohi bezala ez ospatzea, Komisiñuak "lan handia" egiten duelako egitaraua antolatzeke eta herritarrek "ilusioz" hartzen dutelako osagai guztiak dauzkan feria berezi hori.

Ogia, barra-barra

Gutxienez, lehen sektorearen erakusleioa ez da ezerezean geratuko. Horren jakitun da Itziar Egidazu okina; pandemia aurretik, hiru urtez jarraian

hutsik egin gabe jartzen zuen postua, eta, iaz etorri ez bazen ere, aurten tokia izango du azokan. Arrasatearra izan arren, Nafarroako Lezaeta herrian bizi da okinaren ogibidea hautatu zuenetik. Senarrak eta seme-alabek laguntzen diote proiektuarekin, eta dio Mankomunitatearen laguntza baliagarria izan zitzaioela bideragarritasun-plana diseinatzeko garaian.

Herritarren aurrean aurkeztuko dituen ogiak martitzenean egiten hasi zen: "Eguazten arratsaldean eman nien forma, hu-

rrengo pausoa labera eramatea izanik; ogiak zenbat eta freskoago egon, orduan eta hobeto saltzen dira". Mota askotako ogiak egiten ditu, baina, bat nabarmentzearen, gaztaina-ogiaren alde jo du. Aurten hasi dira fruitu hori erabiltzen irina egiteko, "lehortzen ari diren gaztainondoei balioa emateko" asmoz. Arrautza frijituarekin edo gazta zati batekin probatzeko gonbidapena egin du Egidazuk.

Etkezuri, Errastiko eta Artazubiaga baserrietako ekoizleek ere ekarriko dute euren eskue-

kin egindako ogia, mahai bakar batean ez dadin falta abendu bukaerako otordu luzeetako oinarri-oinarrizko jakia.

Kosmetika naturala

Azala garbi eta ondo zainduta mantentzea hain garrantzitsu bilakatu den garaiotan, erosleak begirada zorroztu du produktuen letra txikia irakurtzeko orduan. Hargatik, osagai naturalekin egindako krema, ukendu, xaboi, besapeko, lubrifikatzaile edota hortzetako pasten katalogo zabala jarriko dute Gesalibar au-

Ostalaritza AURRERA!

EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIK GABE
Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatearra!

IRATI • TAUPA • BASATI • ILUNTZ
JAI ZALE • DAT • ETXOSTE



Felix Barcina artisaua, iazko azokan. GOIENA

zoan dagoen Udalatx Mintegiko artisauak.

Idurre Aranguren eta Nerea Altuna dira proiektu horren arduradunak, eta diote "asko" igarri dutela nola jendeak "ohitura osasuntsuagoen alde" jo duen pandemia hasi zenetik. Hileroko hirugarren zapatueta-ara etortzen diren erosleek ondo ezagutzen dituzte, hutsik egin gabe agertzen direlako plazan. Izan ere, landareekin jarduten dute urte osoan: "Orain, baina, ez da sasoirik onena, urtarrilean hasten dugulako udara begirako

ereinaldia; hala ere, pazko lorea, tipulina, baba beltza, ilarra eta berakatzatza landareak ekarriko ditugu".

Hangoak eta hemengoak

Arrasateko azoketako beste aurpegi ezagun bat Felix Barcina da. 82 urterekin, egurra egunerokoan erabilgarri diren zereginetarako tresna bilakatzen jarraitzen du, baita tresnok jendaurrean erakusten ere.

Eskuarteartean artisau taldeko kideek ere euren saltokia izango dute biharko azokan, baina

bertaratu ezingo denak izango du beste aukerarik herriko sortzaile horien eskuekin egindako Gabonetako opariren bat erosteko, hilaren 22an, 23an eta 24an egongo baitira Seber Altuben goiz eta arratsalde.

Glutenik gabeko gozoak ere ez dira faltako, Ainara Abasolok ekarriko baititu Bedoñatik.

Eta euren produktuak erakusteko kilometro batzuk egingo dituztenak ere azalduko dira; horien artean daude, esaterako, Nafarroa Behereko ahatekiak edota Bermeoko arrain kontserbak ekarriko dituzten produktoreak. Azkenik, Arabako lautada promozionatzeko asmoz etorriko den ADRL elkarteak ere ezin aipatu gabe utzi.

Aho-zapore gozoarekin geratu nahi duenak edo gertukoei sorpresaren bat eman nahi dienak badaki nora jo, beraz.

BAILARAKO ETA EUSKAL HERRIKO 21 EKOIZLEK JARRIKO DIOTE GATZA ZAPATU GOIZARI

Zapatuko azokako ekoizleak

Janari-postuak

- Elkorro baserriko Ane Gorosabel, barazkiekin.
- Etxezuri baserriko Arrate Elizburu, ogiarekin.
- Anuzitako Amparo eta Xabier, marmelada ekologikoarekin.
- Iñaki Meabe eta Leire Belaustegi, ardi-gazta eta euskal pasteekin.
- Errastiko baserriko Naiara Uriarte, ogi eta gozoekin.
- Mendibitzu baserriko Gorka Lete, haragi eta gaztarekin.
- Aranguren baserriko Lur Pagoaga, ardi-gaztarekin.
- Ortzazeko Chantal, ahatekiekin.
- Irene Souto eta Elena Fernandez, bizkotxo eta enpanadekin.
- Zumarragako Juanjo Garcia, eztiarekin.
- Bidasoro baserriko Juan Jose Iturbe eta Nagore Aranguena, gazta eta barazkiekin.
- Zumarragako Juanjo Garcia, eztiarekin.
- Ouissal Amalal arrasatearra, marokoar erako pastekin.
- Errastiko jatetxeko Ainara Abasolo, glutenik gabeko postreekin.
- Bermeoko Aitor Ugalde, arrain-kontserbekin.
- Artazubiaga baserriko Felix Etxagibel, baserriko produktuekin.
- Itziar Egidazu arrasatearra, ogiarekin.

Landare-postuak

- Udalatx Mintegiko Idurre Aranguren eta Nerea Altuna, landare, sendabelar eta kosmetiko naturalekin.

Artisau-postuak

- Felix Barcina, sukaldarako egurrezko tresnekin.
- Juan Mari Zuazubiskar, nekazaritza-tresnekin.
- Eskuarteartean elkarteko zortzi kide, bitxi, ilustrazio, ehun eta dekorazioko produktuekin.

CITROËN C5 AIRCROSS HYBRID

HIBRIDO ENTXUFAGARRIA

55 KM-ko AUTONOMIA
%100 MODU ELEKTRIKOAN

KARGA AZELERATUA
2 ORDU BAINO GUTXIAGOTAN



CITROËN C4 BERRIA

%100 ELEKTRIKOA
350 KM-rainoko AUTONOMIA

GASOLINA EDO DIESELA

CITROËN Ë-BERLINGO BERRIA

%100 ELEKTRIKOA
280 KM-rainoko AUTONOMIA



CHAPIME TAILERRAK
Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

SAN ANDRES AUZOA 5,
ARRASATE



Gabon zorientsuak!



Opari berezi eta desberdina nahi
gehien maite dituzunentzat?

AMAGARA

Estetika Zentroa



Erdiko kale 54, behea

20500 Arrasate

943 79 09 09

www.amagaraestetikazentroa.es

facebook.com/amagara

Gabonetan edertasuna oparitu



**Aurpegiko
hidratazioa**



**Gorputzeko
hidratazioa**



**Aurpegiko
laserra,
orbanen
aurkakoa**

*Gabon
zoriontsuak
eta urte berri on!*



**Betileen
liftinga**



**Bizkarreko
masajea**

Etxean zaintzeko
%20 baino gehiagoko
deskontuarekin



Sormenezko blokeoei buruz idatzi du Alfarok

Liburua gazteleraz dago eta 'Eres una escritora creativa y lo sabes' du izenburua. Emakumeei zuzenduta dagoela azaldu du Carlota Alfaro Ortégak. Aurretik idatzitako beste zazpi libururen egilea da; horietatik lau fikziozkoak dira

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

"Liburua zentratzen da idazketarekin lotutako blokeoetan, baina uste dut proposatutako hausnarketak eta teknikak baliagarriak direla edozein sormen prozesutan gertatzen diren blokeoei aurre egiteko. Autolaguntza liburu bat da, eta hiru zati ditu: sormen prozesua zer den azaltzen dut lehenengoan, blokeoen arrazoiak zeintzuk izaten diren azaltzen dut bigarrenean, eta, azkenik, halakoetan aplikatzeko teknikak ematen ditut", azaldu du Alfarok.

2017an hasi zen liburua idazten: "Blokeo egoera batean nengoan, eta nire bilaketak egin nituen. Teknika batzuei esker buelta eman nion egoerari, eta idatzi nuen *La reina tortuguera*, fikziozko nire laugarren eleberria. Gero bukatu dut liburu hau. Nire sormen blokeoetatik ikasitakoak jasotzen ditut bertan".

Blokeo egoeren zergatiak

Alfarok argi dauka sortzaileak atsedeneak ere behar dituela: "Emakumeak, gainera, ziklokoak gara; *on* zikloak eta *off* zikloak ditugu. Produktibitatearen gizarte honetan, ordea, gaizki ikusita dago geldirik egotea. Emankorra izan behar duzu une oro, eta ezintasun eta estres



Carlota Alfaro Ortega, kaleratu berri duen liburuarekin. L.Z.L.

maila handiak sortzen ditu horrek. Eragina du autoestimuan, jasaten dugun presio mailan, eta, azkenean, blokeoa dator. Berdin du alorra zein den. Edozein lanpostutan sortzen diren arazoei aurre egiteko irtenbideak topatu behar dira, eta sormena da aterabideak aurkitzeko bide nagusia. Blokeo egoerak gertatzea oso ohikoa da".

Blokeoei aurre egiteko teknikak

Barruko haurrarekin lan egitea, blokeatzen gaituzten beldurrak lantzea, ditugun uste mugatzai-

leak identifikatzea eta gainditzea... Barrura begirako lan handia egin behar dela dio Alfarok, eta bide horretan laguntzeko jarraibideak ematen ditu argitalpenaren azken atalean. "Goizeko errutinak, yoga-teknikak, idazketa automatikoa, baieztapen positiboak errepikatzea... proposatzen ditut. Nik beste egile batzuetatik ikasitako teknikak dira, eta niri on egin didate". Liburua udal liburutegian mailegatu daiteke, eta salgai dago egilearen blogean zein *Amazon* plataforman.

Hamahiru gazte daude izena emanda 'escape room' saiorako

Bihar, lau orduko saioa egingo dute ludotekan, eta kimikako askotariko probak gainditu beharko dituzte

L.Z.L. ELGETA

Kimika eta *escape room*-a uztartuko dituzte bihar ludotekan. Kimikarekin lotutako probak gainditu beharko dituzte parte-hartzaileek aurrera egiteko. Oraingoan, LH-6ko eta DBH-1eko hamahiru neska-mutiko daude izena emanda. Adin horretako elgetarrei zuzendutako ekintza da. 16:00etan hasiko da.

Ludotekatik jakinarazi dute, bestalde, gertu dituztela Olenzerori eta Mari Domingiri idatzeko gutun ereduak. Ludotekan jaso daitezke.



Laborategiko ontziak. G.W.R.H.

Bisita gidatua elizara bihar

Taldea 11:00etan elkartuko da sarreran. Nerea Villa izango da gidaria, eta XVI. mendeko erretaularen inguru azalpenak emango ditu, besteak beste. Izena emateko, infoturismo@debagoiena.eus helbidera idatzi behar da.

Koko-batzea: batzarra

Otsailaren 19an egitekoa den koko-batzearen inguruko batzar irekia deitu du Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak martitzenerako. Antolaketa lanekin jarraitzeko batzarra egingo dute, 19:00etan, Ozkarbin.

Iraitz Lazkano eta Aintzane Oiarbide 'Harira' saioan

Goiena telebistako *Harira* saioan izango dira, martitzenean, Iraitz Lazkano (EH Bildu) eta Aintzane Oiarbide (EAJ). Azaroaren 30ean egiteko zen saioa izango da, eta bertan, alkateak eta oposizioko bozeramaileak askotariko gaiak izango dituzte mahai gainean. Besteak beste, Udalaren egoera ekonomikoa, berriki egindako lanak, etorkizuneko

proiektuak... Herriz herriko mahai-inguru saioa da *Harira*, eta Eneko Azkarate eta Goiatz Arana kazetarien gidaritzapean egiten da. 21:00etan eta 23:00etan izango da ikusgai Goiena telebistan, martitzenean. Herriarrek ere izango dute gaiak edo galderak proposatzeko aukera. Posta elektronikoz helarazi daitezke galdera horiek: berriak@goiena.eus; eta baita ere Whatsapp edo Telegram bidez: 688 69 00 07. Ekarpinak egiteko azken eguna hilaren 19a da, domeka.

HARIRA ELGETA

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA'

IRAITZ LAZKANO (ALKATEA) ETA AINTZANE OIARBIDE (EAJ)
ABENDUAREN 21EAN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

BIDALI ZUK ERE GALDERA:

berriak@goiena.eus ☎ 688 69 00 07

EPEMUGA: ABENDUAK 19



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Jokin Bereziartua BERGARA

Larramendiko paper-industriako hondakinak tratatzeko plantaren proiektuak zeresan handia ematen jarraitzen du. Azken kapitulu aipagarriena da 200 langile inguru dituen Dikar kooperatibak ez duela Bergaran jarraituko. Gaur-gaurkoz proiektuak aurrera egingo duen edo ez ziurtasunik ez badago ere, enplegu galera esanguratsua eragin du proiektuak; izan ere, azken urte luzez Urarte kalean kokatuta egon den Dikar kooperatibak jarduera handitzeko lekualdaketa Larramendi industrialdera eginda aurreikusita bazuen ere, Mondragon taldeko kooperatibako bazkideek erabaki dute Bergara utzi eta Arrasatera joatea.

Badoaz, "ziurgabetasunagatik"

Abenduaren 9an egindako ezohiko batzarrean erabaki zuten Dikarreko bazkideek Larramendiko asmoa bertan behera uztea. "Bozketa hori Bergarako Larramendi industrialdean paper-industriako hondakinak tratatzeko planta bat kokatzeko aukerari buruzko ziurgabetasunak eragin du. Hondakinen plantak eragin duen ziurgabetasunarekin, bazkideek ez dute Larramendiko industrialdean inbertitzeko arriskurik hartu nahi izan, eta hurbiltasun-helburuak, gauzatzeepea eta erosketa-ahalmena betetzen zituen beste aukera bat atera zaigunean bozketa egin da, eta bazkideok ezohiko batzarrean erabaki dugu", azaldu du asteon, ohar bidez, kooperatibako gerente Esther Kortak.

Arrasatera lekualdatuko litzateke Dikar, eta honela azaldu du erabakia Kortak: "Hondakinen plantaren kokapenaren segurtasunik ezagatik eta Arrasateko aukerak hurbiltasun hori eta gauzatzeko denbora laburragoa ekartzen duenez, kooperatibako bazkideek, euren etorkizunaren erabakitzaile gisa, instalazioen aldaketa Arrasaten izango dela erabaki dute, eta ez Bergaran". GOIENAK jakin duenez, Arrasateko Garagartza auzora joango da Dikar,

DIKAR ARRASATEKO GARAGARTZA AUZORA JOANGO DA, FAGOR ETXETRESNAK ZEGOEN LEKURA



1980a ezkeroko dago Dikar kooperatiba Bergaran; irudian, gaur egun Urarte kalean duen lantokia, martitzenean. JONE OLABARRIA

Planta eraiki alaez, Dikar badoa

200 bat langile dituen Dikar kooperatibak erabaki du jarduera handitzeko lekualdaketa Larramendira beharrean Arrasatera egitea, plantaren proiektuak "ziurgabetasuna" eragin dielako; EH Bilduren eta EAJren arteko eztabaida are sutuago bihurtu du albiste horrek

Fagor Etxetresnak zegoen lekura. Aisialdirako armagintza arloko kooperatiba da; 1980an Bergaran sortu zen, Eibarko jatorria duten Mendi eta Jukar enpresak batu ostean, eta gaur egun Mondragon Taldearen barruan dago. Eskerrak eman nahi izan dizkiote Bergarari, "40 urteko lankidetzeta estuagatik".

EH Bildu, birplanteamendu eske EH Bilduren Udal Gobernuak dio "arrisku hori" aurreikusitako eta jakinarazi zuela: "Arrisku hori ikusi genuen enpresarekin izandako harremanetan, eta hala esan genien paper-industriaren hondakinen tratamendurako plantaren inguruan aritu diren eragileei -Eusko Jaurlaritzak, alderdiak eta enpresak-, haien ekimenean kontuan izan zezaten. Orain, konfirmatu egin da. Horrek eragingo du Bergaratik 200

lanpostu joatea. Valogreene enpresak ustez sortuko lituzkeen hamabost lanpostuak herriko kooperatibako 200 horien gainera jarri ditu Eusko Jaurlaritzak. Ez hori bakarrik, hondakinen planta bertan ezarriko balitz ez dago ziurtatzerik beste enpresa batzuk bertara joango direnik ere. Larramendiko poligonoa kondenuatu dute, noiz eta ehun ekonomikoa indartzea ezinbestekoa den garai honetan". Udal Gobernuak "eskaera zehatzak" egin dio Jaurlaritzari: "Aurrezkiutako proiektua arautegiarren kontrakoa izateaz gain,

EH BILDUREN UDAL GOBERNUAK ESKATU DIO JAURLARITZARI BERE JARRERA BIRPENTSA DEZALA

hasieratik eragin ditu zalantzak herriaren ingurumenaren ikuspegitik. Orain, ziurtatu da enplegua suntsitzeko bide ere izan daitekeela. Hori dela-eta, Jaurlaritzari eskatzen diogu aintzat har dezala enpleguaren eragingo duen kaltea, eta birpentsa dezala Valogreene Larramendin ezartzearen inguruan duen jarrera".

Horrez gain, Bergarako EH Bilduk Ingurumen Administrazioaren Legean interes publiko orokorreko figura "sortu" izana gaitzetsi du: "Bergararrok ez dugu nahi horrelako plantarik, ingurumenean eta osasunean kalteak eragiteko aukeraz gain, lanpostuak uxatuko dituenik. Gainera, hor dago *Tapia legea*, EAJk eta PSE-EEk onartu berri dutena eta edozein proiektu udalerrietan inposatzeko bidea zabaltzen duena. 200 langile badoaz, eta kea da ekarri nahi dutena.

Horrez gain, Bergarako EAJri eskatzen diogu bergararren interesen alde egiteko, tristura eragiten digulako herritarrek ahaztu eta beste batzuen interesen defentsan ikusteak. Eta behingoz, euren posizioa zein den azal dezatela. Guk argi eta garbi diogu bertan behera geratu behar dela. Zer dio Bergarako EAJk? Zer dio dagoeneko 200 lanpostu galdu ditugunean?".

EAJk alkateari leporatu dio

Bergarako EAJk oso bestelako irakurketa egiten du. EH Bilduren Udal Gobernuari ezker abertzaleak sortutako "alarma sozialarekin" bat egitea eta Udala "auzi judizial batera" eroatea leporatu dio, besteak beste: "Ezker abertzaleak alarma soziala sortu du; erraustegia deitzen dio Valogreene-n proiektuari, baina ondo baino hobeto daki ez dela hala, birziklatze-planta dela, eta alkateak berak eman ziola Bergaran ezartzeko baimena. Hain zuzen ere, gizarte-alarma hori sortu dutenek ziurgabetasun egoera eragin dute eta egoeraren ondorioz Bergarako enpresa bat Arrasatera omen doa".

Gainera, diote "beharrezkoa" dela Bergarako herri osoak jakitea Valogreeneko proiektua Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-inpaktuaren txostenaren zain dagoela: "Jaurlaritzak da txostena egiteko eskumena duena, eta oraindik ez da eman. Udal batek lizentzia ematen duenean, orduan eskatzen zaio Ingurumen Sailari nahitaezko txostena, eta sail hori izango da Valogreene Europako, Estatuko eta Euskadiko ingurumen-legeriarekin bat datorren eta proiektuan aldaketaren bat egin behar duen edo atzera egin beharko duen esango duena. Hala ere, Valogreeneri lizentzia eman ziona alkatea izan zen". Eta gaineratu dute: "Atez atekoarekin bezala, Europaren aurkako politika atzerakoia inposatu nahi dituzte".

Auzotarrak, taldeka antolatzen Eztabaida politikoaz harago, astez aste auzotarren kezka areagotzen doala dio San Juan au-

EZKER ABERTZALEAK SORTUTAKO "ALARMA SOZIALEAN" ERORI IZANA LEPORATU DIO EAJ-K ALKATEARI

"Gure interes bakarra bailara osoko bizilagunen osasuna bermatzea da"

PAUL AZNAL SAN JUAN AUZOKO BIZILAGUNA

Sekula aurreikusiko ez zuen bozeramaile lanetan ari da 2017ko martxoan ezker San Juanen bizi den Paul Aznal (Deba, 1990). Embalan enpresan lan egiteaz gain, abeltzaina ere bada, eta "kezka handiz" bizi du Larramendiko plantaren proiektua.

Hasteko eta behin, auzotarrek nola bizi duzue egoera?

Oso kezkatuta gaude. Gainera, *Tapia legea* onartu dute Legebiltzarrean... Hori bai, borrokan jarraitzeko indarrekin gaude.

Zein da auzotarrek helarazi nahi duzun mezu nagusia?

Hau ez dela San Juan, Basalگو, Ubera eta San Blas auzoko bizilagunen borroka bakarrik. Deba bailarako borroka izan behar duela azpimarratu nahi dugu, eta proiektua denon artean geratuko dugula.



P.A.

Gertakarien bilakaera nola baloratzen duzue?

Larramendin halakorik ezin zela egin esan ziguten hasieran. Demostratu dugu ez dela egia; borroka handia dago egiteko.

Gustura zaudete Udaletik jasotako tratua?

Hasierako erantzuna ez zitzaigun gustatu, gure sentsazioa izan zen sekulako informazio falta zegoela. Harremanak hobetzen joan dira; joan den astean, esaterako, bilera izan genuen alkatearekin, eta eskertzekoa izan zen. Gu beti egon gara elkarlanerako prest.

Jaurlaritzatik jasotako erantzunaz zer duzue esateko?

Eusko Jaurlaritzaren partetik ez dugu ezer onik jaso. Dena inposatu nahi digute, benetako azterketa bat egin gabe. Gainera, *Tapia legea* onartu dute euren interesak inposatzeko.

Herritarren babesik jaso duzue?

Herritarren erantzuna bikaina izan da orain arte. Eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen... la 5.000 alegazio jaso genuen, eta sinadurak ere bai, mahai-inguruan Seminarixoa bete egin genuen eta elkarretaratzea deitu genuenean San Martin plaza bete egin genuen, eguraldi oso txarra egin arren. Informazioa eskatzen ere jende asko etorri zaigu. Benetan eskertzeko jarrera izan da.

Interes politikoetatik kanpo mugituko zaretela diozue...

Gu ez gaude interes politikoei eta ekonomikoei begira. Gure asmo eta interes bakarra bailarako osasuna bermatzea da. Borroka honetarako jendearen laguntza beharko dugu, baina ez dugu uste interes politiko eta ekonomikoetarako lekurik dagoenik. Guretzat garrantzitsua bizilagunen osasuna da; horregatik, GuraSOS taldeko abokatuarekin ari gara lanean, bide honetan guk baino askoz gehiago dakitelako eta euren aldarrikapenekin bat egiten dugulako.

zoko bizilagun Paul Aznalek: "Herritarren talde bat sortzen ari gara erraustegiaren aurka borroka egiteko; lantaldeak sortzen hasita gaude eta forma ematen hasi gara. GuraSOS elkarteko abokatuarekin ere ari gara lanean, halako gaitan bide luzea eginda dutelako; eta berdin Carlos Arribas ekologistarekin eta beste hainbatekin".

Hurrengo ekintzez galdetuta, abenduaren 20rako elkarretaratzea deitu dutela ere adierazi du Aznalek; San Martin plazan, 19:30ean: "Bailara guztia deitu

nahi dugu, argi dugulako hau ez dela San Juan, Basalگو, Ubera edo San Blas auzoetako arazo edo Bergarakoa; Deba bailara osoari eragingo dio, eta, beraz, guztion artean geratu behar dugu". Aurrerago hitzaldi batzuk ere antolatu nahi dituzte.

**AUZOTARREK
"BAILARA OSOA"
DEITU NAHI DUTE
ELKARRETARATZERA,
ABENDUAREN 20RAKO**

Auzotarrek erregistratu dute mozioa

Abenduaren 20ko bilkuran landuko den mozioan, auzotarrek diote proiektuak "zalantza eta kezka larriak" piztu dituela bergararren. "Jardueraren benetako helburuaren iluntasunak eta bailarako biztanlearen osasunean eta ingurumen-segurtasunean izan ditzakeen eraginak zalantza eta kezka larriak piztu ditu.

Kezka horren adierazgarri dira jasotako ia 4.000 sinadura". Bost kezka dituzte, bereziki. Lehenik, diote instalazioaren jarduera nagusia "pirolisi bidezko tratamendu termikoa" dela: "Alegia, erraustegia"; bigarrenik, diote kaltzio karbonatoa berreskuratzea ez dela izango plantaren jarduera nagusia; hirugarrenik, salatu

dute proiektuaren zati garrantzitsuenak ezkatatu egin direla; laugarrenik, kritikatu dute Valogreeneren ingurumen azterketak akats larriak dituela, besteak beste, ez dituelako berotegi-efektuko gasen isuriak, baso-suteen arriskuak edo inpaktu akustiko, luminiko zein usainari dagozkionak aztertzen; eta bosgarrenik, nabarmendu dute enpresak ez duela inolako esperientziarik sektorean.



MIGUEL
ALTUNA
Lanbide
Heziketa

**LANERAKO FORMAZIOA
%100 DIRULAGUNTZAREKIN**

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
IKASTARoen IZENAK		ORDUAK	DATAK
UF0454	DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA, FABRIKAZIO MEKANIKORAKO CAD-CAM PROGRAMAK ERABILIZ	90	2022/02/21 2022/04/07
UF1129	MEKANIZAZIO-PROZESUEN KOSTUAK	40	2022/03/07 2022/03/29
UF0683	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA	30	2022/01/17 2022/02/01
UF0676	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKAK. Planoen Irakurketa	60	2022/02/07 2022/03/15
UF0678	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MAKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. KONBENTSIONALA	80	2022/03/21 2022/05/11
FMEH00750H	EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA M-COSMOS	30	2022/03/07 2022/03/22
MF0591_3	SISTEMA AUTOMATIKOAK FABRIKAZIO MEKANIKOAN	80	2022/03/21 2022/05/11
MF0106_3	PRODUKTUAK AUTOMATIZATZEA	210	2021/12/20 2022/05/23
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
OC21200149	AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK	60	2022/04/27 2022/05/31
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
UF0320	TESTU-TRATAMENDURAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK. WORD	30	2022/02/21 2022/03/10
UF0321	KALKULU-ORRIETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK. EXCEL	50	2022/03/14 2022/04/11
BESTELAKOAK - LANGABETUENTZAKO			
ELKAR-EKIN LANEAN	ONARRIZKO GIZARTE- ETA LAN-TREBAKUNTZAK	140	2022/01/17 2022/05/04
	BILTEGI KUDEAKETA	210	2022/01/31 2022/04/01



Agirrebidea,2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 89 92 72 - 688 81 50 70 - ikastaroak@maltuna.eus



Joserra Lasa, Itziar Azula, Izar Mendikute eta Ainhoa Narbaiza, astelehenean, Eusko Jaurlaritzaren atarian. SAN MARTIN ESKOLA

Eskolako jangela ere zero kilometrokoa izan dadin

San Martin eskolako eta Bergarako Ereindajaneke ordezkariek bilera izan dute asteen Jaurlaritzan, ikastetxeko jangela eredu aldatu eta tokiko zein sasoiko menuekin elikadura osasuntsua bultzatzeko helburuarekin; lehen bileratik pozik irten dira

Jokin Bereziartua BERGARA

San Martin eskolako, eskolako guraso elkarteko eta Bergarako Ereindajaneke ordezkariek bilera izan zuten astelehenean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariekin. Bergarako ikastetxe publikoan jangela eredu aldatzeko proiektuarekin lotuta egin zuten bilera, eskolako jangela eredu aldatu nahi duelako. Jangela eredu aldatzeko proiektuak tokiko eta sasoiko produktuz osatuko den menu bat eskaini ahal izatea du oinarri; hau da, tokiko eta sasoiko menuak eskaintzea, elikadura osasuntsua eta eskola komunitatearen parte-hartzea sustatzea dira helburuak, eta jangela eremu hezitzaile bihurtu.

San Martinen proiektua

Proposamena bera duela lauzapabost urtetik dago garatuta, baina aurten aurkeztu da Eusko Jaurlaritzan. Eskolako eta Ereindajaneke ordezkariekin araberako proiektua bera garatuta bazegoen

ere, orduko hartan ez ziren Jaurlaritzan aurkeztera iritsi. Aurten, aldiz, Ereindajaneke eskualdeko jangela tokiko produktuekin hornitzeko proiektua martxan jarri zuenean, San Martin ikastetxean ahalegina berrartzeko unea zela erabaki zuten.

Hala, eskualdeko jangela tokiko produktuekin hornitzeko dauden aukerak aztertu ditu Ereindajaneke, Debagoiena 2030 ekimenak bultzatuta. San Martin eskolako proiektuan kudeaketa bera nola egingo litzatekeen aztertu dute. "Guk egin duguna izan da bideragarritasun teknikoak garatu", dio Ereindajaneke Ainhoa Narbaizak. Eta gaineratu du: "Aztertu dugu zein produktu eta nola eskuratu daitezkeen baila-

PRODUKTUAK NOLA LORTU AZTERTU DUTE; BETIERE, GERTUKOENA IZAN BEHAR DUELA AINTZAT HARTUTA

ran, eta eskuratu ezin direnak nondik ekarri ahalko liratekeen, ahalik eta gertuenetik izan behar dela aintzat hartuta".

Lanean jarraitzeko konpromisoa

Pozik atera ziren eskolako eta Ereindajaneke kideak bileratik; 2000. urteko araudian jasotzen den jangelen kudeaketa zuzenaz gaindi, beste eredu bat martxan jarri ahal izateko lanean dihardutela jakinarazi zieten eta Jaurlaritzatik. Gainera, datozen hilabeteetan, zailtasun administratiboak lantzen jarraitzeko konpromisoa erakutsi zuten. Bestalde, proiektuari begira babes eta atxikimenduak landu dira Debagoieneko hainbat eragilerek eta erakunderekin: besteak beste, Eskolako Kontseilua, Debagoiena 2030, Bergarako Udala eta Deba Garaia Landa Garapen elkartea. Proiektuaren aurrera begirako lanetan, elkarlanerako oinarriak lantzen jarraitzea garrantzitsutzat jo dute sustatzaileek.

'COVID ziurtagiria' eskatzen hasi dira udal eraikinetan sartzeko

Agorrosinen eta Seminarixoen harreretako langileak eskuko irakurgailuekin ari dira sarbidea zaintzen

J.B. BERGARA

Abenduaren 15a ezker, *Europar Batasuneko COVID ziurtagiri digitala* eskatzen ari dira udal eraikinetan. Oraingoz, eskuko irakurgailuekin zaintzen dute sarrera harreretako langileek, baina aurrerago, leku horietan QRak irakurtzeko tresnak jartzea da asmoa. Agorrosinen eta Seminarixoen, esaterako, hasi dira ziurtagiria eskatzen.

Ardura, antolatzailearena

Udalak antolatutako kultura arloko ekimenetan, Udalaren

betebeharra izango da ziurtagiria eskatzea. Eta beste eragileren batek antolatzen duenean, antolatzailearena izango da betebehari. Labegarietako kiroldegian eta Agorrosinen, ohiko erabilerrako, paseko bidean jarriko dute QR irakurgailua. Partidak jokatzeko direnean, kirolariak tornuetatik sartuko dira; ikusleen sarreraren kudeaketa, aldiz, antolatzaileen ardura izango da. Gainontzeko kultura eta kirol eraikinetako ohiko jarduerarako ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori.

Napar feria egingo dute bihar goizean zehar San Antonion

Bihar goizean egingo dute San Antonioko Napar feria, 23. aldiz. Goiz osorako egitaraua prestatu dute: 10:45ean, txistulari banda eta erraldioen kalejira izango dituzte; 11:00etan, auzoko hildakoen omenezko meza ermitan; 11:30ean irekiko dute Nafarroako produktuak protagonista dituen azoka; eta ordu berean, Madura, Sagarpe, Umora ona,

Lasai toki, Gure Ametsa, Artatse, San Migelpe eta Altxasu elkarte gastronomikoen parte hartuko dute pintxo lehiaketan –ferian produkturen bat erostegatik bonua eskuratzen dutenek pintxo dastatzeko aukera izango dute–; 12:00etatik 14:00etara zezentxoak eta poneyak egingo dira, Bergarako Zezenak ganadutegiaren eskutik; eta 13:00etan, Alai abesbatzari omenaldia egingo diote, koruak 50 urte bete dituelako. Ondoren, emanaldia izango dute.

OHARRAK

Erretiratuen urteko azken elkarretaratzea

Erosteke ahalmena %3,1 murriztu zaiela salatuko dute, besteak beste. Hilaren 20an egingo dute urteko azken elkarretaratzea, txistor-janarekin. 2022ko lehena urtarrilaren 10ean izango da. Urtarrilaren 15ean, laugarren urteurrena ospatuko dute.

Elektronika festa kartzela zaharrean

Hiru disk-jockey –Paloma de Casso, Kipei eta Katza– eta bi bideo-jockey –Dodoma eta Guridi– gonbidatu dituzte bihar, hilak 18, gauerdian hasiko den festarako. Sarrera bost euro ordaindu beharko da.

Ikastaro bi asteburuan Elosuko abade-etxean

Zapatuan, *Sendabelarrak sukaldean* saioa izango dute, Gaizka Menaren eskutik (09:30). Domekan, berriz, ezkurari buruzko tailerra izango dute Asier Bastarrikaren eskutik (10:00).

Ipuin kontaketa Osintxuko liburutegian

Umeei zuzendutakoa da; abenduaren 13an izango da, 18:00etan.

Erraldioen kalejira, pandemiako neurriekin

Zapatuan izango da, hilak 18; San Martin plazatik, 18:00etan.

Kartzela zaharra bertsoz girotuko dute iluntzean

Urteroko hitzordua berreskuratuz, Bergarako Bertsolari Txapelketa hartuko du gaur gauean kartzela zaharrak, 22:30ean. Kopla Barik bertso eskolak antolatuta eta Ibon Leibar 'Txinbo' gai-jartzaile dutela, zortzi bertsolari arituko dira nor baino nor gehiago

Jone Olabarria BERGARA

Bergarako Bertsolari Txapelketaren ordezkari, *Lagun zaharrak eta doinu berriak* leloarekin egin zuten urteroko saioa kartzela zaharrean iaz, COVID-19ak baldintzatutako edizioan. Aurten, betiko hitzordua berreskuratu eta dagoeneko klasiko den kartzela zaharreko bertso saioa itzuliko da gaur gauean, 22:30ean hasita. Ikusle ugari erakartzen ditu urtero txapelketak, eta aurten ere hala izatea espero dute. Umoreak garrantzi berezia hartu ohi duen jaialdian, Ibon Leibar *Txinbo* arituko da gai-jartzaile lanetan, azken urteetan egin bezala.



2020an, Gari Lopez de Munaintzat izan zen amantala. GOIENA

Kopla Barik bertso eskolak antolatuta, saio bakarra egingo dute aurten: "Formatu asko izan ditu txapelketak; askotan, hainbat saiotan banatuta edo taldeka. Aurten baina, COVID-19a dela eta, ez da hain erraza saioa antolatzen, hortaz denak egun batean".

Hiru ariketa

Ohiko parte hartzearekin, Zortzi bertsolari arituko dira gaurko saioan: Iraitz Artola, Patxi Aiausti, Enaitz Alustiza, Mikel Mendaratz, Axier Arriaran *Txie*, Iñigo Arzelus, Jon Altuna *Oxan* eta Eñaut Uriarte.

Hasieran hiru ariketa egin beharko dituzte bertsolari guztiek: Ofiziotan, zortziko handian hiruna bertso, zortziko txikian hiruna bertso eta puntu erantzunak. Bi bertsolari onenak pasako dira buruz burukora.

Gaiak, umoretik

Txapelketak doako sarrera izango du, eta, gaiei dagokienez, "serioegiak" ez izaten ahaleginduko direla azaldu dute: "Umoretik joatea da helburua; ea lortzen dugun".

Musika Eskolako ikasleen kontzertua gaur pilotalekuan

Suzuki taldeko eta musika tailerreko ikasleek, trikiti, pandero eta dantza taldeetako ikasleek, hasiberrien abesbatzak eta haurren abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak eta Gazte Bandak hartuko dute parte gaurko kontzertuan. Pilotalekuan, 18:30ean hasita, Gabon kanta eta doinuak izango dira nagusi. Partaide izango dira aulkietan jarrita egongo dira, eserleku bat libre lagata tartean, eta publikoaren edukiera %50ekoa izango da. Familia bakoitzeko bi sarrera banatuko dituzte. Era berean, frontoian bi kaxa jarriko dituzte, Musika Eskolako gastuei aurre egiteko, dirua jasotzeko helburuarekin.

COVID-19a dela-eta, antolaketan "oso zaila" izan da: "Baina guztiak indarrarekin eta laguntzarekin aurrera aterako dugu". Urtero ikasle guztiak taula gainean elkartu eta elkarrekin aritzen dira. Aurten, ez egitea erabaki dugu; eszenatoki gainean 300 partaide elkartuko lirarete bestela.



MATRIKULAZIO ZERGAREN IGOERA AURREZTU EZAZU

Erreserbatu zure Peugeot autoa abenduan eta zirkulazio zerga oparituko dizugu

Peugeot turismoen gama termikoa. WLTP balioak: erregai-kontsumo (l/100 km) minimoa eta maximoa 4 eta 7 artean ziklo konbinatuan; CO₂ isurketa (g/km) minimoa eta maximoa 106 eta 158 artean ziklo konbinatuan.

*Deskontua PVPn -BEZa barne-, Peugeot berri bat erosteagatik, 2022ko urtarrilaren 1eko matrikulazio-zergaren baliokidea, aukeratutako bertsioaren oinarriko prezioaren gainean kalkulaturik -aukerarik gabe-. 2021eko abenduaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean Penintsulan eta Balear uharteetan Peugeot autoen gamako edozein eredu termikoren -500€ izan ezik- eskaera egin eta 2022an matrikulatzen den bezero partikularrentzat balio du. Eskaintzaren baldintzak kontsultatu www.peugeot.es webgunean.

PEUGEOT kontzesionarioa: Etormobil Bergara. Olabarrena auzoa, 2/g - 20570 Bergara. T. 943 10 17 17. Etormobil Eibar. Otaola etorbidea, 22 20600 Eibar. T. 943 20 09 66. Ziorla Autoak. Santa Maña, 19 - 48215 Iurreta-Durango. T. 946 21 71 30. www.etormobil.com



Izaro Elorza eta Iker Oñate, martitzen iluntzean egindako aurkezpenean. AINHOA ARANA

Udalak aplikazioa atera du eskuko telefonoetarako

'Oñatiko Udala' izeneko aplikazioa sortu dute sakelakoetarako, Udalak eskaintzen duen informazioa eskura izateko une oro eta udal tramiteak ere online egin ahal izateko. Herritarrek gehien erabiltzen dituzten atalak eskaintzen ditu

Oihana Elortza OÑATI

Une oro informatuta egoteko, herriko agenda kontsultatzeko, sarrerak online momentuan hartzeko eta udal tramiteak egiteko eskura dagoen tresna da, besteak beste, eskuko telefonoetarako sortutako *Oñatiko Udala* izeneko aplikazioa. Android eta IOS sistema operatiboetarako dago prest eta doakoa da, ez da ordaindu behar.

Gehien erabiltzen diren atalak

"Herritarren eta Udalaren arteko distantzia murriztea" du helburu Udal Gobernuak, Iker Oñate zinegotzi eta Komunikazio arduradunak azaldu duenez, eta hori horrela izateko beste tresna edo bide bat da aplikazio hori, haren esanetan. "Egun, ahalik eta klik gutxiengand heldu gura dugu helburura, eta hau beste urrats bat da. Oraindik ere pauso gutxiago eginda heldu zara gura duzun gune horretara. Gainera, herritarrek gehien erabiltzen dituzten atalak

eskaintzen ditu aplikazioak; erabilienak diren atalak modu errazean eskaini gura izan dugu".

Hain zuzen ere, *Albisteak* da ataletako bat: "Une oro informatuta egoteko, gardentasunarendako mesedegarria dena". Horrez gainera, herriantolatzen diren ekitaldien agenda ere kontsultatu ahal izango da, eta baita sarrerak momentuan hartu ere. "COVID garaiak azkartu egin du teknologiaren erabilera, sarrerak online erosteko aukera hedatu egin da, baita udal tramiteak Internet bidezko egitekoa ere, eta bide horretatik goaz. Udalak unean unean dauden tresnak eskaini behar ditu, herritarrek erabiltzen dituenak garatu eta herri-

**LEHENTASUNEZKO
GAIK AUKERATUZ,
HORIEN
JAKINARAZPENAK
JASOKO DIRA**

tarraren beharren arabera moldatu. Eta garai honek tramiteak online egiteko aukera azkartu du", dio Oñatek. Azken uneko edo ezusteko oharrak ere jaso ahal izango dira. Baita udal zerbitzuei buruzko informazioa ere; esate baterako, kiroldegiko, HAZeko, liburategiko eta Herribuseko ordutegia eta kokapena.

Jaisteko erraza

Maiatzean udal webgunea berri egin zuen Udalak, itxura aldatu eta sinplifikatze aldera. Oñatiko Udala aplikazioa bide horretatik doan beste urrats bat da. Android eta IOS sistema operatiboetarako prestatuta dago eta jaisteko oso erraza da. "Bakoitza bere eskuko telefonoko dendara sar daiteke eta hortik jaitsi aplikazioa, instalatu eta norberaren lehentasunezkoak diren gaiak aukeratu. Horien arabera jakinarazpenak jasoko ditu modu horretara", azaldu du alkateak, Izaro Elorzak.

3.200 sinadura pasa, Urbietan biribilgunerik ez egitea eskatzeko

Mozio bat aurkeztu dute Udalean Urbietakoek, eta Kanpizelai baserrikoek beste bat aurkeztu dute

O.E. OÑATI

Foru Aldundiak proiektua du aurkeztuta biribilgune bat egiteko Goribar auzoan, Urbietako baserriaren parean. Horko bizilagunek diote horrek euren osasuna kaltetuko duela, eta ia 3.300 sinadura bildu dituzte biribilgunea hor ez egitearen alde. "Etxeko sarrera-irteerak zapaltzen dizkigu, eta gu arriskuan jarri. Zirkulazioa handitu egingo da eta zaratak, bibrazioak eta kutsadura akustikoa ere jasan beharko ditugu". Aldundian eta Udalean entregatu dituzte astean sinadurak, baita alegazioak Aldundian eta mozio bat Udalean ere. Mozioan, beste irtenbide batzuk bilatzea eskatzen diote Udalari, "teknikoki posible" delako horrelako lana egiteko beste toki bat bilatzea Torreazo eta Urbietako arteko errepidean. "Alkateak esan zigun gu ginela kaltetuenak, eta eman digu babes pixka bat, baina ofizialki eskatu gura diogu Aldundira joateko eta eskaera egiteko." Posizionatzeko eskatu diote, eta Aldundiari eskatzeko "biribilgunea Torreazoko bidegurutzera mugitzea edo gune horretatik ahalik eta gertuen, baldin

eta biribilgunearen beharra ondorioztatuko balitz alternatiben ostean".

Auzo bereko Kanpizelai baserrikoek ere aurkeztu dute mozioa Udalean: "Puntu honetara helduta". Diote batutako sinadurak Udalari presionatzeko ere erabili dituztela eta jende asko "erabilia" sentitu dela hori ikusita. "Mozioan biribilgunea ez egitea edo beste batzuen lurretan egitea eskatzen ari dira, finean. Beraiei kendu eta beste batzuei jarri?". Diote Aldundiak biribilgune hori egitea erabaki duela "dagoen zirkulazioagatik eta guztion segurtasunagatik. Interes partikularrak interes orokorraren gainetik jartzea ez zaigu zilegi iruditzen, eta *nire etxe aurrean ez* mentalitatea ez da batere solidarioa. Jakin beza mundu guztiak biribilgunea Urbietatik gure lurretara mugitzea dela, azken finean, eskatu dutena: haiek edo gu. Orain arte, isilik egon gara, baina nahikoa da". Mozioan gai horren eskumena Aldundiarena dela diote, eta beraiei ere ez dutela biribilgunea euren parean gura.

Atzoko abenduko osoko bilkuran ziren aztertzeokoak mozioak.

3.700 euro zozketatuko ditu Txandak abenduan

Herriko denda eta komertzioen elkarteak, Txandak, aurtengo Gabonetako kanpaina jarri du martxan. Abenduaren 28ra bitartean erosketak Oñatiko dendetan egiten dituzten bezeroek 20, 50, 100, 200 eta 500 euroko erosketa-txartelen zozketan parte hartuko dute; guztira, 3.700 euro zozketatuko dituzte.

Zozketan parte hartzeko, erosleak bere erosketa txartelean izen-abizenak eta telefono zenbakia jarri eta papera zozketarako kutxan sartu baino ez du egin behar. Zozketa abenduaren 29an egingo dute eta sariak 31n jasoko dituzte. Sariak opari-kaxetan daude eta sarituek ausaz hartuko dituzte.

Ziurtagiria deskargatzeko laguntza Pake Leku

COVID ziurtagiria-ren eskaera eremu itxi gehiagotara hedatzea onartu dute, eta, eguen goiza ezker, kiroldegietara sartzeko, kultura espazioetan, ospitaleetara joateko eta espetxeetako bisitak egiteko ere behar da COVID ziurtagiria. Zubikoa kiroldegian eta kultura etxean ere hasi dira eskatzen.

Agiri digital hori eskuratzeko zailtasunak dituztenei laguntza eskaini diete Pake Leku erretiratuen elkarteak zuzendaritzako kideek. Eguaztenetan eta eguenean, goizez eta arratsaldean, Pake Leku elkartearen egongo dira batzordeko kide batzuk, ziurtagiri hori nola deskargatu ez dakienari laguntzen.



Kultura etxeko erakusketa gelan astelehenean egindako aurkezpena. JULEN IRIONDO

Emakumeen lana bistan uzten duten argazkiak

Joan den mendeko herriko emakumeak zeregin askotan jasotzen ditu Artixa elkartearen argazki erakusketak eta liburuak. Kultura etxean daude argazkiak ikusgai, hilaren 23ra arte, eta liburuak, berriz, Txokolateixan eta Turismo Bulegoan salgai

Oihana Elortza OÑATI

Baserriko lanetan, inude edo txokolatea egiten. Zeregin horietan eta beste askotan agertzen diren emakumeen argazki erakusketa prestatu du Artixa elkarteak. Aste honetan zabaldu du, kultura etxeko erakusketa gelan. Argazki horiek, gainera, liburu baten ere jaso ditu.

150 argazki

Guztira, 150 argazki osatutako erakusketa eta liburuak aurkeztu du Artixa elkarteak. Herritarren artean mezua zabaldua zuten argazki zaharrak izanez gero eurei uzteko, eskaneatu eta gordetzeko, eta jasotako horien artean egindako aukeraketa bat

da lan hori. 400 bat jaso dituzte, baina gaiari lotutakoak aukeratzeko hasi eta adierazgarrienak apartatu dituzte *Ikusezinak*. Oñatiko emakumeak lanean izeneko proiektu horretarako.

Joan den mendeko argazkiak dira denak. "Oso zaila da XIX. mendeko bat lortzea. Hemengo zaharrena 1910ekoa da; gehienak XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetakoa dira. Jaso ditugun guztiak eskaneatu eta gorde egin ditugu geure karpetetan eta artxiboan, bueltatu aurretik. Argazkiak, denborarekin, hondatu egiten dira, eta hori gertatu aurretik historiaren momentu horiek gordetzea zen gure asmoa. Liburuak ateratzeko

ideia gero izan genuen", azaldu du Artixa elkartearen Joxe Fernandezek.

Argazkilari alemaniarra

Zuri-beltzean daude argazki guztiak, edo ia guztiak. Bat, ordea, margotutako argazki bat da, kolorea du. "Araotzen ateratakoa da. Miren Uriarte auzotarra agertzen da bertan, iratara doala, gurdi gainean eserita, haurdun, bigarren semearen esperoan. Duela ez asko hil zen, eta hil baino aste pare bat lehenago eman zigun argazkia, azalpenak barne. Argazki hori sepia kolorekoa da, baina izkina batean olio margotutako zuhaitz bat ikusten da. Margotutako argazki

bat da; egun ere egiten da hori", azaldu zuen aurkezpenean Artixako kide eta argazkilari Joxefe Diaz de Tuestak. Argazki hori argazkilari aleman batek atera ziola zuen gogoan Uriartek, eta argazkilari ezagunen bat izango zen susmoa du Diaz de Tuestak. 1957ko da bitxikeria hori duen argazki hori. Bi urte geroago ateratako batean, Araozko Miel Txiki baserriko Ana Mari eta Paulo Zumalde aita-alabak agertzen dira burdinaren, alaba itaurrean eta aita atzean goldeari eusten dagoela. "Beraiek ez ziren konturatu norbaitek argazkia atera zienik, argazkilaria euren etxera joan eta eskura eman zien arte".

Herritar asko aurkezpenean

Herritarrek egindako, parte hartzen edo agertzen diren ekitaldietara beti joaten da jendea. Eta oraingoan ere horrela izan da. Joan zirenetako batzuk, gainera, argazki bilketan parte hartu zuten herritarrek ziren eta oso pozik zeuden ikusitakoaz eta Artixak egindako lanaz. "Izaba ikusi dut argazki baten eta ama beste baten. Polita da, bai", zioen batek.

Liburuaren aurkezpena eta erakusketaren inaugurazioa girotzeko, kantu batzuk jo zituen gitarrarekin elkartearen kide Xabier Ugartek, eta beste lau emakumek kantatu. *Konplize ditut denak* izan zen kantuetako bat, Uxue Alberdiren hitzei Mikel Markezek musika jarritako pieza ezaguna.

Astelehenean ireki zuten erakusketa eta egunero egongo da ikusgai, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara, abenduaren 23ra arte. Liburuak, berriz, Txokolateixan eta Turismo Bulegoan dago salgai, 15 eurotan.

Elkartasun azoka bihar eta herriko artisauena etzi

Gabonen bezpera egunetan antolatuta izan dizute elkartasun azoka eta artisauena, eta aurten ere horrela izango da. Bihar, zapatua, Elkar Hezi ikastetxeak antolatutako Taupadak elkartasun azoka egingo dute, goizez, herriko plazan, "inoiz baino arrazo gehiagorekin". Aurten, gainera, indar berezia jarriko dute zero kilometroko elkartasun proiektuetan, eta herrian errotuta eta txertatuta daudenez izango dute protagonismoa.

Domekan egingo den artisau azokan ere bertakoek, herrikoek, izango dute presentzia. Berdura plazan izango da, goizez, eta era askotako langintzak egongo dira postuetan.

Oraindik sarrera batzuk gelditzen dira 'Go!azen' ikusteko

Go!azen taldeak 8.0 kontzertua izeneko ikuskizuna eskainiko du bihar, zapatua, Santa Anan. Oraingoan ere bi emanaldi egingo dituzte: 17:00etarako ez da sarrerarik gelditzen, baina bai, ordea, 19:00etako saiorako. 6 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteendako sarrerak bakarrik dira, eta gehienez hiru hartu ahal izango ditu bakoitzak, Txokolateixan edo udal webgunean sartuta, 5,5 eurotan.

Lagunak kanta aurkeztu zuten udan, eta egiten ari diren kontzertu bira honetan pertsonaia ezagunak eta berriak elkarrekin aritzen dira hainbat denboralditako kantuak eskainiz. Bihar, Oñatin izango dira.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Manu Egaña eta Aitor Biain, parrokian, domekako kontzertua iragartzen. O.E.

Gabonetako kontzertuan, 'COVID ziurtagiria' behar

Musika bandak, banda gazteak eta Ganbara eta Hots abesbatzek hartuko dute parte domekan 19:00etan parrokian egingo den kontzertuan. Oholtza eta argi bereziak jarriko dituzte, edukiera erdia izango da eta 'COVID ziurtagiria' erakutsi beharko da

Oihana Elortza OÑATI

Joan den urtean ez zen egin, baina aurten bai, aurten egingo da Gabonetako kontzertua. Eta parrokian egingo da, ohikoa den moduan. Hala ere, egungo osasun egoera kontuan hartuta, neurri bereziak hartuko dituzte. Esaterako, 300 entzule baino ez dira sartuko, gonbidapenak aurrez hartu beharko dira eta COVID ziurtagiria erakutsi beharko da San Migel parrokiara sartzeko.

Zorrotz beteko dituzte neurriak

Berez, 600 lagun sartzen dira parrokian, baina erdira jaitsi dute edukiera domekan izango den kontzerturako. Gainera, eserlekuetan, soilik horrela adierazita dagoen tokietan eseri ahal izango da jendea, ez badira, behintzat, etxe berekoak. "Kultura bizirik dago, segurua da, baina zorrotzak izango gara neurriekin. Protokoloak jasotzen dituenak beteko ditugu. Parrokiako sarreretan egongo gara gela ematen eta ziurtagiria es-

katzen. Gomendagarria da horrekin batera nortasun agiria ere ekartzea. Eta gonbidapenak aurrez hartuko beharko dira, Txokolateixan", dio musika bandako eta Ganbara Abesbatzako zuzendari Aitor Biainek.

'Sagarra jo!' pieza

Oñati abesbatzak eta parrokiako koruak kontzertu horretan parte ez hartzea erabaki dute azken momentuan. Hala, musika bandaz gain, gazteen bandak, Ganbara abesbatzak eta Hots abesbatzak hartuko dute parte. 140 bat lagun, guztira; horietatik 80 bat musikariak eta beste 60 bat abesbatzako kideak. "Bakoitzak bere zatitxoia izango du, bere piezak joko ditu. Eta amaie-

**JASOTAKO DIRUA
IZANGO DA GINEAN
EGITEN ARI DIREN
OÑATI IKASTETXEA
AMAITZEKO**

ran, Gabonetako azken kantak jo aurretik, denok jo eta abes-tuko dugu elkarrekin Kalakan taldearen *Sagarra jo!* pieza. Ikusgarria izango da", aurreratu du Biainek.

Musikariak eta abesbatzako kideak oholtza gainean eta harmailtan egongo dira; horiek guztiak kokatzeko alboetan jarriko dituzte lehen bost ilaretako bankuak. Argiztapena ere berezia izango du eta aurkezlea ere berria: urteetan Pello Zabalak egin duen lana "eskertuta erabat", Miren Arregik egingo du.

Elkartasun kontzertua

Kontzertu hori elkartasun kontzertua ere bada. Jasoko duten dirua Oñatiko misio taldeak Ginean duen proiekturako izango da. "Oñati izena daraman ikastetxe bat egiteko da dirua. Ikasle batzuk ari dira dagoeneko han ikasten, eta emakumeak ahalduzko espazio bat eta jangela ere egin gura ditugu", dio misio taldeko Manu Egañak.

Oñatiko eta Bergarako pilotariak Gipuzkoako finalean, Zubikoan

Uxue Oses eta Madalen Etxegarai lehiatuko dira Maddi Berrocalen eta Arrate Bergararen kontra gaur, 19:00etan

O.E. OÑATI

Emakumezkoen pilota txapelketako Gipuzkoako finala jokatuko dute gaur, egubakoitza, Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan. Eta etxekoa izango da bikoteetako bat; bestea, berriz, Bergarakoa. Uxue Oses eta Madalen Etxegarai oñatiarrek eta Bergarako Maddi Berrocalek eta Arrate Bergarak jokatuko dute, elkarren kontra, finala. COVID ziurtagiria beharko da pilotalekura sartzeko.

Pilotariak maila handikoak direla ikusita, emozioz beteriko

finala izango den susmoa dute Aloña Mendi pilota elkartekoek. "Ikusle moduan gozatzeko partidua izango dela uste dut. Herri gutxitan daude maila honetan ari diren emakumezko pilotari bikoteak. Aurreko urteetan egingo lanaren emaitza da hori, eta poztekoa, jakina. Txapelketa askotan parte hartu izan dute bikote batek zein besteak, kanpoan sarritan, eta ez da askotan izaten etxekoak etxean jokatzen ikusteko aukera, eta gaurkoa bada, bai", dio pilota elkarteko Josu Osak.

Datorren urteko kirol txartela berritzeko epea zabalik dago

Abonuen egitura, bakoitzaren prezioa eta hobarien gaineko informazioa etxez etxe banatuko du Udalak

O.E. OÑATI

Dagoeneko zabalik dago 2022ko kirol txartela berritzeko eta hobariak eskatzeko epea. Kiroldegiko harreran edo <https://zubikoakiroldegia.oñati.eus> helbidean eskura daitezke abonatuak altak eta bajak egiteko orriak. Edozein zalantza izanez gero, dena dela, Zubikoara joanda edo zubikoa@oinati.eus helbidera mezua bidalita egin daiteke kontsulta. Datorren urterako kirol txartelean aldaketarik egin gura ez duenari automatikoki aplikatuko zaio dagokion tasa.

Orain arteko abonamenduen egitura aldatu egin dute, "egungo beharretara eta zerbitzuaren iraunkortasunera egokituz", eta hobari-baremo bat ere jarri dute. Urteko kirol tasaren hobariak etxe unitatearen diru sarreraren eta bizi diren kideen arabera izango da; familia ugariendako hobari taula, gainera, zabaldu egingo dute.

Horri guztiari buruzko informazioa –abonamenduen eta hobarien taulak barne– batzen duen gutuna banatuko du Udalak, etxez etxe, datozen egunetan.

60 bat golf jokalarik hartuko dute parte biharko txapelketan

Golf txapelketa jokatuko da bihar, zapatua, Irelore zelaian. 60 bat golfari lehiatuko dira, guztira. Horietatik 23 gazteen mailan lehiatuko dira, eta denak dira oñatiarrak; arratsaldean egingo dute euren jarduna. Goizean, berriz, Euskal Herri osotik etorritakoak ibiliko dira jokoan. Bi txanda izango dituzte, 09:00etan eta 11:30ean.

Areto futboleko entrenamenduak eta partiduak, etenda

COVID-19 kasu positiboak izan dira Aloña Mendiko areto futboleko taldekideen artean, eta bertan behera utzi dituzte partiduak zein entrenamenduak. Maila guztietakoak eten dira, infantil mailako bi taldeenak zein talde nagusiarenak. Positibo eman dutenak ondo eta konfinatuta daudela adierazi du areto futboleko sailak.

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez goienakide!

**goiena[“]
kide**



www.goiena.eus/kidesk





Arantzazulab-en izan diren Oñatiko Kirol Solasaldietan euren alea jarri duten partaideak, talde-argazkian. ANDER MONEDERO

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Oñatiko Kirol Sarien ordez Oñatiko Kirol Solasaldiak egin dituzte bigarren urtez jarraian. Arantzazulab-en egin dute jardunaldia oraingoan, eta, Aratz Losadak gidatuta, hiru solasaldi izan dira. Lehenengo bi mahai-inguruak herri mailako ikuspuntutik jorratu dituzte, bakarka zein taldeka aritzen diren kirolariek egungo egoera nola bizi duten jakin nahian.

Profesionalen betaurrekoak

Azken berbardian, kirolaren begirada orokor bat partekatu dute, nork bere esparrutik, Alberto Garai kirol medikuak, Ilargi Gorostegi jarduera fisikoko irakasle eta doktoreak eta Aritz Olagoi kirol psikologoak.

Lehen interbentzioetan, 2020ko udaberrira egin dute atzera. Garaik gogoan du konfinamendu ostean nola bilakatu ziren "autobide" mendi-bideak eta bidegorriak, eta, era berean, zeinen "desanimatuta" zeuden kirolari federatuak: "Gu, gehienbat, kirolari horiei osasun azterketak egitetik bizi gara, eta, ondorioz, lan gutxi eduki genuen lehiaketak bere onera itzuli ziren arte. Orduan, erabaki genuen gelak aireztatzea eta kirolariek esfortzu probak maskara gabe egitea, beste modura oso baldintzatuta zeudelako".

Izan ere, jakina da proba horietan malgutasun eta mugikortasun ariketak, korrikaldiak eta bizikleta saioak egiterakoan

Pandemiaren eraginak berbagai bailarako kirol eragile ugariren ahotan

Joan den zapatuko Oñatiko Kirol Solasaldietan agerian geratu zen albokalte ugari sortu dituela pandemiak herri-mailako kirolariengan. Goiena Telebistak emitituko ditu gaur, 21:00etan hasita, profil ezberdinetako eragileekin osatutako hiru solasaldiak

Ze ondorio atera dituzue pandemiatik?




ALBERTO GARAI
ATHLON-EKO KIROL MEDIKUA

"COVID-19ak bihotzari ere egin diezaioke eraso, arritmiak eta epe luzera ere tronboak sor ditzakeelako. Esfortzu probetatik ondorioztatu dugu arritmiak ia bikoiztu egin direla, nahiz eta ez nagoen guztiz ziur kasu guztiak koronabirusagatik izan direnik: positibo izandakoena artean, seguru".



ILARGI GOROSTEGI
JARDUERA FISIKOKO IRAKASLEA

"Unibertsitateko kirol gradua oso praktikoa izan ohi da, baina, segurtasunagatik, galdu egin da ikasle izatearen xarma, ikasleen arteko harremana jaitsi egin delako. Motibazio falta sumatzen dut haiengan, hein handi batean, aurrez aurrekoak online moduarekin ordezkatu direlako".



ARITZ OLAGOI
KIROL PSIKOLOGOA

"Egunez egun generaman abiadura geratu behar izan genuen bapatean. Gehienok ispilaren aurrean jarri gara, modu batean edo bestean. Arretaz eta denboraz begiratzean, gustuko eta gustuko ez ditugunak bistaratu dira; azken horretan, beldurrak eta antsietateak, batik bat".

lehenago iristen dela nekea maskarekin, tolerantzia eta erresistentzia gutxiago duelako kirolariak.

Gorostegik, eskolak emateaz gain, ikerketak egiten ditu, hala nola eskizofrenia eta trastorno bipolarra dutenekin: "Farmakoaren eraginez, sindrome metabolikoak, obesitatea eta nekea pairatzen dute, eta guk frogatu nahi duguna da jarduera fisikoen efektu negatibo horiek atzeratu edo gutxitzen dituztela". Horretarako metodoa esfortzu probak egitea da, baina osasun larrialdian zehar zaildu egin zaie ikerketa, jarduera fisiko bat toki itxi batean egitearen beldurragatik".

Bideo deien bidezko kontsultak egitera pasa zen, aldiz, Olagoi: "Bezera gehiago etorri zaizkit gomendio eske, bai gertukoak eta baita urrunagokoak ere". Al-daketa nagusia kirolari nerabeetan igarri duela dio; egunerokoan "arazorik gabe" ibilita ere kurtso berriarekin lehiaketetara itzultzeak "askori antsietatea" ekarri diela nabarmendu du.

Kirola, "botikarik onena"

"Pandemiak kirol arloan erakutsi du ongizate psikologikoak fisikoak bezain besteko garrantzia daukala", gaineratu du Olagoi. Ildo beretik, goi errendimenduko kirolariei "disfrutatze" gomendatu die, arazoak "geure burua gehiegi estutzen dugunean" datozela iritzita.

Garaik, berriz, iraupen luzeko eta intentsitate handiko esfortzuak egiten dituztenei osasun azterketak "urtero" egiteko aholkua egin die, Espainiako Kardiologia Erakundearen jarraibideak oinarri hartuta. Bestalde, kirola osasuntsu mantentzeko egiten duten 35 urtetik gorakoei azterketok "bizpahiru urtean behin" egitera deitu ditu.

Bi hizlari horiek bat egin dute Ilargi Gorostegik botatutako esaldiarekin: "Jarduera fisikoa da osasunerako tratamendu ez farmakologiko indartsuena; beraz, praktikatu. Egunerokoak mugak jartzen dizkigun arren, gizakia mugitzeko dago egina".

KIROLARIEK OSASUN MENTALA ZAINTEA LEHENETSI BEHAR DELA IKUSI DUTE PANDEMIAREKIN

Selekzioarekin korrika egiteari uko egin diote

MENDI LASTERKETA korrikalari gehienek ez dute berriro korrika egingo euskal selekzioaren elastikoarekin, zuzendaritza berriak hartu dituen erabakiak "onartezinak" direla adierazita. Gaineratu dute euskal selekzioa orain arte izan dena izatea nahi dutela


Imanol Beloki DEBAGOIENA

Mendi lasterketako euskal selekzioako korrikalariak argitaratu duten oharren arabera, uko egin diote selekzioarekin korrika egiteari. Euskal Mendizale Federazioko zuzendaritza berriak hartu dituen erabakiak "desegokiak" direla iruditu zaie, eta horrenbeste urtean sortutako proiektua "hankaz gora" jarzea egotzi diote, 2021eko mendi lasterketako euskal selekzioako korrikalari guztiek sinatu duten oharrean adierazten den moduan.

Asier Alonso, Iñigo Alzola, Xabi Lete, Iban Letamendi, Aritz Kortabarria, Jokin Garay, Oihana Kortazar eta Ainara Uribarri korrikalari debagoiendarrak dira historikoki selekzioan aritu direnak; aurten, baina, Alzola eta Lete izan dira lehiatzen bakarrik.

Arazoaren jatorria eta ondorioa


2021eko otsailean, Euskal Mendi Federazioaren hauteskundeak egin zituzten, eta zuzendaritza berria eratu zen, talde bakarra aurkeztuta. Hasieran, gauzak ondo bidean, lantalde berak funtzionatu zuen, baina txapelketak iristear zeudela gorabeherak iritsi zirela adierazi du zuzendaritza berriarekin izandako desadostasunen ondorioz



Euskal selekzioako korrikalariak, 2019ko Zegama-Aizkorrin, irten aurretik. SERGI COLOME


ardurak utzi zituen Iñaki Uribe-Etxeberriak, mendi lasterketako euskal selekzioako arduradunak: "Zenbait txapelketarako dirurik ez zela egongo esan ziguten, Munduko Kopan ezingo genuela parte hartu... Ez genuen ulertzen, aurrekontu horiek aurreko zuzendaritzak onartutakoak zirelako eta korrikalariarekin konpromisoak hartuta genituelako. Hala ere, aurrera jarraitu genuen, baina urte amaieran Euskal Mendizale Federaziotik behar bat sortu zen, korrikalariak behar

zituztelako Madeiran (Portugal) izango zen proba baterako. Ez genuela ondo ikusten esan genien, baina lau-bost korrikalari hautatu zituzten ausaz, eta hara eraman, gure erabakia kontuan izan gabe. Orduan utzi nuen nik selekzioa. Berdina gertatu zen Italiako Munduko Kopako azken lasterketan... Joan den astean, berriz, orain arte hautatzaile lanetan aritu direnak kaleratu egin zituzten, eta horregatik egin diote uko korrikalariak euskal selekzioako elastikoa janzteari".




IÑIGO ALZOLA
KORRIKALARIA

"Zuzendaritzaren jokabideak orain arteko proiektua ezagutu gabekoak izan dira. Proiektuan sinetsi behar dute, ondo bidean joateko".



ASIER ALONSO
KORRIKALARIA

"Ez dakit jakitun diren hartutako erabakiek ekar ditzaketen ondorioez. Talde honek aurrera egingo du, talde moduan jokatzeko duen gaitasunagatik".



IBAN LETAMENDI
KORRIKALARIA

"Ez da samurra, baina gauzak ezin dira egin ezjakintasunetik eta, horren ondorioz, hogeituro urteko lan polita pikutara bidali".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

O. ERREGION. GIZ.

Mondra-Bergara

Zap. 16:30. Mojategi.

Touring-UDA

Zap. 16:30. Fanderia.

Aloña Mendi-Oiartzun

Dom. 16:30. Azkoagain.

O. ERREGION. EMAK.

L.Arizmendi-Lagun Onak

Zap. 13:00. Mojategi.

Urnieta-Bergara

Zap. 15:30. Urnieta.

GORENGO MAILA

Mondra-Beasain

Dom. 16:00. Mojategi.

UDA: Atsedendaldia.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Gernika-Eskoriatza

Zap. 17:00. Santanape.

Mondrate: Atsedendaldia

EUSKADIKO TXAPELKE.

Pijaios-Aretxabaleta

Zap. 17:00. Salburua.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAP. GIZ.

Galdakao-Mugarri.I

Dom. 12:00. Urreta.

F. Industrial-Usurbil

Dom. 12:10. Zubikoa.

EUSK. TXAP. EMAK

Cons. Aloña-Egia

Petritegi

Zap. 16:00. Isala Kale.

GIPUZKOAKO TXAP.

Soraluce BKE:

Atsedendaldia

SASKIBALOA

EBA

Baskonia-MU

Zap. 18:00. BAHK



Jokalaria baloiairekin. I.S.

LEHENENGO MAILA

Atletico San Seb.-MU

Zap. 18:00. Aiete.

EMAKUMEZKO BIG.

Antigua Luberrri-MU

Dom. 12:00. Gaska.

GIP. SENIOR. GIZ.

Bergara Sor.-Inter.

Zap. 12:00. Labegarieta.

GIP. SENIOR. EMAK

Tecnun-Bergara S.

Zap. 19:00. Tecnun.

Saski Goi.-Graficas

Ost. 19:00. M. Muñoz.

ERRUGBIA

EUSKADIKO T. GIZ

Elorrio-Kanp. ART

Zap. N/D. Elorrio.

EUSKADIKO T. EMAK.

Unica-Arrasate/Ore

Zehaztu gabe.

GOI MAILA

Peyrehorade - Biarritz

Dom. 11:00etan

Mojategi.

La Unica-Bera Bera

Domekan, 12:00etan

Mojategi.

FUTBOLA Mondraren eta Bergararen arteko derbia Mojategin

Gizonezkoen Ohorezko Erregion Mailako futboleko, Mondra eta Bergara taldeen arteko derbia izango da zapatuan, 16:30ean, Arrasateko Mojategi futbol zelaietan. Arrasatearrek joan den asteburuan aretxabaletarren aurkako derbia irabazi zuten, Ibarra futbol zelaietan, eta bigarren derbia izango dute segidan, animoak gorenean dituztela.



Mondraren eta Bergararen artekoa. I.S.

ERRUGBIA Goi mailako emakumezkoen partiduak domekan

Emakumezkoen goi mailako errugbiaz gozatu ahal izango dute zaleek domekan honetan Arrasaten, Mojategin. Izan ere, Euro Challenge txapelketako finala jokatu dute La Unica eta Bera Berak (12:00). Lehena-go, (11:00) txapelketako hirugarren postuagatik lehiatuko dira Peyrehorade-Tartas-Chalose eta Biarritz-Hasparren taldeak.



La Unicako jokalaria bat baloiairekin. EUS

'Tutti' barik izan arren, kontzertua egingo dute

Bergarako Musika Bandak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orfeoiak eta Orfeoi Gazteak urtero egiten duten Gabonetako emanaldia egingo dute bihar, zapatua, 20:30ean, pilotalekuan. Sarrerak 8 eurotan daude salgai

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Urteetako ohitura berreskuratu, eta bihar, zapatua, Gabonetako kontzertua egingo dute berriro ere Bergaran. Osasun egoerak hala baldintzatuta, iaz ez zuten emanaldirik egin; baina aurten, indarberrituta eta gogotsu datoz Bergarako musikariak. 41. Gabonetako kontzertua egingo dute Musika Bandak, Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta abesbatzak eta Orfeoiak, bai nagusiek eta baita gaztetxoek ere. Pena barkarra dute: ezin izango dutela emanaldi amaieran egin izan duten *tutti*-rik egin.

"Horrez gain, edukiera mugatua izango du kontzertuak. Osasun egoera larria da, eta horregatik hartu dugu erabakia", azaldu du Bandako eta Orkestrako zuzendari Enrike Txurrukak.

Mimoz prestatutako lana

Lau zati izango ditu emanaldiak. Talde bakoitzak ordu laurden izango du -Orfeoiak eta Orfeoi Gazteak elkarrekin abestuko dute-. "Mimoz prestatu dugu saioa. Frontoia bete egiten da Gabonetako emanaldian, eta polita izaten da. Obra esanguratsuak muntatzeko aukera eskaintzen du emanaldiak", azaldu du Txurrukak.



2019ko Bergarako Gabonetako kontzertua. ANJEL EZKURRA

Gabonetako kontzertuan gonbidatuak egon izan dira; hala, bihar, Idoia Asurmendi aramaioarra izango da gonbidatu berezia. Orkestra Sinfonikoarekin *Viejo refranero* abestia eskainiko du. Aramaioarrak sortutako lana da, eta Fernando Velazquez konpositore ezagunak orkestrarako moldatua. "Plazera izango da Idoiarekin oholztan egotea", dio zuzendariak. *Jupiter*, *Soka* eta *Adeste Fideles* joko ditu Musika Bandak: "Beti bezala, klasikoa, modernoa eta Gabon giroko abestia aukeratu ditugu".

Orkestra Sinfonikoak, aldiz, *8. dantza eslaviarra*, *Viejo refranero* eta *Hator hator*.

Samur entzutekoak

Aitor Biain Bidarteren agindutara abestuko dute Orfeoiak eta Orfeoi Gazteak -gazteen zuzendaria Aitor Garitano da-. "Urtean zehar egiten ditugun emanaldietan obra akademikoagoak abesten ditugu. Biharko emanaldirako, berriz, samur entzuteko abestiak, dantzagarriak aukeratu ditugu", dio Biainek. *Euritan dantzan*, *Ritmo*, *Oye*

Bailarako gainerako herrietan

Arrasaten eta Oñatin Gabonetako emanaldiak egingo dituzte; Eskoriatzan eta Bergaran, aldiz, musika eskolako emanaldiak izango dira.

Arrasate

• **Abenduaren 19an, domeka.** Txorbela otxoteak San Frantzisko elizan abestuko du, 12.30ean (Ikus 12. orria).

Oñati

• **Abenduaren 19an, domeka.** *Hator hator* Gabonetako kontzertua: Musika Banda, Ganbara abesbatza, Hots abesbatza, Oñati abesbatza eta Oñatiko parrokiako abesbatza. 19:00etan izango da, San Migel parrokian (Ikus 36. orria).

Eskoriatza

• **Abenduaren 18an, zapatua.** Musika Eskolako Gabonetako kontzertua, Manuel Muñoz kiroldegian, 18:30ean.

Bergara

• **Abenduaren 17an, egubakoitza.** Musika Eskolako Gabonetako kontzertua, udal pilotalekuan, 18:30ean.

como va eta *Walking on Sunshine* kantatuko dituzte. Bi lagun-tzaile izango dituzte: Eli Mendiaraz pianoan eta Danel Casais perkusioan.

Alaitasuna zabaltzen

Aritzeta abesbatzako zuzendari Imanol Urzelaik ere kantu "alaiak" aukeratu ditu emanaldirako. "Beharra dago. Uste dugu bizi dugun egoerarako abesti aproposak direla". *Estamos* abestia lau ahotsetara abestekoa da. "Konfinamendu garaian oso ezagun egin zen abestia da"; Josu Elberdinen *Izar ederrak* abestuko dute ondoren, sei ahotsetara egindako lana, eta 2010ean Tolosako abesbatzen lehiaketan derrigor abestu beharreko lana izan zena; *Smile* abestia, lau ahotsetara abestekoa eta *Tiempo modernos* filmean ezagun egin zena; eta Migel Gonzalez

Bastida bergararraren *Belengo estalpe txiki batian*: "Iazko emanaldian jo nahi genuen, Migel jaio zela 100 urte bete zirelako; ezinezkoa izan zenez, aurten joko dugu. Omenaldi txiki bat egin nahi diogu".

Hiru zuzendariak diote kontzertu "oso berezia" izaten dela Gabonetakoa. 41. aldia izango da aurtengoa, eta Debagoienan aitzindariak izan ziren bergararrak horrelako kontzertu bat antolatzen. Amaierako *tutti*-denek elkarrekin abestea -faltan nabaritutako dute bai ikusleek eta baita musikariek ere.

DEBAGOIENEAN AITZINDARIAK IZAN ZIREN BERGARARRAK; AURTENGOA 41. ALDIA IZANGO DA

FERMIN ETXEGOIEN

KAZETARIA

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAREN 22AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
ELKARRIZKETTAP, JONI UBEDAK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



"Egun, obra sinfoniko bat sortzea opari bat da"

Konpositore ugariaren artean aukeratu zuten Beatriz Arzamendi arrasatearra obra sinfoniko bat sortzeko. Hamabost minutu irauten du, eta, oraingoan, familiak bakarrik entzun du; istorio berezia kontatzen duela adierazi du egileak

Ainhoa Arana ARRASATE

SGAE Fundazioak eta AEOSeK Beatriz Arzamendi arrasatearra aukeratu zuten estatu mailako orkestren erreperitorio sinfoniko garaikidea handitzeko. Bederatzi hilabete izan ditu, gutxi gorabehera, obra sortzeko, eta asteon entregatu du. Oso pozik dago emaitzarekin eta gaur egun bizi izaten ari den egoerarekin.

Nolako izan da obra sinfoniko hori sortzea?

Nire kasuan, Nafarroako Orkestra Sinfonikoak egindako proposamenari jarraituz aukeratu ninduten, eta, beraz, egin dudana obra haien izango da. *Sorginen soinua* izenburua jarri diot eta hamabost minutu inguru irauten du. Oso polita eta gogorra izan da; sorginen inguruko liburu pila irakurri eta pelikula ere ikusi behar izan ditut.

Zein da izenburu horren atzean dagoen istorioa?

Zazpi sekziotan banatutako obra da, dena jarraian jo arren, eta zati bakoitzean sorginen soinua imajinatu dut: ilargiaren zurutasunak belardian egiten duen argia imajinatu dut has-teko; ondoren, gauean intxaur-rondoan artean sorginen dantza imajinatu dut; jarraitzeko, sorginen aieneak entzun daitezke; gero, akelarre bat etorriko da, Akerbeltzen jai eta orgia bat imajinatu ditut; jarraian, sorginen dantza; irrintzi bat ere imajinatu dut; eta, bukatzeko, sorginen hegaldi bat. Antzina emakume haiek sufritu zuten errepresioari buruzko obra bat egin nahi nuen, eta, nolabait, haienganako omenaldi bat ere.

Noiz entzun ahal izango da obra?

Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren 2022-2023 ikasturtean entzuteko egin dago. Iruñean joko dute lehenengo aldiz eta Nafarroan beste pare bat aldiz



Beatriz Arzamendi, piano aurrean. BEATRIZ ARZAMENDI

"GAUR EGUN BIZI IZATEN ARI NAIZEN MOMENTU ARTISTIKOA OSO BEREZIA DA"

gehiago jotzeko konpromisoa erakutsi dute, zein herritan ez dakiten arren. Nik uste dut irail edo urri aldera entzun ahal izango dela.

Orain, badaukazu proiekturik esku artean?

Urte oparoa izan da, lan asko izan ditut; besteak beste, Laura Sierra pianistaren eskutik estreinatu zen irailean nire lane-tako bat, *Psiqué* izenekoa, eta urrian Isabel Perez pianista gaztearen eskutik *Sillage* obra estreinatu zen. Orain, beste eskakizun baten ari naiz lanean, Santanderko festibalerako, baina horren inguruan ezin dut ezer esan oraindik.

Zergatik dira hain garrantzitsuak horrelako ekimenak?

Konpositore batentzat oso zaila da musika sinfonikoa idaztea; hau da, orkestra handi baterako musika konposatzea. Orkes-

trako programazioa, normalean, oso eroso izaten da eta ez dute musika garaikidearen edo XXI. mendeko musikaren aldeko apusturik egiten. Ondorioz, ni bezalako konpositore batentzat oso zaila da horrelako obra baten enkargua izatea, eta horrelako ekimenak opariak dira guretzat. Nire kasuan, adibidez, obra pila estreinatzen ari naiz azken hilabeteetan, baina gehienak formatu txikietan interpretatzeko izaten dira.

Entzun al du inork obra hori?

Hasteko, neuk ere partzialki entzun dudala esan daiteke. Esan gura dudana da konpositoreok lehenengo geure buruan entzuten dugula, eta, ondoren, paperera pasatzen dugula. Gaur egun daukagun tresna eta baliabide guztiekin gutxi gorabeherako bat entzun dezakegu, baina ni naiz entzun duen bakarra, noski. Egia da senarrak eta seme-alabak direla nire sorkuntza musikalak eta nire ideia artistikoak jasaten dituztenak. Ondorioz, haiek ere ideia bat egin dezakete beraien buruan, baina, bestela, nik bakarrik entzun dut, eta horrela behar zuen izan.

Goienakideen txokoa

Abenduko sariak

TD Telebista (32')

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Sorginen soinua" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa. Irabazle dagoen LPD 15/2023 legearen arabera, jaiak ez dira dagozue zuei datu pertsonalari Gaiena Fundazioari bidaltzeko. Irabazlearen izena eta helbura zuzena zuzenean bidaltzeko. Irabazlearen izena eta helbura zuzena zuzenean bidaltzeko. Irabazlearen izena eta helbura zuzena zuzenean bidaltzeko. Irabazlearen izena eta helbura zuzena zuzenean bidaltzeko. Irabazlearen izena eta helbura zuzena zuzenean bidaltzeko.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko udalari esker

Ruper Ordorikaren kontzerturako sarrerak ditugu. Arrasate | Amaia Antzokia | Abenduaren 23an | 19:30ean

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Ruper" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia

*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa. Irabazle dagoen LPD 15/2023 legearen arabera, jaiak ez dira dagozue zuei datu pertsonalari Gaiena Fundazioari bidaltzeko. Irabazlearen izena eta helbura zuzena zuzenean bidaltzeko. Irabazlearen izena eta helbura zuzena zuzenean bidaltzeko. Irabazlearen izena eta helbura zuzena zuzenean bidaltzeko. Irabazlearen izena eta helbura zuzena zuzenean bidaltzeko.

Irabazi bi lagunendako otordua

LARRINETXE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: abenduak 21



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



*Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jaietxea

[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



2022rako Goienakide eginez gero, abenduan jaso Puntua doan. Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

OROIGARRIA

Andres Diaz Caja




2021eko abenduaren 12an hil zen, 74 urte zituela.

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko. Betiko izango zaitugu gure oroimen eta bihotzean, Andres.


Beberlyko lagunak, errespetu guztiarekin. Arrasaten (Musakola), 2021eko abenduaren 17an.

OROIGARRIA



Xabier Maskariano Ajuria

'Maska'



Zauden lekuan zaudela... Beti egongo zara gure artean, zure alaitasuna eta umore ona banatzen. Ez adiorik, Maska... egun handira arte baizik. Gure bihotzean betirako.

Aramaioko zure kinta lagunak. Arrasaten, 2021eko abenduaren 17an.

OROIGARRIA



Arantza Zabaleta Iturbe




2021eko abenduaren 14an hil zen.

Ta elkartuko gara berriro betiko gure lekuetan zabalduko ditugu besoak besarkatuz gure arimak. Ze...lagun maittia, egunak hobeak dira zurekin batera. Zure betiko lagunak: Txema (+), Arantza, Pili, Sabin, Pili, Miren, Belen, Iñaki eta Itziar.


Bergaran, 2021eko abenduaren 17an.

- ### HILDAKOAK
- Felipe Herranz Martin.** Arrasaten, hilaren 3an. 74 urte.
 - Calixta Urtaza Villar.** Oñatin, abenduaren 3an. 100 urte.
 - Jesus Mari Goñi Beain.** Gasteizen, hilaren 3an. 74 urte.
 - Maria Jesus Elexpuru Unzueta.** Antzuolan, 4an. 90 urte.
 - Amparo Vidal Vidal.** Arrasaten, abenduaren 4an. 85 urte.
 - Txomin Arregi Gantxegi.** Bergaran, 3an. 89 urte.
 - Tomas Inza Leturiaga.** Oñatin, abenduaren 4an. 91 urte.
 - Romana Garcia Velasco.** Arrasaten, hilaren 5ean. 89 urte.
 - Margarita Kortabarria Uriarte.** Oñatin, 5ean. 94 urte.
 - Sara Izuskitza Makazaga.** Bergaran, hilaren 6an. 63 urte.
 - Juan Carlos Cusi Arkauz.** Bergaran, hilaren 7an. 57 urte.
 - Julian Herranz Sacristan.** Eskoriatzan, 7an. 90 urte.
 - Begoña Aranzabal Laskurain.** Bergaran, 8an. 90 urte.
 - Anastasia Agirre Begiristain.** Bergaran, 8an. 89 urte.
 - Bizenta Garitaonandia Lizarralde.** Bergaran, abenduaren 8an. 91 urte.
 - Jose Zurutuza Elorza.** Bergaran, hilaren 10ean. 85 urte.
 - Andres Diaz Caja.** Arrasaten, abenduaren 12an. 74 urte.
 - Nicolasa Altuna Markaide.** Aramaion, 13an. 91 urte.
 - Xabier Maskariano Ajuria.** Arrasaten, 13an. 71 urte.
 - Maria Luisa Elorza Leturia.** Oñatin, 13an. 89 urte.
 - Jesus Uribesalgo Arana.** Aretxabaletan, 14an. 91 urte.
 - Isabel Valverde Tapia.** Arrasaten, hilaren 14an. 93 urte.
 - Arantza Zabaleta Iturbe.** Bergaran, abenduaren 14an.
 - Conchita Jausoro Idigoras.** Oñatin, hilaren 15ean. 97 urte

URTEURRENA



Eusebio Arietaleaniz Ciarsolo



2020ko abenduaren 15ean hil zen, 91 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Beti eruango zaittugu bihotzian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2021eko abenduaren 17an.

URTEURRENA



Juanita Barrena Ugarte

Andres Urzelairen alarguna



2020ko abenduaren 16an hil zen, 88 urte zituela.


Urteurreneko meza zapatuan izango da, abenduaren 18an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2021eko abenduaren 17an.

ESKER ONA

Jose Mari Leturia Alberdi

'Eguzkitza'




2021eko abenduaren 2an hil zen, 71 urte zituela.

Txabola, txakurrak eta mendia; hori izan da zure bizia. Guk loratuko dugu zuk ereindako hazia.


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi. Bihotz bihotz bezarkada bana familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko abenduaren 17an.

ESKER ONA



Maria Luisa Elorza Leturia



2021eko abenduaren 13an hil zen, 89 urte zituela.

Familiaren izenean, bihotz-bihotzez, eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zineten guztioi.

Oñatin, 2021eko abenduaren 17an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

<p>ARRASATE EGUNEZ</p> <p>Egubakoitza, 17 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99</p> <p>Zapatua, 18 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26</p> <p>Domeka, 19 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39</p> <p>Astelehena, 20 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74</p> <p>Martitzena, 21 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65</p> <p>Eguaztana, 22 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09</p> <p>Eguena, 23 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30</p>	<p>EGUNERO</p> <p>(22:00etatik 09:00etara)</p> <p>Urtea bukatu arte:</p> <p>ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15</p>
<p>BERGARA EGUNEZ</p> <p>Egubakoitza, 17 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15</p> <p>Zapatua, 18 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74</p> <p>Domeka, 19 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74</p> <p>Astelehena, 20 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87</p> <p>Martitzena, 21 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05</p> <p>Eguaztana, 22 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63</p> <p>Eguena, 23 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15</p>	<p>EGUNERO</p> <p>(22:00etatik 09:00etara)</p> <p>Urtea bukatu arte:</p> <p>ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87</p>
<p>OÑATI EGUNEZ BAKARRIK</p> <p>Egubakoitza, 17 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28</p> <p>Zapatua, 18 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28</p> <p>Domeka, 19 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28</p> <p>Astelehena, 20 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16</p> <p>Martitzena, 21 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16</p> <p>Eguaztana, 22 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22</p> <p>Eguena, 23 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22</p>	<p>EGUNERO</p> <p>(22:00etatik 09:00etara)</p> <p>Urtea bukatu arte:</p> <p>ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87</p>

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoiengan.



BABESLEA

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gugan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Jolasean gozatuz**

Begarako Jardunekin diharduten neska-mutilek askotariko ekintzak egin zituzten aurrekoan: eskulanak, mozorroak, Gabonetako apaingarriak...

2. Hilaren 28an ezkonduko dira

Pedro arrasatearra eta Carmen bartzelonarra urtea bukatu aurretik ezkonduko dira. "Familiakoen eta lagunen partetik, zorionak, bikote! Bazen garaia!".

3. Tolosan nagusi

Pablo Arzuaga I. Memoriala ziklo-kros proba irabazi zuen Arrikruz-Aloña Mendi taldeko ziklista Aimar Madina oñatiarrak, gazte mailan.

4. 'Hegikide' aurkezten

Lemak taldeak herritarren aurrean aurkeztu zuen diskoa. Begarako eta Antzuolako musikariek lagunaren aurrean jo zituzten hainbat kanta.

5. Zirkua kalean

Zirkun Zirkoko artistek Arrasateko kaleak hartu zituzten aurreko asteburuan. Akrobatik, malabaristak eta orekariak ibili ziren kaleak kolorez janzten.

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzue? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.


Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Danel Lizarazu Altube
Abenduaren 22an, 6 urte. Zorionak, Danel, 6 urte! Ondo pasatu eguna. Asko maite zaitzugu! Aitaxoren eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Julen Barquero
Abenduaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Julen!



BERGARA
Lier Agirre Gonzalo
Abenduaren 21ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun, super ondo pasatu zure eguna. Patxo bat Oierren, Asierren, Juleneren, Maddiren eta Anerren partetik.



ESKORIATZA
Maite Altuna Bengoa
Abenduaren 20an, 64 urte. Zorionak, Maitetxu! Ondo pasatu zure egunean eta patxo potolo bat guztion partetik.



ARETXABALETA
Gari eta Oihan Hernandez Urzelai
Abenduaren 20an, 11 urte. Zorionak, Gari eta Oihan! Ederto ospatu zuen urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxeko danon partetik!



ARRASATE
Marta Rubia
Abenduaren 19an, 19 urte. Zorionak, Martuki! Asko-asko disfrutatu eguna, dakitzun moduen! Pila bat gurotzugu! BNT.



OÑATI
Izar Zulueta Igartua
Abenduaren 18an, 3 urte. Zorionak, politt hori! Ondo pasatu zure eguna! Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Jare Olabarria Sanz
Abenduaren 18an, 2 urte. Zorionak, artista! Dagoeneko bi urte bete ditxuzu! Segi beti bezain alai eta jaso muxu handi bat etxeko guztien partetik!




ESKORIATZA
Espe Isasmendi Romaratezabala
Abenduaren 18an, 64 urte. Ederto ospatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat guztion partetik.



BERGARA
Nahia Lagoma Casas
Abenduaren 18an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Patxo handi bat etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Enara Cabello Davila
Abenduaren 17an, 6 urte. Zorionak eta ondo-ondo ibili zure egunean, aitiba-amamen, izeba-osaben eta familia osoaren partetik!



ARRASATE
Maddi Bereziartua Zabala
Abenduaren 16an, 2 urte. Zure irribarraz kutsatzen jarraitzeko irrikaz gaudelako... Zorionak, Maddi!



ESKORIATZA
Ametz Aguirre Gandarias
Abenduaren 16an, 6 urte. Zorionak, Amets! Egunderrera pasatu, maitia. Muxu handi bat etxeko partetik. Asko maite zaitugu!



BERGARA
Helene eta Lide Otazo Egurza
Abenduaren 16an, 6 urte. Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu zuen eguna eta muxu handi bana etxeko partetik!



ARRASATE
Olaia Gonzalez Hernandez
Hilaren 16an, 24 urte. Uau hori zortia hau, zure eguna eta konfinau. Zurito batekin disfrutau, ospatuko dogula geruau. Zorionak, Olibita!



BERGARA
Unai Diaz Davila
Abenduaren 15ean, 7 urte. Zorionak, Unai! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat etxeko partetik.



ARRASATE
Aner Horrillo Zallo
Abenduaren 14an, 8 urte. Zorionak! Patxo handi bat gurasoen, anaia Aimarren, aitiba-amamen, izeba-osaben eta birramama Inmaculada partetik.



BERGARA
Uhaitz Gutierrez Cenitagoya
Abenduaren 14an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna, merezi duzu-eta. Besarkada izugarri bat zure familiaren partetik, bereziki Araizena. Maite zaitugu.



BERGARA
Mikel Basauri Davila
Abenduaren 14an, 3 urte. Zorionak, maitxia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat etxeko partetik.



ESKORIATZA
Lucia Kortazar Uribesalgo
Abenduaren 13an. 80 urte eta zein polita zaren! Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure egunean! Besarkada eta muxu handi bat, maite zaituen familia osoaren partetik.



ARRASATE
Edith Rebeca Ipurre
Abenduaren 13an, 24 urte. Zorionak eta patxo handi bat familia osoaren partetik.

ZORIONTZEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurak> helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.




BERGARA
Malen Aretxaga Arabalaza
Abenduaren 12an, 9 urte. Zorionak, Malentxo! Ondo-ondo pasatu eguna! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
Mikel Inurtegui Alberdi
Abenduaren 12an, 2 urte. Zorionak, Mikeltxo! Bi urtetxo gu alaitzen. Muxu handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
Peru Orueta Santos
Abenduaren 10ean, 10 urte. Zorionak, Peru, etxeko danon partetik; batez be, Natale eta Marxelena! Muxu handi bat, txapeldun!



OÑATI
Ainhoa Zulueta Vicuña
Abenduaren 10ean, 11 urte. Zorionak, maitte! Ondo pasatu eguna, politt hori! Patxo pilo bat!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 17

ARRASATE Gabonetako artisau azoka

Opariak erosteko aukera. Orduetgia: 16:00-20:00.
Seber Altuben.

BERGARA 'Txu-txu tren' herriko kaleetan

Bedelkarren eskutik. Orduetgia: 17:00-21:00.
Bergaran.

ARRASATE 'Neardental lurraldea' erakusketa: irekiera

Ikusgai urtarrilaren 9ra arte.
Kulturaten, 17:30ean.

ARAMAIO Bikoizketa lehiaketa

17:30ean, 8-12 urte artekoen eszenaratzeak egingo dituzte; eta 18:30ean, 12 urtetik gorakoak.
Kultura etxean.

ARRASATE 'Euskaratik mundura, eta mundutik euskarara' ipuin kontaketa musikatua

Ttak!-ek eta AEDk antolatuta, 5 urtetik gorako umeendako.
Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI 'Crisis ecológica y transición ecosocial. Retos y claves en tiempos de pandemia' hitzaldia

Yayo Herrerok egingo du berba, Jabetze Eskolaren baitan.
Kultura etxean, 18:00etan.

BERGARA Musika Eskolako ikasleen emanaldia

Gabonetako kontzertua.
Uarkapen, 18:30ean.

ARETXABALETA 'Respect' film laburraren estreinaldia

Aratz elkarteko lana. 18:30ean, elkarteko kideak eta senitartekoak joango dira; eta 19:30ean, herritarrak.
Arkupen.

OÑATI Gipuzkoako pilota txapelketako finala

Etxegaray-Oses bikote oñatiarra Barrocal-Bergara bikote bergararren kontra.
Zubikoan, 19:00etan.

ARRASATE Arrasate Blues 365 eta William taldeak

Emanaldi akustikoa egingo dute.
Arbolapetan, 19:00etan.

OÑATI Oñati abesbatzaren emanaldia

Gaboneko kontzertua.
Agustindarren elizan, 19:30ean.

BERGARA Bergarako bertsolari txapelketako finala

Iraitz Artola, Patxi Aiastui, Enaitz Alustiza, Mikel Mendiartz, Axier Arriaran, Iñigo Arzelus, Oxan eta Eñaut Uriarte bertsotan.
Kartzela zaharrea, 22:30ean.

ZAPATUA 18

ARRASATE Baserritarren azoka

Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Seber Altube plazan, 09:00etan.

BERGARA 'Sendabelarrak sukaldean' tailerra

Gaizka Menaren eskutik. Informazio gehiagorako: 685 75 33 78.
Elosuko abade-etxean, 09:30ean.

ARAMAIO Guggenheimera bisita

Mujeres de la abstracción erakusketa ikustera joango dira Itur Zuriko kideak.
Aramaion, 10:00etan.

OÑATI Elkartasun azoka

Gobernuz kanpoko erakundeen azoka, Elkar Heziren eskutik.
Foruen plaza, 10:00etan.

OÑATI Golf txapelketa

Golf txapelketa.
Irelore golf zelaian, 10:00etan.

BERGARA Txistulari banda

Kalejira egingo dute.
Bergaran, 10:00etan.

ARETXABALETA Neguko Azoka

Herriko artisauen produktuak.
Durana kalean, 10:00etan.

OÑATI 'Begirada ekofeministak: lurrarekin eta pertsonen artean baka egitea' ikastaroa

Yayo Herreroren eskutik, Jabetze Eskolaren baitan.
Euskaldun Berria gelan, 10:30ean.

BERGARA Napar Feria

Askotariko produktuak erosteko aukera.
San Antonio auzoan, 10:30ean.

ELGETA 'XVI. mendeko erretaula' bisita gidatua

Izen-ematea: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
Parrokian, 11:00etan.

ARRASATE Jostailu truke merkatua

Txartela dutenek edozein jostailu hartu ahal izango dute.
Biteri plazan, 11:30ean.

BERGARA 'Txu-txu tren' herriko kaleetan

Bedelkarren eskutik. Orduetgia: 11:30-14:00.
Bergaran, 11:30ean.

ESKORIATZA 'Zero kilometro artisau azoka'

Eskoriatzako artisauak egindako produktuak erosteko aukera.
Ibarraundi museoa, 12:00etan.

LEINTZ GATZAGA 'Gatz egile egun batez' tailerra

Gatza nola egiten den lantzeko tailerra, familian egiteko.
Gatz Museoan, 12:00etan.

ARETXABALETA Karmele Igartua Sorkuntza Bekaren sari banaketa ekitaldia

Aurtengo sariak banatuko dituzte.
Zaraia aretoa, 12:30ean.

ELGETA 'Kimikari' 'scape room'-a

Lehen Hezkuntzako seigarren mailatik DBHko bigarren mailara arteko neska-mutikoendako.
Gaztelekuan, 16:00etan.

ARRASATE Gabonetako artisau azoka

Opariak erosteko aukera.
Seber Altube plazan, 16:00etan.

OÑATI 'Go!azen. 8.0' kontzertua

Go!azen telesaileko protagonistekin.
Santa Ana antzokian, 17:00etan.

ARRASATE Ping-pong eta mahai-futbol txapelketak

Gaztetxoendako.
Erguingo gazte txokoan, 17:30ean.



DON INORREZ

OÑATI Don Inorrez musikaria

Imanol Ubedak gidatzen duen proiektua, *matinee* emanaldian. *Esku hutsik* diskoa aurkeztuko du Tolosako musikariak. Sarrerak: soldatadunek, bost euro; eta soldata bakoek, hiru.
Etzi, domeka, gaztetxean, 12:30ean.

ARRASATE Emakume* eta LGTBIAQ+ kolektiboko kideendako jaialdia

Jaialdi ez-mistoa izango da.
Gaztetxean, 18:00etan.

BERGARA 'El tren de los locos' liburuaren aurkezpena

Patxi Irurzun egilea egongo da ekitaldian, Angiolillo Liburutegiak gonbidatuta.
Kartzela zaharrea, 18:00etan.

BERGARA Erraldoien kalejira

Kalerik kale.
Bergaran, 18:00etan.

ESKORIATZA Musika eskolako kontzertua

Gabonetako emanaldia.
Kiroldegian, 18:30ean.

ARRASATE Trikiti eskolaren emanaldia

Gabonetako kontzertua.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ARAMAIO 'Eta kittorik ez!' antzezlana

Euskararen Egunaren harira.
Kultura etxean, 19:30ean.

BERGARA Gabonetako kontzertua

Orfeoak, Aritzeta abesbatzak, musika bandak eta Orkestra Sinfonikoak parte hartuko dute. Gonbidatu bereziarekin aurtun: Idoia Asurmendi *Viejo refranero* kantua interpretatuko du Orkestra Sinfonikoarekin.
Pilotalekuan, 20:30ean.

ARRASATE Leire Etxezarreta eta Pello Heriz zuzenean

Emanaldi akustikoa egingo dute.
Herriko Plazan, 20:30ean.

BERGARA Dodoma eta Guridi bideojockey-ak, eta Paloma De Casso, Kipei eta Katza DJak

Sarrerak, bost euro.
Kartzela zaharrea, 23:55ean.

DOMEKA 19

BERGARA Ezkurrari buruzko tailerra

Asier Bastarrikaren eskutik. Izena emateko: 688 92 00 86.
Elosuko abade-etxean, 10:00etan.

OÑATI Herriko artisauen azoka

Oñatiko artisauen produktuak erosteko aukera.
Azokan, 10:00etan.

OÑATI Espeleotxiki, familian

Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63.
Arrikutzen, 10:30ean.

ARRASATE Jolas parkea

Puzgarri erako txirristak, salto egiteko puzgarriak, *jumping*-a... Orduetgia: 11:30-14:00 eta 17:30-20:00.
Biteri plazan.

ESKORIATZA 'Zero kilometro artisau azoka'

Eskoriatzako artisauak egindako produktuak erosteko aukera.
Ibarraundi museoa, 12:00etan.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

'Tapia legea'

EAJren eta PSEren aldeko botoekin onartu berri da Ingurumen Administrazioarako Legearen tramitazioa. Oposizio guztia aurka agertu da. Izan ere, udalak eskuak lotuta uzten ditu, Jaurilaritzak, bere irizpidez, estrategikoa den proiektua edozein udalerritan garatu nahi baldin badu, nahiz herria edo udala kontra agertu.

Izan AHT, izan harrobi bat... Gurera etorrita, adibide bat izan liteke Arantzazuko harrobiaren handitze proiektua. Jakina denez, auzoak, herriak eta udalak kontrako jarrera agertu dute hasieratik, hainbat arrazoi tarteko, ingurumen kalteak alde batetik eta baita Udalak bere lurren antolamenduan dituen eskumenak oinarri hartuta ere.

Ba, horixe da, justu, lege aldaketa honek bilatu nahi duena. Udal baten araudiari jarraiki proiektu bat egikaritzea ezinezkoa bada, lasai egon, orain Jaurilaritzak badu eta tranpolin aparta Udalari gainetik salto egiteko, arrazoi "estrategikoetan" oinarrituta, hori bai.

Eta "estrategikoa" zer den, horixe da hemen gakoa. Normalean hormigoiaren sinonimoa izan ohi den hori, hain zuzen. Gero egingo dituzte, hori bai, 100 parte-hartze prozesu, herriz herri, plaza erdian karpa dotore askoak jarrita, mila txikikeriaren inguruan herritarrak entretenitzeko.

GOIENA OKM GIDA

"Polita da gure bezeroen erronkei forma ematea"

ARITZ ETXEBARRIA ETA ASIER HORMAETXEA BIARK ARKITEKTOAK

Birgaitze lanez harago, igogailua jartzeak jende askori "bizitza berri bat" izateko aukera ematen diola azaldu dute: "Etxetik irten barik urteak eman dituzte askok"

Jone Olabarria ARRASATE

Orain dela 16 urte baino gehiago zabaldu zuten Biark osatzen duten Asier Hormaetxea eta Aritz Etxebarria arkitektoek bulegoa Arrasaten. Aldez aurretik Donostiako eta Bilboko hainbat bulegotan aritu ziren lanean. Baina, urte batzuen ostean, konturatu ziren bulego propioa jarri eta Arrasaten bertan gura zutela lan egin.

Normalean, zeintzuk dira gehien egiten dituzuen lanak?

Zaharberitze eta birgaitze arloa da gehien jorratzen duguna. Txaletetan ere egiten dugu lan, baina, batez ere, fatxadak, teilatua, igogailuak, baserriak, lokalak, ITEak...

Bizilagunen komunitateetan zaila izango da denak ados jartzea.

Denetarik dago, baina bai, egia da. Batez ere, ekonomikoki bakoitzak bere egoera pertsonala du eta akordioetara iristea ez da erraza izaten, baina horretarako egoten dira dirulaguntzak, kredituak...

Zer da zuen lanak duen onena?

Onena jendearekin daukagun harremana dela esango genuke. Jende asko ezagutzen dugu, eta polita izaten da eurei entzutea eta gero erronka hori gauzatea.



Etxebarria eta Hormaetxea, Musakolan berri dute eraikina atzean dutela. J.O.

Meloia, nahi barik ere jatera behartu

"Behin, baserri baten birgaitze bat egiten genbiltzala, sukaldara sartu eta erosi berri zuten meloia atera zidaten jateko. Nik ez dut meloia gustuko, baina ez nintzen gai esateko; ilusio izugarriekin eskaini zidaten meloi hura probatzeko. Orduan, halako batean, eta begira ez zeudela aprobetxatuta, poltsikoan sartu eta oso ona zegoela esan nien, jan banu bezala. Gero, etxera poltsikoa blai-blai nuela joan nintzen", kontatu du Asier Hormaetxeak.

Azkenean, euren beharren arabera kontratatzen gaituzte, eta, horrenbestez, guk gai izan behar dugu behar horiek errealitate bihurtzeko.

Okerrena, aldiz?

Askotan, ordu asko sartu behar direla lanean proiektu hauek aurrera eramateko.

Zenbaterainoko aurrezteak ekar dezakete halako lanek?

Desberdina izaten da kasuaren arabera, kontuan hartu beharreko faktore asko egoten dira eta: orientazioa, eraikinaren forma, eraikina osatzen duten etxeak/lokal motak, leiho mota, galdarak... Eta gero, zer-nolako aktuaioa egiten den eraikinean. Baina, orokorrean, %60-80koa izan daiteke aurrezpena.

Igogailuak ere jartzen dituzue. Musakolan, adibidez, zer garrantzi dauka horrek?

Jende nagusi asko etxetik ezin irtenda egon da urte askoan, mugikortasuna mugatuta delako eta ezin delako eskailere-tatik jaitsi. Halako kasuak topatu ditugu, etxetik irten barik urteak daramatzatenak. Hori oso gogorra da, eta igogailuarekin bizi berri bat lortzen du, bat-batean, pertsona horrek.

Isolatutako etxe zahar baten eta etxe berri baten aldean, zer nahia-go? Etxe berriek, orokorrean, kalitate onak dakartzate?

Gaur egun dagoen araudia oso gogorra eta zorrotza da efizientzia aldetik, bai etxe berrietan, baita ere zaharberitzean. Parametro eta datu zehatz batzuk lortu behar dira.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

OÑATI KO KIROL SOLASALDIAK

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAREN 17AN, EGUBAKOITZEAN, 21.00ETAN
ARATZ LOSADAK AURKEZTUTAKO SAIOA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

